

7



*Gabriel Jauregi*  
Batxilergorako materialak

# Filosofiaren historia

Elias Goñi Olalde

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Euskara Zerbitzua  
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma  
Batxilergorako materialak

7

**Filosofiaren historia**

Elias Goñi Olalde

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

### **ARGITARATUTAKO IZENBURUAK**

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma (iruzkigintzarako testuak).
2. Mikroekonomiaren oinarriak.
3. Energia baliabideak. 1. Batxilergo teknologikoa.
4. Arte marrazketa.
5. Oinarritzko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta mekanismoak.
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan.
7. Filosofiaren historia.

---

Argitaldia:	1. <sup>a</sup> , 2009ko urtarrilean
Ale-kopurua:	500
©	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria.Gasteiz
Egilea:	Elias Goñi Olalde
Fotokonposizioa:	Composiciones RALI, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 7. <sup>a</sup> - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A. Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2872-7
L.G.:	BI-3821-08

# AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	9
0.1. Antzokia eta liburutegia.....	11
0.2. Oroimena eta ulermena.....	11
0.3. Konstruktibismoa.....	12
0.4. Unibertsitatera Sartzeko Hautapropa.....	14
0.5. Hezkuntzarako ofimatika.....	14
0.6. Eskerrak.....	14
1. PLATON.....	15
1.1. Garaia: Atenaseko jakintsuen eztabaidak.....	17
1.2. Izana: ideien munduan ongia nagusi.....	18
1.3. Ezagutza: ideien birgogoraketa dialektikaren bitartez.....	19
1.4. Gizakia: gorputz bat, hiru arima, lau bertute.....	20
1.5. Gizartea: jakintza zaleen agintaritza.....	20
2. ARISTOTELES.....	23
2.1. Garaia: Mazedoniar Inperioko Lizeo berria.....	25
2.2. Ezagutza: abstrakzioaren lana.....	25
2.3. Izana: fisika eta mugiezinezko jainkoa.....	26
2.4. Gizakia: irrikak eta bertuteak.....	27
2.5. Gizartea: agintzeko era zuzenen aniztasuna.....	28
3. AGUSTIN HIPONAKOA.....	31
3.1. Garaia: Erromatar Inperioko eskola aniztasuna.....	33
3.2. Gizakia: Jainkoagan sinestearen beharra.....	34
3.3. Ezagutza: Jainkoagandik datorren argia.....	35
3.4. Izana: Jainkoak sorturiko mundua.....	35
3.5. Gizartea: Jainkoaren hiria.....	36
4. TOMAS AKINOKOA.....	39
4.1. Garaia: Unibertsitatearen sorrera Erdi Aroan.....	41
4.2. Ezagutza: arrazoia fedearen zerbitzuan.....	41
4.3. Izana: substantziaren hirugarren osagaia.....	42
4.4. Gizakia: joera naturalak.....	43
4.5. Gizartea: lege naturala eta Aita Santuaren erregetza.....	44
5. DESCARTES.....	47
5.1. Garaia: zientziaren eta Elizaren arteko lehia.....	49
5.2. Ezagutza: pentsatzen du, beraz.....	50

5.3.	Izana: ni, Jainkoa eta mundua . . . . .	50
5.4.	Gizakia: gorputza, arima eta guruin pineala . . . . .	51
5.5.	Gizartea: jakintza erabilgarriak . . . . .	52
6.	LOCKE . . . . .	55
6.1.	Garaia: Iraultza Loriatsua . . . . .	57
6.2.	Ezagutza: enpirismoa. . . . .	58
6.3.	Izana: ezagutzatik errealitatera sentazioen bitartez . . . . .	60
6.4.	Gizakia: egoera naturala . . . . .	61
6.5.	Gizartea: gizarte zibila. . . . .	62
7.	ROUSSEAU . . . . .	65
7.1.	Garaia: Frantziako Iraultzaren aurretik . . . . .	67
7.2.	Ezagutza: sentimenduen garrantzia . . . . .	68
7.3.	Izana: Jainko berdintzailea . . . . .	69
7.4.	Gizakia: errukitasuna, askatasuna, berdintasuna . . . . .	69
7.5.	Gizartea: borondate orokorra. . . . .	70
8.	KANT . . . . .	73
8.1.	Garaia: arrazoiak ematen digun argia . . . . .	75
8.2.	Gizakia: moralaren beharra . . . . .	76
8.3.	Ezagutza: ezagutu ezinezko gauza bera. . . . .	77
8.4.	Izana: pentsatutako gauza bera . . . . .	78
8.5.	Gizartea: arrazoitu baina obeditu. . . . .	79
9.	MARX. . . . .	81
9.1.	Garaia: Industria Iraultza. . . . .	83
9.2.	Izana: materiaren historia . . . . .	83
9.3.	Gizakia: talde-lana. . . . .	85
9.4.	Ezagutza: ideologia alienatzaileen kritika . . . . .	86
9.5.	Gizartea: diktaduraren bitarteko askatasuna . . . . .	87
10.	NIETZSCHE. . . . .	89
10.1.	Garaia: berdintasunaren gorakada . . . . .	91
10.2.	Ezagutza: artista izan jakitun baino. . . . .	93
10.3.	Gizakia: ahulak eta indartsuak. . . . .	93
10.4.	Gizartea: artista supergizaki nagusi. . . . .	94
10.5.	Izana: bizitza berberaren etengabeko itzulera . . . . .	95
11.	WITTGENSTEIN . . . . .	97
11.1.	Garaia: Lehen Gerra eta Bigarren Gerra . . . . .	99

11.2. Izana: mundua gertakizunen bilduma gisa .....	100
11.3. Ezagutza: hizkuntza-egituren eta mundu-egituren berdintasuna.....	100
11.4. Gizakia: botilan harrapaturiko eulia .....	101
11.5. Gizartea: askotariko hizkuntza-jolasak .....	103
12. ORTEGA Y GASSET .....	107
12.1. Garaia: Espainiaren zatitzea .....	109
12.2. Ezagutza: perspektiba guztien beharra .....	109
12.3. Izana: ni, ingurunea eta historia. ....	111
12.4. Gizakia: jendetza eta aristokrata .....	113
12.5. Gizartea: Europa aberri handia .....	114
13. BIBLIOGRAFIA.....	117

*Sarrera*

**0**

## 0.1. ANTZOKIA ETA LIBURUTEGIA

1. Liburu honek ikasliburu autonomo bat izan nahi du, hau da, ikasleek ikasgelan beren kontura ikasteko moduko liburu bat. «Beren kontura» esaten dudanean, irakaslearen laguntzarik gabe esan nahi dut, edo ahalik eta laguntza gutxienarekin behintzat. Beharrezkoa litzateke ikasliburu onaren ezaugarri bat autonomia izatea, hau da, irakaslerik gabe ikasleak erabili ahal izatea.

2. Irakasle askok ez dute ikaslibururik erabiltzen; ahozko azalpenak ematen dituzte gehienbat. Haien ikasleek apunteak hartu behar izaten dituzte inprentaz eta fotokopiadorez ongi hornituriko garai hauetan. Beste irakasle batzuek ikasliburua erabiltzen dute, baina ahozko azalpenak baztertu gabe. Haien ikasleek ikasliburuari jarraitu behar izaten diote edo ikasliburua azpimarratu behar izaten dute, irakasleari entzuten dioten bitartean.

3. Aipaturiko kasu bietan, ikasgela antzoki bat da, eta ikastordua antzerki bat, irakaslearen antzerki bat hain zuzen ere: irakasleak bere emanaldia aurkezten du, eta ikasleek begiratu egiten diote. Irakaslearen antzerki hori teknologiaz gutxiago ala gehiago hornitua egon daiteke. Ikasleek apunteak hartzeko orri zuriak edo azpimarratzeko liburua eta abar erabil ditzakete. Irakasleak arbela, ikasliburua bera edo, baita ere, ordenagailua, arbel elektronikoa, eta Power Point delakoa erabil ditzake. Dena den, sakoneko eredu berbera da beti: antzerkiarena.

4. Ikasliburu honek antzerkiaren ereduari jarraitzeko balio du, baina hori baino gehiago nahi du: liburutegiaren ereduari jarraitu eta hori indartu nahi du. Eredu horren arabera, ikasgela ez da antzoki bat, liburutegi bat baizik. Liburutegian, ikasleak ez du begiratzen edo entzuten, irakurri egiten du, isiltasunean, bere kontura, gogoetak eginez. Galderaren bat baldin badu, irakasleari galde diezaioke.

5. Baina ikasgela liburutegi bihurtzeko, ikasleentzat ulergarri izango diren liburuak behar dira. Badago liburuen ulergarritasunaz arduratzen den Psikologiaren adar edo espezialitate bat, Irakurketaren Psikologia. Haren hainbat aholkuri jarraitzen saiatu naiz; honako hauei adibidez: 1) Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bakar bat jarri dut, eta gainera ideia hori paragrafoaren hasieran eta lodiz agertu dut. 2) Filosofo bakoitzaren gaian, filosofoaren bizitza eta garaia ildotik, filosofo horren kezka edo motibo nagusiak zein diren lehenbailehen azaltzen saiatu naiz, ikaslearen kezka pizteko asmoz. 3) Hiztegi teknikoa ikasleentzat arrunta izan daitekeen hiztegiaren bitartez definitzen saiatu naiz. 4) Esaldi motzak egiten saiatu naiz.

6. Ikasgelako liburutegiak berezitasun handi bat dauka, beste liburutegi guztien aldean: ikasgelako irakurle guztiek abiadura berean irakurri behar dute, nolabait. Horregatik, gutxieneko programazio bat behar da. Liburuxka honen irakurketa programatzea oso erraza da; horretarako nahikoa da azpialal bakoitza ikastordu bakoitzean ikustea. Hau da, azpialalen luzera pentsatua dago ikastordu batean azpialal bat irakurri, ulertu eta ikasi ahal izateko. Halako programazio bati jarraituz gero, libre gelditzen diren ikastorduak azpialalen arteko konparazioak lantzeko, eztabaidak egiteko, filosofoen testuak irakurtzeko, eta abarretarako erabil daitezke.

## 0.2. OROIMENA ETA ULERMENA

7. Lorturiko emaitzak oroitarri dogmatiko baten antza eduki dezake askoren iritziz; buruz ikasteko eta filosofiaren etsai omen diren laburpen horien antza, hain zuzen ere. Eta



egia da, paragrafo bakoitzaren kontzeptu nagusia, lodiz agerturikoa, buruz erantzuteko galdera bat izan daiteke.

8. Baina liburuxka honek ulermena bereziki lantzeko aukera ere eskaini nahi du, eta aukera hori ez da oroimena lantzekoa baino txikiagoa. Ulermena lantzeko aukera hori atalen arteko eta paragrafoen arteko konparazioak egitean datza.

9. Azpiatalen arteko konparazioa egin ahal izateko, filosofoei buruzko azalpenak azpiatal berdinetan banatu dira. Azpiatal horiek garai, ezagutza, izana, gizakia eta gizartea dira. Ulermena lantzeko ariketa on bat, bi filosofoen azpiatal berdinetan bat konparatzea, eta bien arteko aukera edo sintesia egitea eta arrazoitzea izan daiteke.

10. Ikasleak filosofoen azpiatal berdinen konparazioak egin ditzan, Frantziako «Hautaprotan» erabiltzen duten «dissertation» delako ariketaren antzeko zerbait eska diezaioke irakasleak ikasleari. Horretarako, irakasleak bi mutur (tesia eta antitesia) agertuko dituen galdera bat jarri beharko du; adibidez: Proletalgoarena ala Supergizakiarena, norena izango da Europaren etorkizuna? Orduan, ikasleak hau egin beharko du: 1) sarreratxo bat galdera hori nola ulertzen duen eta zein filosofoekin lotzen duen azalduz; 2) tesi biak (tesia eta antitesia) agertu, konparatu eta kritikatu arrazoiak emanaz; 3) eztabaidari buruzko bere azken iritzia garbi azaldu, aukera edo sintesi eran. Jarritako adibidean garbi dago Marxen eta Nietzscheren gizarte azpiatalak konparatzea eta epaitzea eskatzen dela.

11. Konparazioak liburua irekita ala liburua itxita egin ditzake ikasleak. Liburua irekita (edo Internet eskuragarri) duela egiten badu, gutxitu egingo da oroimenaren eragina, eta ulermena landuko da gehienbat. Liburua itxita dagoela egiten badu, ahalmen biak landu beharko ditu ikasleak: ulermena eta oroimena. Egokiena, lehendabizi, ikasten den bitartean eta halako kontrol batzuetan, liburua irekita dagoela egitea, eta gero, bestelako kontrol, azterketa edo antolaturiko eztabaidetan, liburu itxita egitea izan daiteke.

12. Beraz, hiru aukera daude: nagusiki oroimena lantzea, nagusiki ulermena lantzea, eta ulermena eta oroimena batera lantzea. Irakasle bakoitzak erabakiko du zer noiz eskatu. Irakaslearen erabaki hori irakasleak azterketetan jarriko dituen galdera moten bitartez gauzatuko da. Jarritako galderak paragrafo baten edo paragrafo multzo baten kontzeptu nagusia agertzen badu, eta ikasleak egin behar duena kontzeptu hori azaltzea bada, ikasleek oroimena landu beharko dute gehienbat. Jarritako galderak paragrafo batzuen arteko edukiak konparatzea eskatzen badu, eta galdera erantzuteko ikasliburua (edo Internet) erabiltzeko aukera ematen bada, ulermena landuko da gehienbat. Jarritako galderak paragrafoak konparatzea eskatzen badu, baina liburua itxita dagoela erantzun behar bada, ulermena eta oroimena landu beharko ditu ikasleak. Oinarrizko hiru aukera horietatik beste batzuk atera daitezke; adibidez, konparazio baten ondoren ikaslearen iritzi arrazoitua agertu behar izatea, iritzien arteko eztabaidak egitea, eta abar.

### **0.3. KONSTRUKTIBISMOA**

13. Konparazioa da ulermena lantzeko bidea. Hainbat konparazio mota daude. Arazo bat konpontzeko bi egoera konparatu behar dira: aurreko egoera bat eta lortu nahi den emaitzari dagokion egoera. Ikusten den zerbaiten deskribzioa egitean, bi zera konparatu behar

dira: ikusten denaren osagaiak eta ikasitako hizkuntza-kontzeptuak. Hizkuntzaren bitarteko deskripzio bati dagokiona marraztu behar bada, antzeko zerbait gertatzen da: kontzeptuak irudi batzuekin konparatu behar dira. Egoera baten bi deskripzioen artean bat aukeratu behar bada, bi deskripzio horiek beren artean eta bakoitza bere egoerarekin konparatu behar da. Eta abar.

14. Baina ulermena lantzeko balioko ez lukeen konparazio edo sasi konparazio bat, honako hau litzateke: ikasi den horren eta ikasleak berak pentsatzen duenaren arteko konparazioa, hain zuzen ere. Horrek balio ez badu, ikaslearen jatorrizko pentsamendua praktikan eskuragarri ez dagoelako da.

15. Konstruktibismoaren pedagogoen ikasleak duen ikasi aurreko pentsamendua azaldu behar dela esaten digute, gero ikaslearen aurreko pentsamendu hori eta ikasi ondorengo pentsamendua konparatzeko. Baina hori ezin da ikasgeletan egin, zeren eta irakasleak horretarako beharko lukeen denbora izugarri handia bailitzateke.

16. Gainera, hori eginez, ulermena landuko lukeena irakaslea bera litzateke, baina ez ikasleak. Denboraren arazoa gainditu ahalko balu, irakasleak oso ondo ulertuko lituzke ikaslearen jatorrizko pentsamenduak; baina zer ulertuko lukete ikasleak? Bide horretatik, hau egin beharko luke ikasleak ulermena lantzeko: 1) arazoren bati buruz, adibidez filosofian egia zer denari buruz, bere pentsamendua azaldu, 2) arazo horri buruz ikasgaiaren bat aztertu, 3) bere lehenengo pentsamendua eta ikasgaiarena konparatu. Baina hirugarren pauso hori ematean, zer azalduko lukete ikasleak, ikasgaiaren zatiren batzuk ez badira? Nola epaitu edo zuzendu dezake irakasleak halako konparazio bat, aldeztu aurretik ikasle bakoitzaren pentsamendua ezagutu gabe?

17. Norberaren pentsamendua eta ikasten ari dena konparatzearen lana ikasle bakoitzak egin behar du. Ikasgelako gertakizun ikusgarrietara mugatuz, askoz emankorragoa da bi ikasgaiaren arteko konparazioa egitea, ikasle bakoitzaren ikasi aurreko pentsamendua eta ikasi ondoko pentsamendua konparatzea baino. Zergatik? Hasteko, irakasleak arazorik gabe ezagutuko dituelako bi ikasgai horiek; bigarren, ikaslearen emaitzak konparagarriak izan daitezkeelako.

18. Onar dezagun ikasle batek zerbait pentsatzen duela ikasgelan oraindik ikasi ez duen gai bati buruz (asko onartzea da, baina beno). Ikasgelan ikasi aurretik pentsatzen duen horri X deituko diogu. Eman dezagun irakasleak edo ikasliburuak gai horri buruz bi eredu ezberdin aurkezten dituela: A eta B. Konstruktibisten ikuspegitik, ikasleak hau egin beharko luke ongi ikasteko: lehendabizi, A-X konparazioa, eta gero, B-X konparazioa. Baina aurrerapauso bat gehiago ematen bada, A-B konparazioa agertu behar izatea, psiko-pedagogia enpirikoago eta praktikoago bat lor daiteke. Zergatik? Ikasleak egingo duen A-B konparazio hori ikusgaia eta kontrolagarria delako irakaslearentzat, A-X eta B-X konparazioak ikasgelaren ingurunean ikusezinak eta kontrolaezinak diren bitartean; Psikologia-laborategi batean agian bai, baina ez ikasgelan.

19. Bestalde, ikasitako ereduak (A, B...) konparatzearen eta kritikatzaren ondorioz norberaren pentsamendua (dei diezaiogun Y) eraiki daiteke. Orain, norberak pentsatzen duena ez da ikaskuntzaren aurreko zerbait dela kontsideratzen (lehen aipaturiko X hura), baizik eta ikaskuntzaren ondoriozko zerbait dela kontsideratzen da (orain aipaturiko Y hori). Horre-

la, norberaren pentsamendua hezkuntzaren ondorio dela onartuz, askoz hobeto uler daiteke hezkuntzaren funtzioak eta emaitzak zein diren; eta bereziki hau ikusten da: pentsatzaile autonomoak eta kritikoak hezteko ez dela nahiko errealitatearen eredu bakar bat (A hura) agertzea, ezta eredu ezberdin batzuk (A, B...) aurkeztea ere, baizik eta gainera eredu ezberdinak (A, B...) beraien artean konparatzeko bidea jarri behar dela.

#### **0.4. UNIBERTSITATERA SARTZEKO HAUTAPROBA**

20. Unibertsitatera Sartzeko Hautaprobetan filosofo baten testu bat jartzen zaie ikasleei eta iruzkin bat egitea eskatzen zaie. Hor, ikasleak bi hauek konparatu behar ditu: testu horrek esaten duena eta testua idatzi duen filosofoari buruz ikasleak berak ikasi duena. Baina konparazio hori, ideia ezberdinen arteko konparazioa baino, era ezberdinetara azalduko ideia berdinen konparazioa da. Esan daiteke, orduan, probaren mamia, filosofikoa baino, hizkuntzazkoa dela.

21. Filosofiarentzat, hobe litzateke filosofo ezberdinen arteko pentsaerak konparatu behar izatea; eta gero, beraien arteko sintesi edo aukeraren bat arrazoitu behar izatea, Frantziako «Hautaprobak» «dissertation» delakoaren bitartez egiten dutenaren antzera.

22. Posible litzateke Unibertsitatera Sartzeko Hautaprobak «dissertation»aren antzeko zerbait egitea ikasgaiaren egitaraua aldatu gabe, eta testu-iruzkinaren itxura aldatu gabe (Madrilek iruzkina izatea agintzen badu). Nahikoa litzateke horretarako bi testu jartzea eta horien idazleen arteko konparazioa eskatzea, gai-zerrenda murriztu baten gai zabal bati dagokionez. Gai horiek honako hauek izan daitezke: garaia, ezagutza, izana, gizakia eta gizartea.

#### **0.5. HEZKUNTZARAKO OFIMATIKA**

23. Ikasliburu honen paragrafoak zenbakiturik daude. Horrela askoz errazagoa izango da ikasgelan edo edonon beraiei buruz hitz egitea edo komentarioak egitea. Gainera, ikasleek azpiatalen arteko konparazioen idazlanak egiten baldin badituzte, paragrafo horien zenbakiak azal ditzakete idazlanetan, konparatutako baieztapen garrantzitsuenak nondik atera dituzten agertzeko.

24. Azpiatalen izenburuen aurretik, eta atal bakoitzaren amaieran, atalaren izenburua jartzen da eskuinaldean, zenbakirik gabe eta kortxeteen artean idatzita. Horrela, idazki hau ordenagailu baten pantailan irakurtzen bada, errazagoa izango da zein ataletan gauden ikus-tea. Paperezko liburuetan antzeko zerbait egiten da, orrialde bakoitzaren goiko aldean atalaren izenburua agertuz.

#### **0.6. ESKERRAK**

25. Eskerrak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari, Iraleko R400 ikastarora joateko baimena emateagatik; eta Iraleko Arrateri, ikasliburu honen euskal gramatika eta ortografia zuzentzeagatik.

26. Donostia, 2006-12-22: Elias Goñi Olalde.

*Platon*

**1**

## 1.1. GARAIA: ATENASEKO JAKINTSUEN EZTABAIDAK

27. **Atenasekoa** zen Platon (427-347). Atenas hiria estatu independente bat zen; hau da, hiri-estatu bat, inguruko beste batzuk bezala. Gainera, Atenas hiri-estaturik ahaltsuena zen greziar munduan. Baina Platoni Atenasen gainbehera politikoan bizitzea tokatu zitzaion.

28. **Sofistak** (sofos = jakituria, ista = handienekoa) hiriko jakintsuenak ziren; eta gainera, agintarien irakasleak ere baziren. Politikaz nola eztabaidatu irakasten zuten, eta baita legeria ere. Kobratuz irakasten zuten. Sofista batzuk konbentzionalista dira, eta beste batzuk naturalista.

29. **Naturalista** direnentzat egiazko justizia bat dago, naturaren ereduari jarraitzen diona, eta horri jarraitu behar zaio gizartean eta baita politikan ere. Baina, justizia naturala zer den zehaztean, aurkako iritziak dituzte naturalistek: oligarkena eta demokratena.

30. **Oligarken eta demokraten** artean banatzen dira naturalistak. Oligarken ustez, naturala hau da: plazera bilatzea eta indartsuenek agintzea. Demokratentzat, ordea, naturala guztion berdintasuna da.

31. **Konbentzionalista** dira naturalista ez diren sofistak. Konbentzionalistek diotenez, hiriaren legeak konbentzioz (hitzarmenez) ezarri behar dira. Eta elkarrizketa politikoa ez da egiazko justizia aurkitzeko bidea; jendea manipulatzeko tresna da. Bi konbentzionalista mota daude: erlatibistak eta eszeptikoak.

32. **Erlatibisten eta eszeptikoen** artean banatzen dira konbentzionalistak. Erlatibistek diotenez, egirik ez dago. Eszeptikoen diotenez, egia balego, ezinezkoa litzateke ezagutzeta. Erlatibistek egiazat hartzen dute egirik ez dagoela; orduan, kontraesanean erortzen dira. Eszeptikoak, ordea, ez dira kontraesan horretan erortzen, itxuraz behintzat.

33. **Sokrates** omen zen Atenaseko jakintsuena. Baina sofisten aurka zegoen. Ez zuen irakasteagatik kobratzen, jakituriaren zaletasunak bultzatuta hitz egiten zuen lagunekin. Jakituriaren zalea zen, filosofoa hain zuzen (filo = zale, sofos = jakintza).

34. **Maieutika** da Sokratesen ezagutzeko metodoa. Maieutikaren helburua ongiari buruzko egia aurkitzea da. Bidea elkarrizketa da. Galdera asko egiten zaizkio solaskideari, horrek, konturatu gabe, erantzun kontraesankorrak eman arte. Orduan, kontraesanean harapatutakoak ezer ez dakiela onartu behar du. Eta are galdera gehiago egiten zaizkio, egiazko erantzuna aurkitu arte.

35. **Intelektualismo morala** deitzen zaio Sokratesen pentsaerari. Sokratesek diotenez, gaiztoa izatearen zergatia ez jakitean datza. Bestela esanda: «izan zaitez jakintsu eta ona izango zara». Beraz, jokaera zuzenari buruzko benetako kontzeptuak lortu behar ditugu, hau da, justizia, neurritasuna, adorea eta beste bertuteak ongi definitu behar ditugu. Horrela, morala ikasi ahal izango da, eta inor ez da gaiztoa izango. Platon Sokratesen jarraitzaile izan zen, baita intelektualismo moralean ere, eta sofisten aurkakoa. Hona hemen Platonen pentsaera:

## 1.2. IZANA: IDEIEN MUNDUAN ONGIA NAGUSI

36. **Heraklitok eta Parmenidesek** izanari buruzko aurkako iritziak zituzten. Heraklitok zioenez, izana etengabeki jariatzen duen erreka baten ura bezalakoa da: atxiki edo ezagutu ezinezkoa, hain zuzen ere. Parmenidesek zioenez, izana da eta ez-izana ez da. Platonek izana ezagutu nahi du, eta Parmenidesi jarraitzen dio. Baina orduan, nola gerta daitezke izakien aldaketak (adibidez hazia lore bihurtzea), aldaketaren bat gertatzeko izateari utzi (hazia izateari utzi) behar baldin bazaio? Non daude benetakoak diren eta aldatzen ez diren izakiak?

37. **Non dago justizia?** Nola esan genezake ekintza bat justua ala injustua den, aldeztatik benetako justizia ezagutu gabe? Non dago, ezagutu ahal izateko, benetako justizia hori?

38. **Izanaren bi eremu** daudela baieztatuz konpontzen dira aurreko arazo biak. Arazo horiek konpontzeko, dagoen guztia bi eremutan zatituta dagoela jakin behar da. Bi eremu horiek ulergarria eta sentigarria dira.

39. **Mundu ulergarria** ulermenaren bitartez ezagutzen dena da. Bertan ideiak daude. Ez dira materialak, forma soilak edo hutsak baizik, materia hutsekoak hain zuzen ere; hau da, materia gabeko ezaugarri soilak dira. Baina berez dira, guk ezagutu baino lehen. Aldaezinak dira, betierekoak, perfektuak. Adibidez: ongia, justizia, edertasuna eta horiek bezalakoak; eta baita ere arrosa, zaldia, gizakia... Izen arruntak bezainbeste ideia daude.

40. **Mundu sentigarria** sentimenez ezagutzen dena da. Hor gauzak daude. Gauzak materialak dira; ideia baten forma hartu duten materia zatiak dira. Ez dira berez, ez dira benetakoak, ideien kopia edo adibide inperfektuak besterik ez dira. Materiaren perfekzioerik ezak dituztenez, jaio ondoren aldatu, usteldu, apurtu eta hil egiten dira. Adibidez: hor dagoen arrosa zehatz hori, zaldi hori, gizaki hori...

41. **Betiereko hiru zera** daude: ideiak, materia nahastua eta Demiurgo jainkoa. Demiurgoak materia hartu zuen, buztina balitz bezala, eta, ideien formak kopiatuz, mundu sentigarriko gauzak egin zituen. Horrela, ideia gauzaren eredu aldaezina da. Gauza bakoitzaren benetako izaera gauza horren ideiak dauka. Eta ideari «esentzia», «gauza bera» edo «gauza bere baitan» esaten zaio.

42. **Izaki guztiak mailakaturik** daude. Gauzak ideien menpe daude; gauza bakoitzari bere ideiatik datorkiolako izana. Eta ideia horri ideia nagusiago batetik datorkio izana. Ideia guztien mailaketaren erpinean onaren ideia dago, mundu ulergarria argitzen dago, eguzkiak mundu sentigarria argitzen duen bezala. (Haitzuloaren mitoa).

43. **Mailaketaren hedapena** bikoizketaren bitartez gertatzen da. Erpina bi ideiatan zabaltzen da. Horietako bakoitza beste bitan. Eta horrela piramidearen oinarriraino. Oinarrian dauden ideia zehatzei gauza material konkretuak dagozkie.

44. **Izakien mailaketa** erotikoa da. Izaki bakoitzarentzat helburu dira goragoko izaki guztiak, eta ongia bereziki; goragoko guztiak maite dituelako. Gizaki bakoitzak ongia ezagutu behar du, eta helburutzat eduki behar du, arlo pribatuan nahiz publikoan zintzo ibiltzeko.

### 1.3. EZAGUTZA: IDEIEN BIRGOGORAKETA DIALEKTIKAREN BITARTEZ

45. **Ezagutza** mota nagusi bi daude, bere aldakorkeriaren arabera: ulerpena eta iritzia. Izana aldaezina denez gero, horren ezagutzak ere aldaezina izan behar du. Orain gauza bat sinesten badugu eta gero beste bat, zuzen ezagutzen ez dugulako da.

46. **Ukertzea** ulermenak ematen digun ezagutza da. Ereku ulergarriari dagokio. Ideiei buruzkoa da. Zuzena eta aldaezina da, ideien moduan.

47. **Iritzia** sentimenez ematen diguten ezagutza da. Sentipenezko eremuari buruzkoa da; beraz, gauzei buruzkoa. Aldakorra eta okerra da. Baina elkarren aurkakoak diren sentipenezko kezka sortzen digute. Adibidez, ur-tanta bat gauza bakarra dela ikusten dugu, baina ur-tanta txiki askoz osaturik dagoela ikusten dugu. Kontraesana dirudi. Konpontzeko pentsatu egiten dugu, eta horrek ulertzera garamatza.

48. **Nola ezagutzen dira ideiak?** Jaiotzaz ditugu adimenean, geure arimak ikusi zitu-lako, mundu ulergarrian zebilenean. Arima gorputzera erori eta bertan haragitzen denean, ia ahaztu egiten ditu ideiak. Baina eremu sentigarriko gauzak ikusi eta beraiez pentsatzean, dagozkien ideiak gogoratzen ditu arimak. Ezagutzea birgogoratzea da.

49. **Hizkuntza-kontzeptuak** ditugu, ideiak ezagutzen ditugunean; hau da, kontzeptuak ezagututako ideiak dira, eta klase bateko banako guztiei dagozkie. Adibidez, «gizaki» kontzeptua gizaki banako guztiei dagokie. Baina ideia baten ezagutza ez da banakoen ezaugarriak aukeratuz eta bilduz lortzen; intuizio zuzen batez ezagutzen da. Kontzeptu bakoitza zatiezina da, intuizioak zuzenean hautematen duen ideia zatiezina den bezala.

50. **Nola dakigu ideia nork ezagutzen duen?** Ideia aldaezina denez gero, haren ezagutza zuzenak aldaezina izan behar du. Horregatik, nork ezagutzen duen jakiteko hau egingo da: Bakoitzak ideiarekin definizio bat emango du. Definizio bakoitza kritikatu eta eztabaidatu egingo da. Kritikak jasan ondoren, kontraesanetan erori ez delako definizioa aldatu behar ez duenak ezagutzen du ideia.

51. **Ikasketak** behar dira, ideiak ezagutzeko. Edertasunaren, justiziaren eta ongiaren ideiak ezagutzera iristeko, matematikak ikasi behar dira lehendabizi, eta gero dialektika. Gainera, hobe ikasketak gerrarako erabilgarri izatea.

52. **Matematikak** ikasi behar dira; hiltzen diren gauza sentigarriez arduratu ordez, aldaezinezko ideiez, zenbaki soilez hain zuzen ere, arduratzen direlako. Baina, hipotesietan oinarriturik daudenez, haien ezagutza ez da ziurra.

53. **Dialektika** ikasi behar da. Dialektika ideien mailaketaren ikasketa da. Dialektikak bi zeregin ditu. Lehena, gauza konkretu bakoitzaren abiapuntutik ongiaren ideiaraino gorantz doan lerroan dauden ideiak zein diren aztertzea. Bigarrena, edozein ideia batetik mailaketaren oinarriaraino beherantz doazen lerro guztietan agertzen diren ideiak, eta oinarriaraino agertuko diren gauzak, zein diren aurkitzea. Dialektikak, matematikek ez bezala, hipotesi guztiak baztertzen ditu, eta horrela ezagutza ziurra lortzen du.

#### 1.4. GIZAKIA: GORPUTZ BAT, HIRU ARIMA, LAU BERTUTE

54. **Gizakia** gorputzez eta arimaz osaturik dago; beraz, bi osagarri nagusi ditu, eta osagarri horietako bakoitzaren ezaugarriak.

55. **Gorputza** arimaren kartzela da: elikatu egin behar da; gaixotu egiten da; beldurra, grinak eta halakoak ditu; eta horrek guztiak zaildu egiten du arimak egin behar duen gogoeta eta izanaren azterketa.

56. **Arima** esentzia ikusezina, materiagabea eta izpirituzkoa da. Hiru zati edo jardue-  
ra mota ditu: sentimenezkoa sabelean, suminezkoa bularrean eta arrazionala buruan. Senti-  
menezko arimak irrika zakarrenak ditu, eta hilkorra da, gorputzari guztiz lotua dagoelako;  
animaliek ere badute. Suminezko arimak irrika gorenak ditu, baina hilkorra da. Arima arra-  
zionalak arrazoimena du, eta hilezkorra da.

57. **Bertuteak** gizakia bikaina bihurtzen duten jokatzeko era zuzenak dira. Jakin-  
tzazalearen eginbeharra bertuteak ongi ezagutzea eta praktikatzea da. Arima bakoitzak bere  
bertute gorenak ditu. Sentimenezko arimaren bertutea neurritasuna da: plazerak neurritz har-  
tzeko ahalmena. Suminezko arimaren bertutea sendotasuna da: erabakiei eta kemenei euste-  
ko ahalmena. Arima arrazionalaren bertutea zuhurtasuna da: arriskuak eta bide zuzenak  
aurreikusteko ahalmena.

58. **Zoriontasuna** hiru arimak elkarrekin ondo konpontzetik dator. Arimen multzoa  
bi zaldi dituen gurdi bat bezalakoa da. Sentimenezko arima zaldi bat litzateke. Suminezko  
arima beste zaldia litzateke. Arima arrazionala gurdiaren gidaria litzateke. Arima arraziona-  
lak sentimenezko eta suminezko arimak zuzendu behar ditu. Hiru arimen multzoak lauga-  
rren bertute bat du, orekarena edo harmoniarena: hiru arimak elkarrekin ondo konpontzeko  
ahalmena da. Harmonia horrek zoriontasuna dakar.

#### 1.5. GIZARTEA: JAKINTZA ZALEEN AGINTARITZA

59. **Hiria** (Platonen garaian eta ingurunean) estatu independente bat da. Platonentzat  
hiri edo estatu idealak, arimak bezala, hiru zati ditu. Horietako bakoitza klase sozial bat da:  
langileena, zaindariena eta buruzagiena. Klase bakoitzak bere izenak adierazten duen zere-  
gina betetzen du: langileek lan egiten dute, zaindarien hiria zaindu eta babestu, eta buruza-  
giak hiriaren zuzendaritzaz arduratzen dira.

60. **Bertute** nagusi bat dagokio klase bakoitzari. Langileen bertutea neurritasuna da,  
sentimenezko arimari dagokiona, beren lanak ondo egin ditzaten, plazeren gehiegikerietan  
erori gabe. Zaindarien edo gerlarien bertutea sendotasuna da, suminezko arimari dagokiona,  
borrokarako kemenari sendo eutsi diezaioten. Buruzagien bertutea zuhurtasuna da, arima  
arrazionalari dagokiona, agintzeko erabakiak zuzen har ditzaten.

61. **Justizia** klaseen arteko oreka eta harmonia da. Justizia hori klaseen multzo  
osoaren bertutea da, hiri osoaren bertutea, alegia. Oreka hori klase eta gizaki bakoitzak bere  
lana besteen zereginetan sartu gabe egiten duenean lortzen da. Horregatik, zapatariak zapa-  
tak landu behar ditu, bestelakoetan sartu gabe.



62. **Klase-kokapena**, gizaki bakoitzaren klase-kokapena hain zuzen ere, ez du jaiotzak erabakitzen, hezibidean lortutako mailak baizik. Horrela, hezkuntza-prozesu osoa burutzen dutenek bihurtu behar dute buruzagi; filosofoak hain zuzen ere, haiek ikusi baitute hiria antolatzeko eredia eta helburua den ongiaren ideia.

63. **Gobernu era ustelak** honako lau hauek dira: demokrazia, timokrazia, oligarkia eta tirania. Demokrazia herriaren gobernua da; lasakeria eta desordenetan erortzen da, ezjakinek agintzen dutelako. Timokrazia beren zereginetatik atera diren zaindarien gobernua da. Oligarkia besteen lepotik aberasteko agintzen duten gutxi batzuen gobernua da. Tirania bere nahikeria asetzeko agintzen duen maltzurrenaren gobernua da.

64. **Gobernu era zuzena** aristokrazia da: jakintsuen gobernua. Ona zer den dakienak denen onerako gobernatu behar du. Guztiek nahi eta onartuko dute haren gobernua, komeni zaielako, ongia baitakar. Horrela, denak izango dira lagun.

65. **Heziketa** beharrezkoa da, ongia eta justizia zer diren jakiteko. Heziketa da moral hiritarra gordetzeko, menpekoen batasuna mantentzeko eta estatu zuzena sortzeko dagoen bide nagusia. Horregatik, buruzagiek hezitzaile izan behar dute.

*Aristoteles*

**2**

## 2.1. GARAIA: MAZEDONIAR INPERIOKO LIZEO BERRIA

66. **Mazedoniakoa** zen Aristoteles (384-322). Mazedonia Atenasetik iparraldera dagoen herrialde handi bat da. Aristotelesen garaian Mazedoniak Grezia osoa menperatu zuen, baita Egipto, Persia eta Indiako lurraldeak ere, eta inperio bihurtu zen.

67. **Sendagilea** zen Aristotelesen aita, Mazedoniako erregearen sendagilea hain zuzen ere. Aitak anatomia eta ebakuntza irakatsi zizkion Aristotelesi. Hortik omen zetorkion Aristotelesi behaketarako, esperientziarako eta biologiarako zaletasuna.

68. **Atenasera** joan zen Aristoteles Mazedoniatik, hemezortzi urte zituela, han ikas-tera; hori zelako greziar kulturako hiri aurreratuena.

69. **Akademian** ikasi zuen Aristotelesek, Platonek sorturiko Akademian hain zuzen ere, eta hango ikasle jakintsuena izan zen, Platon hil arte. Baina Platon hildakoan, Akademiaren zuzendaritza eman ez ziotenez, Aristotelesek beste akademia platoniko bat sortu zuen beste herri batean.

70. **Alexandro** zen Mazedoniako erregearen semea. Aristotelesek haren heziketaren ardura onartu zuen, Mazedoniara itzulita. Alexandroren aita hildakoan, Alexandro errege bihurtu zen, eta mundua konkistatzera joan zen. Orduan, Aristoteles Atenasera itzuli zen. Alexandrok Egipto, Persia eta India konkistatu zituen, eta horrela, garaiko inperio handiena osatu zuen.

71. **Lizeoa** izeneko eskola mota berri bat ireki zuen Aristotelesek Atenasen. Aristotelesen Lizeoa Platonen Akademiarekin lehian ibili zen. Lehen Platonen ikasle eta gero haren lehiakide izatean datza Aristotelesen bizitza. Honako hau da Aristotelesen pentsaera:

## 2.2. EZAGUTZA: ABSTRAKZIOAREN LANA

72. **Definizioen izaerak** izugarritzko garrantzia du. Sokratesek ez zien definizioei aparteko izaera bat eman. Baina Platonek bai, eta orduan Platonek ideien izakiak asmatu zituen. Ondorioz, izakiak bikoiztu zituen, eta naturan gertatzen diren aldaketen ikerketa ezinezkoa bihurtu zuen.

73. **Izakien bikoizketa** bat sortu zuen Platonek. Hark zioenez, gauza baten benetako izana ezagutzeko, bigarren izaki bat ezagutu behar dugu, ideiarena hain zuzen. Baina, nola jakin bigarren izakia ezagutzen dugun? Hirugarren izaki bat asmatu beharko genuke. Horrela jarraituz, infinituraino joan beharko genuke, eta hori ezinezkoa denez, ez genuke lortuko hasierako gauzaren ezagutza dugun jakitea. Gainera, horrela, eremu sentigarriko aldaketen ikerketa ezinezkoa bihurtzen zaigu, zientzia beste munduko ideia aldaezinezkoen azterketa gisa definitzen baita.

74. **Esentzia edo zerizana**, gauzaren benetako izaera hain zuzen ere, ez dago gauzari dagokion ideian, gauzan bertan baizik. Horrela, Platonek sorturiko izakien bikoizketa eta aldaketa sentigarriak aztertzeko ezintasuna konpondu egiten da.

75. **Ezagutzaren prozedura** honelakoa da: Jaiotzean ez daukagu ezagutzarik; adimena hutsik dago, orri zuri bat bezala. Ezagutza zentzumenetan hasten da. Horiek atzemandakoak adimen geldoan gordetzen dira. Datu horiek landuz, oroimenaren eta irudimenaren bitartez, adimen eragileak abstrakzio-lana egiten du, hau da, gauza ezberdin askok batzen dituzten osagarri berdinak eta formalak aukeratzen ditu, eta beste ezaugarriak baztertu egiten ditu. Orduan, kontzeptu unibertsala sortzen da: multzo bateko kide ugarietako dagokiena. Horrela ezagutzen dugu mota bereko gauzen esentzia.

76. **Ezagutzaren iturri** garrantzitsuena ez da ulermena, esperientzia baizik. Esperientzian oinarrituz, adimen eragileak kontzeptu unibertsalak sortzen ditu.

### 2.3. IZANA: FISIKA ETA MUGIEZINEZKO JAINKOA

77. **Substantziak** izana berez dutenak dira, hau da, beraien izanari berez eusten dioten izakiak. Aristotelesek dioenez, beraien izanari berez eusten dioten izaki horiek gauza material guztiak dira.

78. **Fisikak** gauzen, hau da, substantzien, aldaketak aztertu behar ditu, besteak beste. Horretarako, aldaketen kausak edo zergatiak aztertu behar dira.

79. **Lau kausa** edo zergati mota ditu substantzia edo gauza baten aldaketak: materiala, formala, bultzatzailea eta helburuzkoa. Substantziaren aldaketa baten kausa materiala substantzia horren materia da. Aldaketaren kausa formala substantziaren esentzia edo forma da. Aldaketaren kausa bultzatzailea substantzia bultzatzen duena da. Eta azkenik, aldaketaren kausa helburuzkoa substantziaren helburua da. Adibidez: gezi baten mugimendua edo lekualdaketaren kausa materiala, geziaren egur arina eta gogorra da; kausa formala geziaren mehetasuna da; kausa bultzatzailea arkuak da eta horrek sortzen dituen airearen zurrunbiloak; helburuzko kausa ehizatu nahi den usoa da.

80. **Materiaz eta formaz** osatuta dago substantzia edo gauza bakoitza. Teoria horri *hilemorfismoa* esaten zaio (hile = materia, morfe = forma). Forma Platonen ideia bezalakoa da, hau da, materia gabeko ezaugarrien bilduma; baina gauzan bertan kokatua. Substantzia bakoitzaren materia, Platonen materia soil baina egituratuago dagoen materia bat da; adibidez: ura, sua, egurra, lurra...

81. **Formak** bi mailatako ezaugarriak ditu: esentzialak eta akzidentalak. Ezaugarri esentzialak beharrezkoak direnak dira, eta bat aldatzen bada, substantziak bere izaera aldatzen du. Ezaugarri akzidentalak ez-beharrezkoak direnak dira, eta aldatzen badira substantziak ez du bere izaera galtzen. Adibidez, gizakia animalia hiztuna (arrazionala) da. Hitz egiteko ahalmena galtzen badu gizaki izateari uzten dio; beraz, hiztun izatearena ezaugarri esentziala da. Baina ilea zuritzeak ez dio gizakiari izaera aldatzen; beraz, ile zuritasuna ezaugarri akzidentala da.

82. **Materia** mota bi daude: lehena eta bigarrena. Materia lehena, Platonen materia soil bezalakoa da, baina ez dugu egoera soil horretan inon aurkitzen. Bigarren materia, oinarrizko forma edo nolakotasun bat hartu duen materia lehena da; adibidez: harria, egurra, burdina, haragia, eta abar.

83. **Substantzia era** bi daude: egikerazkoa eta ahalezkoa. Egikerazko substantzia honako hau da: substantzia bera orain duen formarekin. Ahalezko substantzia, berriz, hau da: substantzia bera har dezakeen formarekin. Adibidez, zuhaitz baten hazia, egikerazko substantzia den heinean, hazi txiki hori da; baina hazi horrek zuhaitz bihurtzeko ahalmena du, eta horregatik, ahalezko zuhaitz bat da era berean. Gainera, zuhaitza bera egikerazko zuhaitza da, eta ahalezko fruituak ere bada.

84. **Aldaketa** hau da: ahalezkoa dena egikerazko bihurtzea. Adibidez, hazian dagoen ahalezko zuhaitza egikerazko zuhaitz delako hori bihurtzen da. Bihurketa hori aipatutako lau kausengatik gertatzen da.

85. **Etengabeko eragiketa** da aldaketen oinarritzko legea. Lege horrek dioenez, zerbait higitzen baldin bada, beste zerbaitek etengabe eragiten duelako da. Hau da, kausak edo zergatiak etenik gabe ari dira beti lanean. Kausa geratzen bada, aldaketa ere bai. Adibidez, hasieran, geziaren bultzatzailea arku da; baina gezia arkutik urruti dagoenean, arkuak sorturiko airearen zurrumbilo batzuek bultzatzen dute gezia, eta zurrumbilo horiek dira bultzatzaileak.

86. **Higitzaileen katea** ezin da infinitua izan. Etengabeko eragiketaren ondorioz, zerbait mugitzen bada, beste zerbaitek eragiten duelako da; eta beste horren aldaketa beste zerbaitek eragiten du; eta... Noraino jarrai dezakegu horrela? Higitzaileen katea ezin da infinitua izan, amaitu egin behar da, bestela aldaketa ez bailitzateke inoiz helduko infinituan legokeen eragiletik honaino. Beraz, beharrezkoa da lehenengo higitzaile edo kausa bat egotea.

87. **Lehenengo higitzailea** beste aldaketa guztien higitzaile edo kausa izango da. Eta gainera, beharrezkoa da lehenengo higitzaile hori ez aldatzea. Zergatik da beharrezkoa ez aldatzea? Aldatzekotan, etengabeko eragiketaren legeari jarraituz, besteren batek aldatuko lukeelako, eta orduan ez litzatekeelako lehena izango.

88. **Jainkoa** da higitzen ez den lehenengo higitzaile hori; baina ez gizaki-ezaugarriak dituen jainko bat. Nola higituko lituzke Jainko horrek unibertso osoan higitzen diren gauzak? Bi erataria higi ditzake: bultzatuz edo erakarrit. Jainkoa bultzatzaile bada, mugatua den unibertsoaren azala, izar tinkoen esfera hain zuzen, kanpotik ukitzen egon beharko du. Helburu bada, berriz, maitasun erakarle bat sortuko du besteengan, baina berak maitatu gabe. Zergatik maitatu gabe? Maitatuko balu, mugitu egingo litzatekeelako; eta bera ez da mugitzen.

## 2.4. GIZAKIA: IRRIKAK ETA BERTUTEAK

89. **Giza ekintza** motak edo teknikak mailakaturik daude. Teknika bakoitzak goragoko beste teknika batentzat egiten du lan. Adibidez: larruaren lanketa zaldietan ibiltzeko da, eta hori gerrak irabazteko, eta hori politikarako da. Orduan, gizakiaren azken helburua zein den jakin behar dugu. Eta guztiek onartzen dute azkeneko helburu hori zoriontasuna dela. Zoriontasuna ekintzen helburuen mailaketaren gailurrean dago, Platonen ongia ideien mailaketaren gailurrean zegoen bezala.

90. **Zoriontasuna** nolakoa den guztiz ezagutzea ezinezkoa da. Baina haren ezaugarri batzuk ager daitezke. Zoriontsu izateko gauza batzuk behar dira: gorputzaren ondasunak,

hala nola osasuna eta neurriko plazera; gizarte-ondasunak, hala nola, aberastasunak, ospea eta boterea; bestelako batzuk, hala nola ezkondua egotea, seme-alabak edukitzea, eta abar. Beraz, zoriontasuna lortzeko gizakiaren ahalmenetatik kanpo egon daitezkeen gauza batzuk behar ditugu. Baina hori ikusita, ez dugu etsi behar, bizitzari ausardiaz aurre egin baizik. Gainera, eta hau da garrantzitsuena, zoriontasuna ez da zoriaren ondorio; bertuteak ikastearen eta praktikatzearen ondorio da.

91. **Bertuteak** eskuratu behar ditugu, bizitzan arrakasta edukitzeko eta zoriontasuna lortzeko. Bertutea gauzak zuzen egiteko ohitura da. Ohitura hori bi bizioren arteko erdibidea da. Bizio bat gehiegikeria da, eta bestea gutxikeria. Adibidez, ausardia koldarkeriaren eta arrisku-tsuegiaren denaren artekoa da. Baina ezin dira bertuteak esperientziatik at aztertu eta definitu. Horregatik, bertutetsu diruditen gizaki zuhurren ohituren deskribapenak egin behar ditugu.

92. **Gogoak** bertutearen ohitura lortu behar du. Eta lortze hori ez da askotan gertatzen, irrikak tartekatu daitezkeelako ezagutzaren eta ekintzaren artean. Pentsaera hori Sokratesen intelektualismo moralaren aurkakoa da. Intelektualismoak dioenez, «izan zaitez jakintsu, eta ona izango zara»; hau da, ona zer den ezagutzea nahikoa da ona izateko. Baina, ona izateko, jakintza baino gehiago behar da, gogo indartsu bat behar da.

93. **Zuhurtzia** da oinarritzko bertutea; beste bertute guztiak elkartzen dituena. Gizaki zuhurrak ez du nolanahi jokatzeko, ezta arauetara besterik gabe jarraituz ere. Aitzitik, egoera zehatz bakoitzean ona eta txarra erabakitzen eta bereizten ditu, eta horrela ekintza praktikoak zuzentzen ditu.

## 2.5. GIZARTEA: AGINTZEKO ERA ZUZENEN ANIZTASUNA

94. **Animalia politikoa** da gizakia; bizirik irauteko gizartean bizitzea derrigorrezkoa zaiolako, eta baita ere perfekzioa ongi antolaturiko gizartean bakarrik lor dezakeelako. Gizakiak lehendabizi familia sortzen du, eta familiak elkartzean gizarte politikoa sortzen du.

95. **Lege zuzenak** dituen hiri batean bizi behar du gizakiak zoriontsu izateko. Dena den, pertsona batentzat eta hiriarentzat ongia gauza bera bada ere, hiria ongia lortzea handiagoa eta beteagoa da gizabanakoaren ongia lortzea baino, hirian gizabanako asko dardelako.

96. **Hezkuntzak** morala irakatsi behar du. Bi arrazoi daude horretarako: 1) zoriontsu izateko bertuteak behar direnez, estatu onena bere hiritarrei, hezkuntzaren bitartez, bertuteak irakasten diena da; 2) moralitatea da hiri-estatuaren oinarria, hau da, batasuna eta antolaketa mantentzeko bidea. Horregatik, haurrak eta gazteak bertutezko ohituretan hezi behar dira. Baina ez dira haur eta gazte guztiak hezi behar: esklaboek, eskulangileek eta merkatariek ez dute bizitza bertutetsurako aukerarik, lana egin behar dutelako.

97. **Gobernatzeko era** zuzenak eta okerrak daude. Zuzenak monarkia, aristokrazia eta demokrazia dira. Egoera bakoitzean ikusi behar da hiru horietako egokiena zein den. Baina gobernatzeko era zuzenak usteldu egin daitezke: monarkia usteltzen denean, tirania bihurtzen da; aristokrazia usteltzen denean, oligarkia bihurtzen da; demokrazia usteltzen denean, demagogia bihurtzen da.

98. **Monarkia** bakar baten gobernu da. Errege zuhurak orokorregia den legeak baino hobe erabaki eta epaitu dezake, kasu partikularrak aztertuz. Baina aginduetan irrikek eragiten dutenean, erregetza usteldu eta tirania bihurtzen da.

99. **Aristokrazia** gutxi batzuen gobernu da. Usteltzen bada oligarkia bihurtzen da.

100. **Demokrazia** herriaren gobernu da. Baina herria hezita ez badago, demokrazia usteldu eta demagogia bihurtzen da, sasiegi jarraitzen baitaie.

101. **Gizarte-klase** batzuk daude: esklaboak eta libreak, aberatsak eta behartsuak. Esklaboek ez dute askatasunik. Eskulangileak eta merkatariak libreak dira, baina ez dute eskubide guztiak zertan eduki. Hiritarrak bakarrik dira libre eta eskubide guztien jabe. Klaseak egotea naturala da.

*Agustin Hiponakoa*

**3**



### 3.1. GARAIA: ERROMATAR INPERIOKO ESKOLA ANIZTASUNA

102. **Erromatar Inperioko** Kartago probintziakoa zen, egungo Tunezekoa hain zuzen, Hiponako Agustin (354-430). III. mendean hasitako Erromatar Inperioaren gainbehera bizi izan zuen Agustinek.

103. **Lau filosofia-eskola** dira nagusi Erromatar Inperioan eta Agustinen garaian: platonismoa, aristotelismoa, estoizismoa eta epikureismoa. Laurak datoz Greziatik, erromatarrek Greziako kultura kopiatu eta zabaldu baitzuten.

104. **Neoplatonismoaren** pentsalari ezagunenak Filon eta Plotino dira. Biek diotenez, Platonek mundu ulergarrian kokatzen zituen ideiak Jainkoaren ideiak dira. Baina Filon krea- zionista da eta Plotino emanatista.

105. **Filonen kreazionismoaren** arabera, unibertsoa Jainkoaren sorkari mendekoa da. Filon judua zen (K.a. 25 — K.o. 50). Hark zioenez, errealitate gorena Moisesen Jainkoa da, eta platoniar ongiarekin berdintzen da. Jainkoarengandik Logosa sortzen da (Arrazoi, Pentsamendua, Hitz), eta hori Platonek mundu ulergarrian kokatu zituen ideiekin berdintzen da. Gero, Jainkoak mundua egiten du Logosaren arabera, platoniar Demiurgoak gauzak ideien arabera egiten zituen bezala. Jainkoak berez du izaera, beharrezkoa da, baina beste izakiak ez-beharrezkoak dira; hau da, Jainkoak nahi izan duelako sortu dira, eta hark sortzea nahi izan ez balu, ez ziratekeen izango. Beraz, unibertsoa ez da beharrezkoa, Jainkoaren ahalezko krea- zio bat baizik.

106. **Plotinoren emanatismoaren** arabera, unibertsoa Jainkoaren zabalpen jainkozko bat da. Plotinok (205-270) honako hau dio: Izaki oren gainetik, ezagutezina den Bata dago. Batarengandik edo printzipio goretetik Pentsamendua sortzen da (Logos, Nous). Gero, Logos horretatik munduaren arima sortzen da. Eta jarraian, jaitsiera edo degradazio prozesu batean, gauza materialak sortzen dira. Hau da, gauzak jarraian sortzen dira goreneko printzipiotik. Beraz, gauzak printzipioa bezain beharrezkoak dira, nahiz eta handik sortuak izan. Emanatismoak panteismoa dakar eta, horren arabera, jainkotasuna osotasunean dago. Grekeraz, pan = osotasuna, teos = jainko; panteismoa = osotasuna jainko.

107. **Aristotelismoaren** arabera, Etikak zorientasuna du helburu. Eta zorientasuna egiaren kontenplazioaren bitartez lor daiteke. Baina zorientasunerako bidean onargarria da atsegin sentsualez neurritz gozatzea.

108. **Epikureismoa** Epikurok sortu zuen. Epikurok (341-270) «Lorategi» izeneko eskola ireki zuen Atenasen. «Lorategi»an ez zuten gizonezko libreek bakarrik parte hartzen, Platonen Akademian eta Aristotelesen Lizeoan ohikoa zen bezala, baizik eta emakumezkoek eta esklaboek ere bai. Epikurok honako hau zioen: Heriotza ondoren ez dago ezer. Gu hemen gaudenean ez dago heriotzarik, eta heriotza dagoenean ez gaude gu. Horregatik, ez diogu heriotzari beldurrik eduki behar. Bestalde, zorientasuna lortzeko, lasaitasuna, sinpletasuna eta ondo aukeratutako atseginak behar dira; adiskidetasunaren atsegina adibidez eta bereziki.

109. **Estoizismoa** Zenon-ek (336-264) sortu zuen. Zenonek honako hau dio: dena determinatuta dago, eta zorientsu izateko, hau egin behar da: patua onartu eta ikaragaitz izan.

Zoriontasuna ez da plazerretan oinarritzen, bertuteak garatzean baizik. Bertute garrantzitsuenak hauek dira: buruaskitasuna, autokontrola, kanpoko ondasunen irriketatik aske izatea, adorea eta zorigaitzen aurreko ikaragaiztasuna.

110. **Kristautasunerako** landu eta moldatu zituen Agustinek Erromatar Inperioko lau filosofia-eskola nagusiak, aipaturiko horiek hain zuzen ere: platonismoa, aristotelismoa, epikureismoa eta estoizismoa. Epikureismoa baztertu egin zuen, atea eta lizuna iruditzen zitzaiolako. Neoplatonismoa eta estoizismoa bereganatu zituen gehienbat, eta aristotelismoaren punturen bat ere bai. Aldi berean, kristautasunaren barneko heresiak —sinesmen okerrak— baztertu zituen.

### 3.2. GIZAKIA: JAINKOARENGAN SINESTEAREN BEHARRA

111. **Gizakia** Jainkoak sortu zuen. Arima hilezkorrez eta gorputz hilkorrez osatua dago, Platonek zioen moduan. Gizakia librea da; hau da, ongiaren eta gaizkiaren artean aukeratzeko ahalmena du. Baina oker batengatik, gizakiak gaizkia aukeratu zuen, Jainkoaren aurkako jatorrizko bekatua eginez. Ordutik, zoriontasuna ekarriko zion ongia egiteko askatasuna galdu zuen, eta gaizkia besterik ezin dezake egin. Baina, Jainkoaren graziari esker, ongiaren ezagutza eta ongia egiteko ahalmena eskura ditzake. Eta ondorioz zoriontsua izango da.

112. **Ongiari** buruzko Agustinen filosofia honako hau esatera dator: zoriontasuna da ongia, Aristotelesek dioen moduan. Baina, gizakiak ezin du zoriontasuna bere kabuz lortu; Jainkoaren graziari esker lor dezake bakarrik. Bestalde, munduan gaizkia baldin badago, gizakiaren erruz da.

113. **Zoriontasuna** da gizakiaren helburu nagusia. Helburu hori ongia eginez lortzen da. Baina ongia egiteko, ezagutu egin behar da lehendabizi; bihotza lasaituko duen egia aurkitu behar da. Eta ezagutza hori lortzeko Jainkoaren laguntza behar da. Egiaren bilaketa bide espiritual bat da. Azkenean, zoriontsu izateko, Jainkoarengan sinetsi eta Jainkoari jarraitu behar zaio, Jainkoarengan sinesten ez duten jakintsuak zoriontsu ez direlako, eta mundu honetako ontasun guztiak galkorrak direlako.

114. **Manikeismoak** dioenez, ahalmen bereko bi jainko daude: ona eta txarra. Kristau batzuek manikeismoa onartu zuten. Kristau horiek galdera honi erantzun nahi zioten: zergatik onartzen du Jainko on batek gaizkia izatea? Ezinezkoa litzateke jainko on ahalguztidunak gaizkia izatea onartzea, eta horregatik, gaizkia izateko beste jainko bat izan behar da, jainko gaiztoa hain zuzen ere, eta jainko hori jainko onaren indar berekoa izango da. Horrela, kristau haiek manikeismoa onartu zuten. Ondorioz, gizakiak gaizkia egiten badu, jainko gaizkileari jarraitzen diolako izango da. Baina Agustinek dioenez, gaizkiaren sorburua ez dago jainko gaizkilearengan, gizakiaren askatasunean baizik. Jainkoak aske egin gintuen, eta askeak izan ginelako daukagu orain gaizkia egiteko ahalmena, jatorrizko bekatua egitean lehengo aldiz erabili genuena.

115. **Pelagianismoak** dioenez, ongia ez da gizakiaren borondatek harantzago dagoen zerbait. Baina Agustinek dioenez, jatorrizko bekatuaren ondoren, gizakiak ezin du bere kabuz ongia egin, eta Jainkoaren grazia behar du horretarako.

116. **Sokratesen intelektualismo moralak** zioenez, «izan zaitez jakintsu eta ona izango zara». Agustin bat dator horrekin: ongia lortzeko jakintza behar da. Baina Agustinek dioenez, ideia gorenak ezagutzeko ez da nahikoa gizakiaren ahalmena, Jainkoaren grazia edo laguntza ere behar da.

### 3.3. EZAGUTZA: JAINKOARENGANDIK DATORREN ARGIA

117. **Egia aldaezinak eta unibertsalak** (guztiak onartzen dituztenak) aurkitzen ditugu geure barnean. Baina geure izaera aldakorra da (zahartu eta hil egiten gara). Orduan, egia aldaezin horiek geu baino perfektuagoak dira, geu aldakorrak eta ideia horiek betierekoak direlako. Horregatik, ezin ditugu egiak geure kabuz ezagutu, eta Jainkozko argitzapena behar dugu horretarako.

118. **Jainkoaren argitzapena** Jainkoari buruzko fedean gauzatzen da. Hasiera batean, arrazoiak gizakiari laguntzen dio fedea lortzen. Ondoren, fedea arrazoiak gidatu eta argitu egiten du. Fedearen eta arrazoiaren artean ez dago mugarik, biak batera aritzen dira elkarlanean egia lortzeko. Agustinen jarrera hori fideismoaren, agnostizismoaren, deismoaren eta eszeptizismoaren aurkakoa da. Fideismoa eta deismoa kristau batzuek onartu egiten dute, eta heresia —sinesmen okerrak— direla esaten du Agustinek.

119. **Fideismoaren** arabera, sinetsi egiten dugu Jainkoa badela, nahiz eta sinesteko arrazoirik ez eduki. Arrazoiak ezin du Jainkoa denik frogatu, eta, hala ere, sinetsi egiten dugu, fede hutsez nolabait. Baina Agustinek dioenez, arrazoiak eta unibertsoari buruzko ezagutzak Jainkoarengan sinesten laguntzen digute, eta ondorioz ez gaude fede hutsean.

120. **Agnostizismoaren** arabera, Jainkoa denik ezin da arrazoiaren bidez frogatu, eta ondorioz, hobe dugu Jainkoaz ahaztea. Baina Agustinek dioenez, arrazoiak Jainkoarengan sinesten laguntzen digu.

121. **Deismoaren** arabera, posible da Jainkoa arrazoiaren bitartez ezagutzea; baina Jainko hori ez da pertsona-itxura duen erlijioetako bezalako jainko bat, baizik eta unibertsoaren funtzionamendua azaltzeko, geure arrazoiak egotea eskatzen duen izaki bat. Aldiz, Agustinek dioenez, arrazoiak ez da nahikoa Jainkoaren izaera ezagutzeko, fedea ere beharrezkoa da horretarako.

122. **Eszeptizismoaren** arabera, egia ezagutezina da, eta norbaitek ezagutuko balu, ezingo luke esan. Agustinek dioenez, eszeptizismo absolutua ezinezkoa da; egia ezagutezina dela dioen baieztapen hori egiazat hartzea kontraesana delako. Bada, erratzen banaiz, orduan banaiz; eta ziur nago horretaz; eta zerbaitez ziur banago, badaukat egiaren bat; beraz, eszeptizismoa oker dago.

### 3.4. IZANA: JAINKOAK SORTURIKO MUNDUA

123. **Jainkoaren existentzia** ezin da guztiz frogatu, baina ez da fede itsu baten arazoa ere. Jainkoa existitzen dela «jakiteko» bi bide daude: gnoseologikoa —ezagutzaren teoriar oinarritua— eta ontologikoa —unibertsoaren izaeran oinarritua—.

124. **Bide gnoseologikoan** honako hau esaten da: betiereko ideia unibertsalak (mundu guztiak dituenak) ditugu. Ezin izan ditut nik sortu, ni, betierekoa izan beharrean, aldakorra eta hilkorra naizelako. Betierekotasuna duen eta pertsona guztietara heltzen den zerbaitek sortu behar izan ditu. Beraz, bada betierekoa den, pertsona guztietara heltzen den eta ideien sortzailea den izaki bat: Jainkoa.

125. **Bide ontologikoaren** arabera, unibertsoak ezin dio gizakiari zorientasuna eman; baina unibertsoaren edertasunak bere gainetik dagoen eta beharrezkoa den izaki batenganantz, hots, Jainkoarenganantz, seinalatzen du.

126. **Unibertsoaren sortzailea** Jainkoa da. Jainkoaren kreazio horrek hiru ezaugarri ditu: ezerezetik egin da, borondatezkoa da eta bat-batekoa da. *Ezerezetik* egin da; hau da, unibertsoa sortzeko erabili den materia ez da unibertsoa sortu aurretik izan, eta izaki guztien ereduak ez dira Jainkoarengandik aparte dauden ideia batzuk, baizik eta Jainkoaren pentsamenduak. Munduaren sorrera ez da nahitaezkoa, baizik eta Jainkoaren borondatezko ekin-tza libre bat.

127. **Unibertsoaren sorrera.** Unibertsoaren sorkuntza edo kreazioa bat-batekoa da, Biblian agertzen den moduan. Dena den, Biblian sei egun irauten duen kreazioa alegoria bat da, eta ez da pentsatu behar zehatz-mehatz horrela izan zenik. Kreazioa bat-batekoa da; hala ere, denboran zehar hedatu ere egiten da. Horregatik hain zuzen ere, banako izakiak elkarren segidan jaiotzen edo agertzen dira, Jainkoak kosmosean ezarritako ordenaren arabera.

### 3.5. GIZARTEA: JAINKOAREN HIRIA

128. **Politika** izan zen Agustinen gai arrakastatsuen. Haren pentsaera politikoa berezia izan zen kristautasunaren barnean, eta 1000 urte iraun zuen pentsaera nagusia zela. Gaur egun askok sinesten dute, hala nola kristau demokraziaren kideek.

129. **Alariko**, bere osteekin, 410. urtean Erroman sartu zen, eta hiria suntsitu zuen. Gertaera horrek krisi handia ekarri zuen Erromatar Inperiora. Jentilek kristauei leporatu zieten gertatutakoa. Jentilek ziotenez, kristauek aldarrikatutako biolentziarik ezaren erruz, Erroma bere burua defendatzeko soldadu gabe gelditu omen zen. Agustinek, «*Jainkoaren Hiria*» idatziko du kristautasunaren aurkako eraso horiei aurre egiteko. Agustinek honako hau dio:

130. **Bi hiri** edo giza talde daude. Jainkoaren mesprezuraino heltzen den norbere buruarekiko maitasunak lurtar hiria eraiki zuen. Norberaren mesprezuraino heltzen den Jainkoarekiko maitasunak zerutar hiria eraiki zuen. Lurtar hiriak gizakien aintza bilatzen du. Zerutar hiriak Jainkoaren aintza bilatzen du gehienbat.

131. **Hiritarrak** lurtar hirikoak edo zerutar hirikoak izan daitezke. Hiritar lurtarrek botere-nahi lelo bati jarraitzen diote, eta beti daude aldamenekoak menderatu nahian. Hiritar zerutarrek elkarri laguntza eskaintzen diote, eta apaltasunez onartzen dituzte gizarteko diziplina eta eginbeharrak.

132. **Hirien nahasketa** bat dago. Hiri biak, lurtarra eta zerutarra, deabruarena eta Jainkoarena, bekatariena eta justuena, nahasturik daude gizartean. Ezin da munduko hiria

estatuarekin parekatu eta Jainkoarena Elizarekin. Eliztar bat munduaren hirikoa izango da, bere jokaera zuzena ez bada; eta alderantziz, estatuko politiko bat Jainkoaren hirikoa izan daiteke, Jainkoa gehiago maite badu bere burua baino.

133. **Gizadiaren historia** bi hiri edo talderen arteko borroka da, lurta hiriaren eta zerutar hiriaren arteko borroka hain zuzen ere. Gainera, historiak lerro zuzen bati jarraitzen dio, eta ez lerro biribil bati. Historiaren amaieran, argi eta garbi bereiziko dira hiri biak, gizaki bakoitza zein hirikoa den jakingo da, eta zerutar hiriak irabaziko du borrokan. Zerutar hiriaren garaipena ziurtatuta dago.

134. **Erromatar Inperioaren erorketaren zergatia** ez da kristauen bakezaletasuna, baizik eta paganismoaren miseria morala. Erromaren jatorrian anaia-hiltze bat dago: Romulok Remo hil zuen, Bibliako Kainek, lurta hiria sortzean, Abel hil zuen bezala. Erromatarren bertuteak itxurazkoak dira bakarrik, zeren eta bertuteak ezinezkoak baitira Kristau federik gabe. Inperioa eror daiteke, baina Inperioa erortzean kristautasuna ez da eroriko, paganoen miseriak eroriko dira bakarrik.

*Tomas Akinokoa*

**4**

#### 4.1. GARAIA: UNIBERTSITATEAREN SORRERA ERDI AROAN

135. **Kristautasunaren gorakada** zela eta, VI. mendean, Ekialdeko Erromatar Inperioko Justiniano Enperadoreak greziar eta erromatar jakituria klasikoetako eskolak (Akademia platonikoa, Lizeo aristotelikoa, Lorategi epikureoa...) itxi eta debekatu egin zituen. Geoztik, Europa osoan kultura bakarra kristaua izan zen.

136. **Monasterioak** eraiki zituen Elizak, jendearen sinesmena kristautasunera bideratzeko. VI. eta XII. mendeen artean monasterioak izan ziren Europako kulturagune bakarrak. Monjeek liburuak gorde eta kopiatzen zituzten, eskuz; eta gainera, ahozko hitzaldi edo sermoinen bitartez, sinesmenak zabaltzen zituzten nekazaritza-mundu hartan.

137. **Hiriak** XII. mendean hasi ziren sortzen Mendebaldeko Europan. Arotzen, perratzaileen, zapatarien eta horrelako lanbideen elkarrean bizilekuen inguruan sortzen ziren.

138. **Katedralak** eraiki zituen Elizak, hirietako jendearen sinesmena bideratzeko. Nekazari-jendearen sinesmena monasterioetatik bideratzen zen; eta hirietako jendearena katedraletatik. Katedralen aldamenen eskolak jarri zituen Elizak. Eskola horietan Elizak bere sinesmenak irakasten zituen, monasterioetako eskoletan egiten zuen moduan.

139. **Unibertsitateak** katedraletako eskoletako irakasle eta ikasleen elkarketan ondorioz sortu ziren, XIII. mendean. Garrantzitsuen Parisekoa izan zen (1200. urtea). Erromako Aita Santuaren babes eta kontrol pean zegoen. Irakasleek kristau sinesmena lantzen zuten.

140. **Gurutzadak** musulmanen aurkako eraso-kanpainak ziren. Aita Santuak bulztatu zituen, erregeei eta jaun feudalei esanez Jerusalemgo «Lur Santua» musulmanen agintaren mendetik askatu behar zutela. Horrela, guztiak Gurutzadetara bidaliz, Aita Santuak Europa osoko erregeen gain agindu nahi zuen (adibidez, Seigarren Gurutzada 1228an).

141. **Unibertsitateko irakasleek**, kristau eta musulmanen arteko, eta Aita Santuaren eta erregeen arteko borroken giro horretan egiten zuten lan. Haien helburua honako hau zen: kristau fedea arrazoiaren bitartez sinesgarriagoa bihurtzea, jentilek, eta musulmanek bereziki, errazago onar zezaten.

142. **Aristotelismoa bereganatzeko** lanari ekin zioten irakasle batzuek, aristotelismoak oso arrazionala zirudielako, eta hura bereganatuz, kristau sinesmenak musulmanentzat onargarriagoak izango zirela espero zutelako. Emaiza onena Tomas Akinokoak lortu zuen. Beraz, Tomasek Aristotelesen filosofia txertatu zuen kristautasunean, Agustinek Platonena txertatu zuen bezala. Eta Aristotelesek Platon kritikatu zuen bezala, Tomasek Agustin kritikatu zuen; baina biak dira kristauak (Tomas eta Agustin), eta bat datoz sinesmen askotan. Honako hau da Tomas Akinokoaren (1221-1274) pentsaera:

#### 4.2. EZAGUTZA: ARRAZOIA FEDEAREN ZERBITZUAN

143. **Ezagutzaren** arloan, arrazoia fedearen mende eta zerbitzura dago. Hori argitzeko hiru egia mota bereizten dira: arrazoiaren berezko egiak, fedearen berezko egiak, eta aldi berean arrazoizkoak eta fedezkoak diren egiak.

144. **Arrazoiaren berezko egiak** arrazoiak bakarrik ezagutzen dituenak dira. Baina arrazoiaren berezko egia horiek ezin dute fedearen aurka egon; eta hala baleude, oker leudeke. Arrazoiaren mendekotasuna fedearen aurka ezin egotean datza. Adibidez (hau ez zuen Tomasek ezagutu), mende batzuk beranduago, Unibertsoaren erdian Eguzkia zegoela, eta ez Lurra, zioen baieztapena, fedearen aurkakotzat hartu zuen Elizak, eta hortik okerra zela ondorioztatu zuen, ezinezkoa baitzen arrazoia fedearen aurka egotea.

145. **Fedearen berezko egiak** fedeak bakarrik ezagutzen dituenak dira. Arrazoiak ezin ditu fedearen baieztapen guztiak frogatu, arrazoia esperientzian oinarritzen delako, eta fedezko gertakizun batzuez esperientziarik ez dagoelako. Adibidez, arrazoiak ezin du jakin Jainkoa Hirutasun Santua denik —Aita, Semea eta Espiritu Santua—, ezta Jainkoa gizaki batengan haragitu zenik ere.

146. **Arrazoizko eta fedezko egiak** arrazoiak eta fedeak ezagutzen dituztenak dira. Adibidez, arrazoiak fedearen egia hauek froga ditzake: Jainkoa existitzen dela, bakarra dela eta bere sorkarieratik ondoriozta daitezkeen ezaugarriak dituela. Arrazoizko eta fedezko egien arloan, arrazoiaren lana fedearen egiak sinesgarriago bihurtzea da.

147. **Arrazoiaren ezagutza-bidea** Aristotelesekin azaldutakoa da. Ezagutza esperientzian hasten da. Adimen geldoak esperientzietako irudiak jasotzen ditu. Ondoren, adimen eragileak, abstrakzioa eginez, forma unibertsalak ateratzen ditu, banako substantzia (gauza) antzeko edo berdinetatik. Beraz, ezagutzea abstrakzioa egitea da; hau da, substantzia (gauza) banakoetatik banakoek batzan edo komunean duten forma unibertsala ateratzea.

148. **Forma unibertsalak** ez dira berez. Banako izakiak existitzen dira bakarrik, eta forma unibertsalak banako izaki horietan daude. Banakoetan egon aurretik, forma unibertsalak Jainkoaren adimenean daude, Jainkoaren sorkarien eredu gisa. Gainera, forma unibertsalak geure adimenean daude geuk banako substantziak ezagutzean (nominalistek forma unibertsalak kontzeptu besterik ez direla esaten dute, hau da, geure adimenetik kanpo ez daudela).

149. **Egia** honela definitzen da: adimenaren eduki bat egiazkoa izango da, eduki horrek edukian bertan ezagututako gauza egoki agertzen badu. Ezagutza eta ezagututakoaren arteko adostasuna da egia.

### 4.3. IZANA: SUBSTANTZIAREN HIRUGARREN OSAGAIA

150. **Substantziaren osagarriak** bi dira, Aristotelesen arabera: materia eta forma. Baina hirugarren osagarri bat ere badago: izatearen ekintza, Auverniako Guillermok zioen moduan (gaur, izatearen ekintza horri existentzia deituko genioke).

151. **Izatearen ekintza** substantziaren hirugarren osagarria da. Aristotelesekin zioenez, materiarekin nahasten denean gauzatzen da forma; baina, ez da horrela gertatzen. Izatearen ekintzarekin elkartzen denean gauzatzen da forma. Gauzatu baino lehen, forma Jainkoaren adimenean dago; eta substantzia batean gauzatzeko, Jainkoaren ekintza sortzailea behar da. Horrela, alde batetik materiadun esentziak egon daitezke, hala nola zaldi hori edo gizaki hori; eta bestaldetik, materia gabeko esentziak ere egon daitezke, hala nola aingeruak eta arima



hilezkorrak, izatearen ekintza badutelako. Gainera, Aristotelesen materia lehena ere Jainkoak sortu du.

152. **Jainkoaren existentzia** fedearen eta arrazoimenaren egia bat da; hau da, fedez eta arrazoiez froga daiteke. Jainkoa existitzen dela dioten arrazoizko froga batzuk daude: ontologikoak, kosmologikoak eta teologikoak, nagusiki.

153. **Anselmoren froga ontologikoak** dioenez, ezin dugu Jainkoa baino ezer perfektuagorik pentsatu; beraz, existentziaren ezaugarria eduki behar du, bestela ez zelako perfektua izango. Baina (Tomasek berak dioenez) argudio hori ez da onargarria, zentzumenetatik aparteko ideietan oinarritzen delako; hau da, Jainkoaren existentzia hori Jainkoari buruz daukagun ideiatik ondorioztatzen duelako. Ezagutza zentzumenetan hasten denez, zentzumen horietan oinarriturik frogatu behar da Jainkoaren existentzia, eta bost bide daude horretarako.

154. **Froga fisiko-teologikoari** dagokio Jainkoaren existentzia zentzumenetatik abiatuta frogatzeko Tomasen lehen bidea. Froga horrek hau dio: mugitzen den oro beste batek mugitzen du. Higitzaile hori beste batek mugitzen du; eta horrela, higitzaileen kate bat dago. Baina katea ezin da infinituraino luzatu, bestela mugimendua ez litzatekeelako infinitutik honaino helduko. Beraz, beharrezkoa da higituko ez den hasierako higitzaile bat egotea; eta hori Jainkoa da (ikusten denez, froga kosmologiko hori Aristotelesen Fisikan eta Metafisikan oinarritzen da). Jainkoaren existentzia frogatzeko Tomasek erabiltzen dituen bigarren, laugarren eta bosgarren bideak, froga fisiko-teologiko berberaren beste azalpen edo bertsio batzuk dira; laurak hitz egiten dute aldatzearen edo mugitzearen zergatiei buruz.

155. **Froga kosmologikoari** dagokio Jainkoaren existentzia zentzumenetatik abiatuta frogatzeko Tomasen hirugarren bidea. Froga horrek hau dio: Gauza guztiak ezbeharrezkoak direla ikusten dugu, jaiotzen, aldatzen, apurtzen eta hiltzen direla ikusten dugulako. Bestalde, edozerk existitzeko denbora tarte jakin bat du. Beraz, ezer ez zeneko garai bat izan zen: hutsaren garaia. Baina hutsetik ezin da ezer sortu, eta orain zerbait dago, unibertso osoa. Beraz, izateen artean beharrezkoa izango den izakiren bat egotea beharrezkoa da, eta beharrezko izaki hori beste guztien izatearen kausa izango da. Beharrezkoa den eta beste izaki guztiak izatearen kausa den izaki hori mundu guztiak Jainkoa deitzen duena da.

#### 4.4. GIZAKIA: JOERA NATURALAK

156. **Gizakia** existentziaz eta gizaki-naturaz osatuta dago. Gizaki-natura arimaz eta gorputzaz osatuta dago.

157. **Arima** gorputzaren forma esentziala zen Aristotelesentzat; eta gorputza hiltzen denean, arimak ezin du substantziarik gabe iraun. Tomasentzat, berriz, arima forma soila da, baina ez gorputzaren forma. Gainera arima bakarra da, eta ez anitza. Eta azkenik, arima hilezina da.

158. **Gorputzaren berpiztea** gertatuko da. Gorputza hil ondoren, banako arimak bizirik irauten du. Ondorioz, gorputzen berpizkundearen egunean arima bakoitza bere gorputza izan zenarekin elkartuko da berriro. Orduan, Bibliak dioen moduan, onak sarituak izan-

go dira, eta gaiztoak zigortuak izango dira; zeren eta gizakiok ere jainkotiar probidentziaren mende baikaude (estoizismoaren patua).

159. **Jainkotiar probidentzia** honako hau da: unibertso guztia zuzentzen duen agintea. Jainkoak, lehen higitzaile gisa, goreneko helburura zuzentzen ditu gauza guztiak; Jainkoa bera den on gorenera, hain zuzen ere.

160. **Askatasuna** dugu gizakiok, hala ere. Probidentziaren mende egoteak ez du esan nahi askeak ez garenik, zeren eta probidentziak ez baitu zehazten gauzak gertatu behar direnik bakarrik, baizik eta baita nola gertatuko diren ere. Eta hor, lehenbizi, beharrez gertatuko diren gauzen beharrezko zergatiak antolatzen ditu; eta gero, ez-beharrez gertatuko diren gauzen ez-beharrezko zergatiak. Horrela, gizakiaren askatasuna, ezbeharrezko zergati baten erara eragiten duena, jainkotiar probidentziaren parte bat da.

161. **Zoriontasuna** da gizakion jokaera guztien helburua. Zoriontasuna Jainkoa ikustean lortzen da, eta gizakiak ezin du hori bere ahalmen soilez lortu. Horretarako, beharrezkoa da Jainkoak gizakia gidatzea, eta azkenean, Jainkoak erabakiko du zeinek ikusten duten bera (horrela zioen Agustinek, eta onartzen du Tomasek). Baina Jainkoaren erabakiak ez du gizakiaren askatasuna birrintzen. Jainkoak gauzen jokaerak gauzen beraien izaeren arabera gidatzen ditu; eta horrela, zirikatu egiten du gizakiaren askatasuna, Jainkoarengana joan dadin, gizakiak berak nahi badu.

162. **Gaiztakeriak** baldin badaude gizakien artean, gizakiaren askatasunagatik da; hau da, askatasuna erabiltzerakoan, gizakiak gaiztakeria egitea aukeratu duelako, Jainkoak agindutako ongia egitea aukeratu ordez. Dena den, gizakien arteko joera naturalena ongia egitekoa da.

163. **Joera natural** batzuk daude sustraiturik gizakiaren baitan; honako hauek hain zuzen ere: existitzen jarraitzeko joerari edo kontserbazio-senari esker gorputzaren osasuna zaintzen dugu; ugaltzeko joerari esker sexualitateaz eta seme-alaben zainketaz arduratzen gara; unibertsoari eta moralari buruzko egiak ezagutzeko joera dugu; azkenik, gizartean bizitzeko joera dugu. Joera natural horiek aztertuz, lege moralak zein den ondoriozta dezakegu, arrazoiaren bitartez.

164. **Lege moralak** ondorengo ezaugarriak ditu: Jainkoak eman zuen, betierekoa da, joera naturala gauzatuta dago, eta Bibliako Moisesen hamar aginduetan zehazten da. Agindu horiek betetzeko, ezagutzea ez da nahikoa, gainera bertuteak eduki behar dira; hau da, ongi jokatzearen ohiturak.

#### 4.5. GIZARTEA: LEGE NATURALA ETA AITA SANTUAREN ERREGETZA

165. **Politika** giza taldeen antolaketaren eta agintaritzaren azterketa da (grekoz, polis = hiria, tika = ikerketa edo teknika, politika = hiriari buruzko ikerketa edo hiria zuzentzeko teknika). Politikan justiziaren eta gobernuaren arazoak aztertzen dira, besteak beste.

166. **Justizia** zer den argitzeko bi lege mota bereizi behar dira: naturalak eta gizakiok jarritakoak. Lege naturala Jainkoak ezarri duena da; eta gizakiok hori betetzeko joera natural

bat daukagu, joera horrek ongia baitakar. Gainera, giza legeak ere badaude; horiek zehatzagoak dira eta eguneroko arazoei buruzkoak. Orduan, giza legeek jainkozko lege naturala bete behar dute; bestela ez dira lege justuak izango. Hau da, gizakiek asmaturiko legeek Jainkoak ezarritako lege naturala betetzen dutenean gertatzen da justizia.

167. **Giza legeen jatorria** herrian dago. Legearen helburua elkarrekiko ongizatea da. Baina norena da helburu hori? Guztiona da. Edozein helburu lortzeko ardura helburua duenarena da. Era berean, elkarrekiko ongizatea lortzea guztion eginbeharra da; edo horien ordezkoen, talde osoa zaintzeaz arduratzen direnena, alegia.

168. **Gobernu mota onena** monarkia da, hala ere; monarkia baita estatuaren ordena eta batasuna hoberen gordetzen duena, eta Jainko bakarraren gobernuaren antza handiena duena.

169. **Eliza** kristautasunaren antolamendu soziala da, eta estatua baino hobea da. Estatuak bertuteak irakats ditzake, baina ezin ditu gizakiak Jainkoarengana eramanez, nahiz eta hori izan azkeneko helburua. Helburu hori jainkozko gizaki batek lor dezake bakarrik, Jesukristok, alegia. Eta Jesukristok Aita Santuari eta Elizari eman zion aginte hori.

170. **Estatuen eta Elizaren arteko harremana** mendekotasunezkoa da. Beheko helburua goiko helburuaren zerbitzuan dagoen bezala, estatuak aginte erlijiosoaren mende edo zerbitzuan egon behar du, hau da, Jesukristoren zerbitzuan, eta Jesukristoren ordezkoa den Aita Santuaren mende. Beraz, mundu honetako erreinu edo estatuak Elizatik ikasi eta haren zerbitzuan egon behar dute, arrazoi fedearen zerbitzuan dagoen moduan. Elizak eskubidea du mundu honetako botereaz baliatzeko; hots, armadaz, administrazioaz, politikariez...

*Descartes*

**5**

## 5.1. GARAIA: ZIENTZIAREN ETA ELIZAREN ARTEKO LEHIA

171. **Elizaren gainbeheraren** garaia da Descartesena (1596-1650). Erdi Aroan nagusi zen Eliza, jakinduriaz eta agintez. Baina Berpizkundean ahuldu egin zen, errege, protestante eta zientzilarien aurka borrokatzearen ondorioz.

172. **Zientzia berriak** ezagutza baliagarriak lortu zituen. Fisikari esker, jaurtigaien erortze-lekua kalkulatzeko lortu zen, eta horrela kanoien punteria hobetzea lortu zen. Astronomiari esker, itsasontzien aurkitze-lekua zehazkiago jakin zen, izarrak erreferentziatzat hartuz; eta ondorioz, itsasoan galtzeko arriskua gutxitu egin zen. Baina ezagutza berriak Elizaren sinesmenen aurkakoak ziren.

173. **Unibertsoaren erdian**, zer dago? Aristotelesi eta Ptolomeori jarraituz, Elizak geozentrismoa defendatzen zuen: unibertso erdian Lurra dagoela, hain zuzen ere. Baina Kopernikok heliozentrismoa frogatu zuen, hau da, unibertso erdian Eguzkia dagoela (1543). Kopernikoren ondorioz, gizakia, Jainkoaren sorkari maitatuena omen zena, unibertsoaren erdigunean «egotetik» unibertsoaren edozein bazterretan dagoela ikustera pasatu zen. Galileo heliozentrismoarekin bat zetorren, eta Elizak kartzelaratu egin zuen horregatik.

174. **Unibertsoaren tamaina**, zein da? Aristotelesi jarraituz, Elizak unibertsoa mugatua dela zioen. Baina Giordano Bruno filosofoak unibertsoa infinitua dela, zentrorik ez duela eta bizia astro askotan aurki daitekeela zioen. Horrela, unibertso gaineko gizakiaren nagusitasunaren ideia (antropozentrismoa) birrindu zuen. Horregatik, Elizako Inkisizioak bizirik erre zuen Giordano.

175. **Unibertsoaren hizkuntza**, zein da? Aristotelesek zioenez, ezinezkoa da fisika matematikaren bitartez aztertzea; gauza fisikoak aldakorak direlako, matematikaren zenbakiak izaki aldaezinezkoak diren bitartean. Baina Kepler-ek planeten higidurak lege matematikoen arabera azaldu zituen (1609). Galileok penduluaren lege matematikoa aurkitu zuen, eta unibertsoaren liburua matematikaren hizkuntzan idatzita dagoela zioen. Descartsek Geometria Analitikoa sortu zuen, eta horrek fisika aztertzeke balio du.

176. **Mugimenduen eragilea**, zein da? Aristotelesi jarraituz, Elizak zioenez, Jainkoak etengabe eragiten dio unibertsoari, eta horregatik mugitzen dira gauzak. Baina Kepler-ek planeten higidurak lege matematiko tinkoen arabera azaldu zituen (1609). Eta Galileok (1638) inertzia-legea susmatu zuen. Horien arabera, higidurak ez du bultzatzaile iraunkorrik behar. Descartsek ere hori susmatu zuen. Ondorioz, unibertsoak Jainkoaren laguntzarik gabe bere kabuz dabilen makina bat dirudi. Elizak Descartes jazarri zuen, Jainkoak, sorrera ondoren, unibertsoaren garapenean eragiten ez duela esateagatik.

177. **Aurkako bi hipotesi** daudenean, nola erabaki hipotesi zuzena zein den? Elizak tradizioari jarraitu behar zaiola zioen. Horren orde, Galileok metodo zientifikoa ezarri zuen, naturaren behaketaren bitartez naturaren legeak asmatzeko. Baina elizgizonek ez zuten Galileoren teleskopioaren bitartez begiratzea nahi, behaketaren ondorioak Aristotelesen aurkakoak izan zitezkeelako.

## 5.2. EZAGUTZA: PENTSATZEN DUT, BERAZ...

178. **Eszeptizismoa** (Montaigne) egia ezagutu ezin dela dioen sinesmena da. Eszeptizismo hori honako hauek zabaldu zuten gizartean: katoliko eta protestanteen arteko borrokek, eta Aristotelismoaren eta zientzia berriaren arteko borrokek, hain zuzen ere. Descartesek eszeptizismoa gainditu nahi du, egia ukazina aurkituz. Descartesek honako hau dio:

179. **Zalantza metodikoa** da eszeptizismoa gainditzeko bidea; hau da, ukazinezko egia aurkitzeko, guztia jarri behar da zalantzan. Horrela, zalantzan daudenez gero, sinesmen guztiak aztertu behar dira berriro, beraien artean egia aurkitzeko.

180. **Sentimenezko pertzepzioak** zalantzan jartzen dira; sentimenek sarritan iruzur egiten dutelako eta berriro egin dezaketelako; adibidez, askotan leku batean nagoela «ikus-ten» dut, baina gero amets bat izan dela ematen du. Beraz, gauzen existentzia eta une honetan hemen nagoela ere zalantzan dago.

181. **Aritmetika eta geometria** ere zalantzan jartzen dira; izan ere, ikerlari asko tronpatu baitira problema matematikoetan zenbait printzipio guztiz ziurtzat eta nabarizatut hartzeagatik. Eta matematikako egia aldaezinenak ere, triangelu bateko angeluen batura 180 gradu izatearena adibidez, zalantzazkoak dira; gerta baitaiteke izpiritu gaizkileren bat geure burua nahasten ibiltzea.

182. **Lehenengo egia** zalantza metodikoaren ondorioz agertzen da. Guzti-guztia jartzen da zalantzan, baina zalantzan jarri ezin den zerbait agertzen zaigu bat-batean: zalantza egiten dela, hain zuzen; pentsatzen dela, alegia. «Pentsatzen dut, beraz, banaiz», hauxe da ukazinezko lehenengo egia, eszeptikoek ere onartu beharko dutena. Baina kontuz, horrek ez du esan nahi gorputz bat dudarik edo hemen nagoenik; oraingoz dakidan bakarra hauxe da: pentsamendu soila naizela.

183. **Egia guztien eredia** «Pentsatzen dut, beraz, banaiz» dioen lehenengo egia horretan daukagu. Zerk bultzatzen gaitu lehenengo egia hori egiazat onartzera? Argi eta ondo bereizirik dagoela antzemateak, eta beste ezerk ez. Horregatik, argi eta ondo bereizirik ditugun ezagutzak egiazat onartuko ditugu. Baina zaila da horiek zeintzuk diren jakitea (ikus 200 eta 201 paragrafoak jakintza erabilgarriari buruz)

## 5.3. IZANA: NI, JAINKOA ETA MUNDUA

184. **«Ondorengo egiak»** lehenengo egiazatik ondorioztatu behar dira. Badaukat lehen egia: «Pentsatzen dut, beraz, banaiz». Baina nola jakin dezaket pentsatzen dudan guztia egiazkoa den? Lehenengo egiaren ondorengo egiak ateratzeko, lehendabizi Jainkoa badela frogatzen du Descartesek. Baina kontuz: Jainkoaren existentzia frogatzeko, ni pentsalariaren existentziatik abiatu behar dut, beste guztia zalantzan baitago. Hortik abiatuz, Jainkoaren existentzia frogatzeko, froga ontologikoa azaltzen du Descartesek.

185. **Jainkoaren existentziaren froga ontologikoa:** guztiz perfektua den izakia-ri buruzko ideia daukat, Jainkoaren ideia. Eta guztiz perfektua denari berez izatea dago-

kio; bestela ez litzatekeelako perfektua izango. Beraz, Jainkoa bada. Bestela esanda: Ni inperfektua naiz, zalantzak ditudalako. Baina Jainkoaren ideia daukat, izaki perfektuaren ideia hain zuzen ere. Perfektuaren ideia ezin da ni inperfektutik sortu, ezta hutsetik sortu ere. Beraz, Jainkoa bera da berari buruzko ideia nigan jarri duena; eta Jainkoa bada.

186. **Munduaren existentzia** frogatu egin daiteke, Jainkoaren existentzia oinarriztat hartuz; honela: Jainkoa guztiz ona da. Beraz, ez du baimenduko, arrazoizko pentsamendu argiak eta bereziak ditudanean, engainatua izan nadin. Eta munduaz gauza asko argi eta bereiziki pentsatzen ditudanez, pentsaturiko objektu horiek benetakoak dira.

187. **Hiru substantzia** edo gai bereizten dira errealitate osoan. Orain arteko arrazoiketabidean ikusi denez, honako hauek dira: lehenengo, ni pentsatzailea; bigarren, Jainkoa; eta hirugarren, munduko materia. Ni pentsatzailea mugatua eta izpirituzkoa da. Jainkoa mugagabea, perfektua eta izpirituzkoa da. Munduko materia hedatua da.

188. **Unibertso antolatua** honela gertatu da. Jainkoak materia nahastua sortu zuen. Gero naturaren legeak ezarri zizkion. Lege horiek betez, materia nahastua gaurko unibertso antolatua izatera heldu da, pixkanaka, eta ez bat-batean. Eta Jainkoak naturako legeak ezagutzeko ahalmena eman digu.

189. **Gorputz bizidunak**, eta giza gorputza ere, makinak dira, arnasketak, liseriketak eta odol-zirkulazioak, besteak beste, automatikoki funtzionatzen dutelako, gogamenak parte hartu gabe. Ondorioz, animaliek ez daukate arimarik, makina hutsak dira.

#### 5.4. GIZAKIA: GORPUTZA, ARIMA ETA GURUIN PINEALA

190. **Gizakiok** beste animaliek ez duten ahalmen berezi bat daukagu: hizkuntza simbolikoa sortu eta erabiltzearena. Horretan nabarmentzen da gure arima arrazionalaren eragina. Beraz, makina hutsak baino zerbait gehiago gara. Jainkoak materia gabeko arima arrazionala jarri zuen gure gorputzean.

191. **Arimaren hilezkortasunean** sinesten dugu, eta sinesmen horrek bertuteak eskuratzeraz bultzatzen gaitu. Zergatik sinetsi? Geure burua animaliatzat jotzeak eta bizitza honen ondoren beldurgarria ala ona izango den zerbait ez itxarroteak bertutetik aldentzen gaituelako, eta arima suntsi dezakeen indarririk ezagutzen ez dugulako.

192. **Guruin pineala** garunean dago. Haren bitartez gorputza eta arima elkarrekin komunikatzen dira eta elkarri eragiten diote, nahiz eta gorputza materiala izan eta arima izpirituzkoa izan.

193. **Gorputzak ariman eragiten** du. Lehendabizi, gorputzak sentipenak ditu: gosea, egarria, logura, sexu-grina, beroa, mina. Sentipen horiek sentimenduak edo irrikak sortzen dituzte arimarengan: kezka, maitasuna, gorrotoa, desira, alaitasuna, tristura. Eta irrika horiek arimaren borondateari eragiten diote. Irrika horiek elkarren aurkakoak dira askotan, bere buruaren aurka eginarazten diote arimari, eta ondorioz, arima egoera tamalgarrian gelditu daiteke.

194. **Arimak gorputzean eragiten** du. Arimaren indarra gorputzak sorturiko irrikak eta mugimenduak gelditzean datza. Gizakiak irriken mendekotasunetik askatzen saiatu behar du, esperientziari eta arrazoari jarraitu behar die.

195. **Zuhurtasuna** irrikak menderatzearen bertutea da. Pentsamendu argien eta ondo bereizien eremua zabalduz, eta eremu hori irriken eremutik bereiziz lortzen da. Zuhurtasunari esker gizakiak askatasun osoa berreskuratzen du.

196. **Zoriontasuna** da bizitzako ondasun handiena, eta alaitasunean ageri da. Hori lortzeko bidea geure patua onartzean datza, neurri handi batean. Osasun gehiago eta aberastasun gehiago nahi izaten dugu, pentsatzen dugulako horiek geure jokaeraz lor ditzakegula edo naturalki eduki beharko genituela. Baina geure ahalmenak mugatuak dira, eta gaixotasunak eta ezbeharrak naturalak dira, osasuna eta oparotasuna naturalak diren bezala. Edalontzi txiki bat betea egon daiteke edalontzi handi bat bezainbeste, nahiz eta jariakin gutxiago eduki; era berean, gizaki gaixoena eta txiroena alai eta asebate egon daiteke, aurretik bere patua onartzen badu, eta hobetzeko egin zezakeen arrazoizko guztia egiten duela ikusten badu.

## 5.5. GIZARTEA: JAKINTZA ERABILGARRIAK

197. **Guztien ongi orokorra** bilatu behar dugu. Eraikuntzak egin behar dira, eroso eta ahalik eta lan gutxien eginez bizitzeko. Osasuna zaindu egin behar da.

198. **Jakintza erabilgarrien** bitartez lor daiteke guztientzako ongi orokorra; zeren, jakintza horien bidez gauza guztiak erabili ahalko baikenituzke, naturaren jaun eta jabe izateko. Eraikuntzak egingo genituzke lanik gabe eroso bizitzeko, eta medikuntzaren bitartez osasuna zainduko genuke.

199. **Osasuna** da bizitza honetako lehenengo ondasuna, beste ondasun guztien oinarria delako, eta askotan izpiritua bera ere osasunaren mende dagoelako. Medikuntzaren bitartez, gorputzeko eta arimako gaixotasun asko eta zahardadea bera ere baztertuko genituzke, horien zergatiak eta sendabidea ongi ezagutuko bagenitu.

200. **Ondorioztatzearen bidea** da jakintza erabilgarriak eskuratzeko lehenengo bidea. Ondorioztatzean, lehendabizi, gure ariman naturalki dauden oinarritzko egia batzuetatik existitzen den guztiaren lehenengo zergatiak ondoriozta daitezke. Bigarren, zergati horietatik, ondorioztatzen diren konklusiorik orokorrenak aztertzen dira; eta horrela, ezagutzeko gauza errazena aurkitzen dira: ortzia, astroak, Lurra, ura, airea, mineralak. Hirugarren, ondorio zehatzenak erdietsi behar dira. Baina, hor arazo bat sortzen da: ondorio gehiegi atara ditzakegu, eta, ondorioztatzearen bitartez, zeintzuk existitu behar duten bereiztea ezinezkoa zaigu.

201. **Esperientziaren bidea** hartu behar dugu gero, ondorioztatzearen gabezia konpontzeko. Orain arte, zergatiak jakitetik ondorioen bila joan gara; aurrerantzean, ondorioak jakitetik zergatien bila joango gara. Ondorio baten zergati asko bururatzen zaizkigu; baina zein da benetakoa? Esperientzia askoren bitartez jakingo dugu; honela: asmaturiko zergati bakoitza benetan sortuko dugu, eta ondorioa zein zergatitatik sortzen den begiratu dugu. Gainera, zergati horiek filosofiaren lehenengo egietatik ondorioztatu behar dira.



202. **Ikerketak aditzera eman** behar dira jendaurrean. Horrela, ikerlarien bizialdiak, lanak eta ondasunak uztartuz, banakoak lortu ezin dituen ezagutza handiak erdietsiko dira, urteetan eta mendeetan zehar; zeren eta esperientzia horietako asko egin ahal izateko, pertsona bakar baten bizialdia ez baita nahikoa, eta horrez gain, ondasun oparoen jabe izatea beharrezkoa baita.

203. **Ikerkuntzen kritika** azaltzea komeni da. Horrela publikoak ezagutza epaitu ahal izango du, okerrak zuzendu eta egiak aurkitzeko.

204. **Arrazoi naturalaren** arabera egin behar ditugu ezagutzen epaiketak eta kritikak. Ez dugu baieztapen bat onartuko jakintsuek esaten dutelako, arrazoi naturalak egiazkoa dela erakusten digulako baizik (Descartes katolikoa zen, baina alaba, pentsatzeko askatasun gehiago ematen zuen protestantismoan bataiatu zuen).

*Locke*

**6**

## 6.1. GARAIA: IRAULTZA LORIATSUA

205. **Ingalaterrakoa** da John Locke (1632-1704). Garai haietan gaurko Britainia Handia oraindik osatu gabe zegoen, eta horren ordez hiru erreinu zeuden: Ingalaterra, Eskozia eta Ipar Irlanda. Ingalaterrako Bristolera jaio zen Locke, eta Oxfordeko Unibertsitatean ikasi zuen, Filosofia hain zuzen ere. Shaftesbury-ko kondearen idazkaria zelarik, Locke Ingalaterrako Iraultza Loriatsuaren ideologo nagusia izan zen. Gainera, Lockeren filosofia Ameriketako Estatu Batuetako konstituzioaren inspirazio-iturria da.

206. **Carlos I.a** Ingalaterrako errege bihurtu zen 1625ean. Carlos I.a protestantea zen erlijioz, anglikanoa hain zuzen ere, 1531tik Ingalaterrako errege guztiak bezala. Carlos I.ak boterea Jainkoarengandik zetorkiola aldarrikatzen zuen, garai haietako filosofia politikoari jarraituz. Eta, jakina, Jainkoaren boterea herriaren ohitura erlijioso eta politikoen gaitetik zegoela aldarrikatzen zuen. Baina, garai haietan, jadanik, Parlamentua ezarrita zegoen, eta haren ahalmen nagusienetarikoa bat erregeak ezarri nahi zituen zergak onartzearena zen.

207. **Zergak** erregearen bizimodurako edo armadako soldaduei soldadak ordaintzeko izaten ziren. Erregearen luxuak hain handiak zirenez, 1628an Parlamentua haserretu egin zen, eta hau erabaki zuen: Parlamentuak berak onartu gabeko zergak ordaintzen zituen etsai publikoa zela. Ondorioz, Carlos I.ak honako hau egin zuen: Parlamentua biltzeko deia gehiago ez egin. Baina, orduan zergen greba bat zabaldu zen gizartean: jendeak ez zituen zergak ordaintzen. Ekonomia-arazo ikaragarriak sortu zitzaizkion erregetzari, eta Carlos I.ak Parlamentua deitu behar izan zuen berriro, azkeneko bileratik 11 urte pasa eta gero, 1640an. Orduan, Parlamentuak aurreko erabaki berbera onartu zuen, berak onartu gabeko zergak ordaintzen zituen etsai publikoa izatea, alegia; eta gainera, betebeharrak bat gehiago ezarri zion erregeari: Parlamentua, gutxienez 3 urtero deitzea.

208. **Gerra zibila** 1642an piztu zen. Parlamentuaren aldekoak erregearen aldekoen aurka borrokatzen ziren. Parlamentuaren aldekoek irabazi egin zuten, eta Carlos I.ak ihes egin zuen Eskoziara. 1648an erregea saiatu egin zen boterea hartzen, baina Parlamentuak berriro irabazi zuen borroka, eta orduan erregea atxilotu, epaitu, kondenatu eta hil egin zuten, lepoa moztuz, 1649ko urtarrilaren 30ean.

209. **Erregetzaren berrezartzea** Carlos II.ak egin zuen, Carlos I.aren semeak, 1660. urtean. Baina erregearen eta Parlamentuaren arteko tirabirak berriro sortu ziren. Carlos II.ak Parlamentua baztertu, eta zergarik gabe eutsi zion erregetzari, Frantziako Luis XIV.ak (katolikoa) ematen zizkion diru laguntzei esker. Carlos II.a bat-batean hil zen eta haren anaia, Jacobo II.a jarri zen errege. Beti ere Frantziaren laguntzarekin, Jacobo II.a protestantismotik katolizismora aldatu zen, eta arbaso protestanteen lege erlijiosoak hautsi zituen.

210. **Iraultza Loriatsua hasi** zen orduan, erregearen aurka. Parlamentuko alderdi nagusiak elkartu egin ziren Holandako Guillermo de Orange-rekin. Horrek Europako herrialde protestanteen laguntza zeukan, eta Ingalaterrako erregearen alaba batekin (Maria) ezkondu zegoen. Gillermoren laguntzarekin, Parlamentuko alderdiek 15000 soldaduko armada bat lehorreratu zuten Ingalaterran, 1688ko abenduaren 22an. Jakobo II.ak ihes egin zuen, errege-eraztuna Tamesis ibaira bota ondoren.

211. **Monarkia Parlamentarioa** ezarri zen 1689ko otsailean. Guillermo de Orange-k Ingalaterrako Parlamentua bildu zuen. Parlamentuak Guillermo eta Maria izendatu zituen errege, eta Eskubideen Aitorpena onartu zuen. Ondoren, errege berriek Eskubideen Akta aitortu zioten Parlamentuari. Akta horrek Parlamentuak aurretik sorturiko Eskubideen Aitorpena onetsi zuen.

212. **Eskubideen Aitorpenaren** arabera, erregeak ezin zuen legerik edo zergarik ezarri edo kendu Parlamentuaren onespelik gabe. Erregeak ezin zuen bake garaian armada bat bildu eta mantendu Parlamentuaren onespelik gabe. Parlamentuko kideen hautaketek libreak izan behar zuten. Parlamentuak sarritan bildu behar zuen.

213. **Tolerantziaren Aitorpena** 1689ko maiatzean egin zuen Parlamentuak, Eskubideen Aitorpena osatuz. Tolerantziaren Aitorpenaren arabera, protestanteek erlijio-askatasuna zuten; baina katolikoek ez, Aita Santuari derrigorrez obeditu behar zitzaiola esaten zutelako. Gainera, ekitaldi publikoak egiteko, eskolak irekitzeko eta funtzio publikoetan parte hartzeko eskubidea zuten protestanteek. Gainera, 1695ean, Parlamentuak egunkari eta panfletoen bitarteko adierazpen-askatasun osoa onartu zuen, eta iritzi publikoari bizitza politikoa parte hartzeko askatasun osoa eman zion.

214. **Locke erbesteratua** egon zen Holandan, eta Guillermo de Orange-ren 15000 soldaduko espedizioa prestatzen ibili zen. 1689an Ingalaterrara itzuli zen, eta haren filosofia-ren ospea izugarri handia izan zen orduan: bera zen erregimen liberal berriaren ordezkari intelektuala eta babesle filosofikoa. Hau da Lockeren filosofia:

## 6.2. EZAGUTZA: ENPIRISMOA

215. **Descartes-en filosofia** ezagutu zuen Lockek. Descartesentzat arrazoimenaren indarra bakarra, askitasuna duena eta akatsik gabea da. Bakarra, gizaki guztiengan dagoelako eta gizaki guztiek dutelako neurri berean. Askitasuna duena, bere baitan aurkitzen dituelako behar dituen oinarriak. Akatsik gabea, metodo zuzenari jarraituz gero, ezin duelako akatsik egin.

216. **Arrazoimenaren ahuleziak** ikusi zituen Lockek, ordea. Lockerentzat arrazoimena ez da bakarra edo guztientzat berdina; horren ordez, diziplinaren bitartez eratu behar da. Askitasunik ez du, berak ezin duelako ezer egin, kanpotik esperientziaren datuak ematen ez baldin bazaizkio. Eta ez da akatsik gabea; akats asko egiten ditu, esperientziaren datu asko falta zaizkiolako, oinarri okerrak erabiltzen dituelako, frogak falta zaizkiolako, eta hizkuntza behar duelako, hizkuntza ere inperfektua delarik. Orduan, arrazoimena erabili baino lehen, haren ahalmenak eta mugak aztertu behar dira.

217. **Pentsatzea** ideiak edukitzea da. Horregatik, pentsatzea edo arrazoitzea zer den eta haren mugak zein diren aztertzeko, ideia moten zerrenda bat egin behar dugu. Lau ideia mota daude: sinpleak, konplexuak, harremanak eta orokorrak.

218. **Ideia sinpleak** sentrazioak dira, eta beste ideia guztien sorburu dira.

219. **Ideia konplexuak** ideia sinpleen konbinazioak dira. Ideia konplexuak bi mota-takoak izan daitezke: substantziak eta moduak. Substantzia-ideiak bere izanaren euskarri

omen diren zeren ideiak dira: gizakia, burdina, arrosa... Modu-ideiak substantzien agerpenak edo ezaugarriak omen direnen ideiak dira; adibidez: edertasuna, hoge, hiruki, lapurreta...

220. **Harreman-ideiak** bi ideiaren arteko konparazioak dira; adibidez: kausa eta ondorioa, berberatasuna eta aniztasuna, ongi eta gaizki moralak, eta abar. Adibidez, ongi eta gaizki moralak ekintzaren baten eta lege baten arteko adostasuna eta ez-adostasuna dira. Lege hori jainkotiarra, juridikoa edo ohiturazkoa izan daiteke.

221. **Idea orokorrak** abstrakzioaren bitartez sortzen dira. Idea orokor batek banako asko adierazten ditu, banako bakoitzaren ezaugarri bereziak (haren denbora, haren lekua, eta beste batzuk) baztertu direlako. Idea orokorrak hitzen bitartez adierazten dira.

222. **Hitza** konbentzioz onarturiko ikur bat da. Hitzezko ikurrak hizlariaren ideiei buruzkoak dira; baina hizlariak honako hau suposatzen du erabiltzen dituenean: izen orokorrak entzuleak dituen ideien ikurrak ere badirela, eta gauzen errealitatea adierazten dutela, horien esentzia edo mamizko izana, alegia. Baina esentziak ez dira errealak; adimenak sorturiko ikurrak dira, eta besterik ez. Esentziak hitz hutsak direla esaten duen filosofia horri nominalismoa esaten zaio. Lockek Guillermo de Ockam-en nominalismoari jarraitzen dio.

223. **Innatismoak** jaiotzean, edozein esperientziaren aurretik, ideiaren batzuk ditugula baieztatzen du. Baina innatismoaren filosofia okerra da. Jaiotzazko ideia batzuk edukiko bagenitu, haurrek eta leloek ere eduki beharko lituzkete, baina ez dauzkate. Haurrek jaiotzazko ideien kontzientzia arrazoiaren adinean lortzen dutela esaten dute innatismoaren aldekoek; baina adin hori heldu orduko, innatoak omen diren ideia horiek esperientziaren bitartez jasoak izan daitezke.

224. **Egiari** dagokionez, sentsazioak, ezagutzak eta iritziak daude.

225. **Sentsazioak** sentimenetatik datoz; adibidez: gorria, beroa, gogorra eta bestelako ideia sinpleak. Sentsazioak seguruak dira, edo gutxienez gizakion helburuentzako nahikoa den segurtasun bat ematen digute; azkenean, ikusten eta sentitzen ditugun gauzen errealitatea ezin dugu zalantzan jarri. Sentsazioak sentimenetatik datoz, eta ideia sinpleak dira, beste ideia guztien oinarria. Horregatik, sentimenen bitarteko esperientzian dago arrazoimenaren lehenengo muga: arrazoimenak ezin du ezer egin sentsaziorik gabe.

226. **Ezagutzek** ideien arteko adostasunak edo ez-adostasunak atzematen dituzte; seguruak edo probableak izan daitezke. Ezagutza seguruak oso gutxi dira; hiru bakarrik daude: niari buruzko intuizioa, Jainkoaren existentziaren frogua, eta niaren kanpoko gauzak existitzen direla. Ezagutza probableak gehienak dira, eta probabilitate-mailak daude.

227. **Iritzien** segurtasuna hutsa da.

228. **Arrazoimena** ideien arteko lotura seguruak edo probableak egiteko ahalmena da. Haren oinarria sentsazioak dira. Arrazoimena da gizakiak ekintza guztietan duen gidari bakarra.

229. **Fedea** Jainkoaren omenezko aitorten batean oinarrituriko sinesmena da. Fedeak ere arrazoiak baliatu behar du; ezin du arrazoiaren baieztapenen aurka egin. Kristautasunari

superstizio batzuk kentzen baldin badizkiogu, haren funtsezko gunea gelditzen zaigu; eta kristautasunaren funtsezko gune hori ez da arrazoiaren aurkakoa, arrazionala da.

230. **Fanatismoa** edo «burugogorkeria» fede arrazionalaren aurkako «fedea» edo sinismena da. Fanatikoek, baieztapen baten egian sinesten dutelako, Jainkoak baieztapen hori aitortu duela uste dute, eta, Jainkoak aitortu omen duelako, baieztapen horren egian sinesten dute. Horrela, fanatikoak gurpil gaizto batean ibiltzen dira.

231. **Elkarbizitari** buruzko ezagutzak ere arrazoimenaren ardurapean daude. Horregatik arrazoimenak lege naturala, zuzenbidea, bertuteak eta ohiturak ondo eratzeko behar den guztia ikasten du.

### 6.3. IZANA: EZAGUTZATIK ERREALITATERA SENTSazioEN BITARTEZ

232. **Zein ezagutza dira errealitatearekiko egokiak?** Arazo hori konpontzeko, Descartesez bezala, Lockeek ere hiru arlo bereizten ditu: nia, Jainkoa eta gauzak.

233. **Nia** errealia dela dakit, zalantzak ditudalako, pentsatzen dudalako eta arrazoitzen dudalako.

234. **Jainkoa** errealia dela dakit kausalitatearen frogari jarraituz. Kausalitatearen frogak horrek honako hau dio: hutsetik ez da ezer sortzen; zerbait existitzen bada (adibidez nia), beste zerbaitek sortu duelako da; eta sortzaileen katea infinituraino luzatu ezin denez, betiko izaki batek dena sortu duela onartu behar da. Beharrezkoa da betiko izaki horren indarra eta adimena oso handiak izatea, berak sortu dituelako gizakion adimen guztiak eta naturaren indar guztiak. Izaki hori Jainkoa da.

235. **Gauzen errealitatea** oraingo sentsazioen bitartez ezagutzen da. Niaren kanpoko sentsazioek kanpoko alde horretan zerbait existitzen dela esaten digute. Azkenean, ezin du inork orain ikusten eta sentitzen dituen gauzen errealitatea zalantzan jarri.

236. **Gauzen errealitatea baieztatzeko argudio laguntzaile** batzuk daude: 1) sentimen organoren bat falta zaigunean berak sorturiko ideia sinpleak galduko ditugu, beraz sentimena zirikatzen duen zerbaitek sortzen ditu ideia horiek; 2) ezin ditugu ideia sinpleak gogoz baztertu, beraz kanpoko kausaren batek sortzen ditu; 3) ideia sinple asko atseginez edo minez gertatzen zaizkigu, baina atsegin edo minik gabe oroit ditzakegu, beraz ez ditugu geuk gogoz sortzen eta kanpoko gauzaren batek sortzen ditu; 4) sentimenez jasotako ideiak osagarriak izan daitezke. Hala ere, sentimenez bitartez lorturikoa ez da ezagutza perfektu bat, baina nahikoa da bizitzaren helburuak asetzeko: hau da, zoriontasunarekiko eta zoriontasunarekiko geure ibilaldia gidatzeko.

237. **Oraingo sentsazioa** da gauzen errealitatea segurua dela adierazten diguna; oraingoa eta ez beste edozein. Orain dela minutu bat zerbait ikusi badut, baina oraintxe bertan ikusten ez badut, ezin dut orain esan hori existitzen denik, lehen existitzearen eta orain existitzearen artean derrigorrezko loturarik ez dagoelako; zerbait horrek existentzia uzteko milaka arrazoi egon daitezkeelako. Adibidez, orain ikusten ez ditudan milioika gizaki existitzen direla probablea da, baina ez da segurua. Dena den, probabilitate hori nahikoa da bizitza gidatzeko.

238. **Substantzien existentzia** ere probablea da, ez da segurua. Substantzia hau da: bere izanari eusten diona. Substantziaren ideia konplexua da, baina sinplea dela dirudi. Ideia sinple bati dagokiona errealitatean nola izan daitekeen ezin dugu asmatu, eta orduan euskarriren bat duela irudikatzen dugu; euskarri hori bera da substantzia. Baina hori ez da kanpotik sentimenen bitartez etorri zaigun ideia sinple bat; geuk sorturiko ideia konplexu bat da, eta horregatik, ezin dugu bere existentzia segurtasun handiz baieztatu, nahiz eta probablea izan.

239. **Substantzien ezaugarriak** bi motatakoak izan daitezke: lehenak eta bigarrenak. Ezaugarri lehenak substantzian edo gauzan bertan daudenak dira; adibidez: irudia, hedadura, gogortasuna, mugimendua, kantitatea. Ezaugarri bigarrenak substantzian bertan ez daudenak dira; geuk sortzen ditugu, ezaugarri lehen ezberdin batzuk konbinatuz; adibidez: koloreak, soinuak, zaporeak, usainak, eta abar. Substantzien beste ezaugarri batzuk indarrak dira, hau da, beste substantzia edo gorputz batzuen ezaugarri lehenetan aldaketak sortzeko ahalmena.

#### 6.4. GIZAKIA: EGOERA NATURALA

240. **Berdinak** jaiotzen dira gizakiak: ahalmen berdinez, naturaren ondasun berdinetan parte hartzeko.

241. **Askatasuna** berdintasunetik ondorioztatzen da. Gizakiak berdinak jaio direnez, ezin da esan bat beste baten mendekoa denik. Beraz, askatasuna du gizakiak, nahi duena egiteko edo ez egiteko askatasuna, hain zuzen ere. Baina nahi izateko askatasuna ez du; hau da, gizakiak ezin du erabaki bere borondatearen nahiak zein izango diren.

242. **Lege natural** bat dago, ordea. Gizakiaren askatasun natural hori arau bakar bat edukitzean datza, lege naturalarena, alegia; hau da, askatasun naturala lege naturaletik aparteko mugarik ez edukitzean datza. Arrazoia lege naturalarekin bat dator, eta hau esaten digu: gizaki guztiak berdinak eta independenteak garena bizitzan, osasunean, askatasunean edo jabegoetan, eta, berdinak garenez gero, ezin dugula elkar birrintzen edo esplotatzen ibili. Lege naturalaren oinarria gizaki guztiok dugun desira indartsuena da: norberak irauteko sena. Horregatik, norbaiti erasotzea lege naturalaren aurka joatea da.

243. **Natura-egoeran** buruzagirik gabe elkarrekin bizi diren gizakiak aurkitzen dira. Natura-egoera hori baketsua izan daiteke. Egoera horretan, gizakiak lagun gisa egon daitezke, elkarri laguntzen, beren burua zaintzen, eta lege naturalaren mende. Hala ere, natura-egoerak desabantaila batzuk ditu.

244. **Natura-egoeraren desabantailak** bi dira nagusiki: 1) Berekoikeriari jarraitzen diotenenk eta lege naturala ikasi ez dutenek lege naturala ez onartzeko joera dute. Bestalde, natura-egoeran lege naturala betearazteko ahalmena norberak dauka. Orduan, norbaitek lege naturala betetzen ez badu, kaltetutakoak betearazi behar du, eta borrokak sortzen dira. 2) Baina desabantaila handiena ez da elkarri erasotzea, pobrezia baizik, zeren eta pobrezia irauteko sena eraso baitezake.

245. **Natura-egoeraren fase** batzuk daude, jabego pribatuaren garapenaren eta zabalpenaren arabera. Amaieran, jabego pribatu handiak babesteko asmoz, gizarte zibila sortzen da.

246. **Gorputzaren jabego pribatua** izan zen jabego pribatu lehena. Natura-egoeraren hasieran gizaki gutxi eta baliabide asko zeuden. Egoera horretan dena zen guztiona, komuna zen. Bakoitzak nahi zuena har zezakeen naturatik, eta inork ez zion ezer esaten baliabide sobera zegoelako. Dena zen guztiona, gauza bat izan ezik: norberaren gorputza.

247. **Lanaren emaitzen jabego pribatua** gorputzaren jabego pribatutik sortzen da. Gorputza norberaren jabego pribatua zen; ondorioz, norberak egindako lanaren emaitzak ere norberaren jabego pribatu bihurtu ziren. Adibidez, batek hartzen zituen sagarrak bere jabego pribatua ziren. Jabego pribatu hori naturan dauden sagarren jabego komunitik eta lanaren jabego pribatutik eratorri zen; baina, har zitezkeen baino sagar gehiago zeudenez gero, eta lanik gabe sagarrak jatea ezinezkoa denez gero, inork ez zuen jasotako sagarren jabego pribatuaren aurka ezer esaten. Horrela, lanaren emaitzak ere jabego pribatuan sartzen dira.

248. **Lurraren jabetza pribatua** lanaren emaitzen jabetza pribatutik eratorri zen, nekazaritza asmatu zenean. Guztiek onartzen zuten lurraren jabetza pribatua, landu eta jabetu zitekeena baino lur gehiago zegoelako. Gainera ezin zen lur gehiegi landu, soberakinak gordetzerik eta saltzerik ez zegoenez gero, soberakinak sortzea lana alferrik egitea zelako.

249. **Dirua** asmatu zen. Ez zen bat-batean sortu, pixkanakako garapen baten ondorioz baizik. Hasieran janari ustelgarriak gehiago irauten zuten janariengatik trukutzen ziren, in-txaurrengatik, adibidez, eta horiek ziren nolabaiteko dirua. Gero, urrea eta zilarra erabili ziren diru gisa, ederrak, zatigarriak eta ustel ezinezkoak zirelako. Ondorioz, interesgarria egin zen soberakinak sortzea, sal zitezkeelako, eta dirua usteldu gabe pila zitezkeelako. Gauzen prezioa eskaintzaren eta «merkatua»ren arabera da (gaur egun, eskaintzaren eta eskariaren arabera da esaten dugu).

250. **Lur-jabegoen handitzea** gertatu zen gero. Eta guztiek onartzen zuten handitze hori, norbaitek lur gehiago lantzeak gizadiari ondasun gehiago ekartzen zizkiolako; hau da, lur gehiago lantzen zituen nekazariaren soberakinak merkataritzaren bitartez zabaltu zitezkeelako gizartean. Jadanik, hasierako pobreen berdintasunetik aberatsen ezberdintasunera pasatu da gizadia. Oraingo pobreena hasierako aberatsa baino askoz hobeto bizi da; horregatik, oraingo pobreena aberatsagoa da hasierako aberatsena baino.

251. **Lur osoaren jabetza** gertatu zen azkenean. Lur-jabegoak handitzearen ondorioz, naturaren lur osoa jabetu zen, oso zaila zen jaberik gabeko lurrik aurkitzea, lanak ezin izan zuten gehiago jabetza titulurik eman, eta jabego pribatuak handiegiak ziren jabe bakar batek defendatzeko.

## 6.5. GIZARTEA: GIZARTE ZIBILA

252. **Gizarte zibila** jabego pribatu handiak babesteko sortu zen, natura-egoeratik; eta haiekin batera, baita bizitza eta askatasuna babesteko ere. Horretarako, legeak ezarri, gatazketan epaitu eta epaiketetan ezarritako zigorrak betearazteko gai izango den botere bat ezarri behar da. Horrelako botere bat onartzen dutela esaten dutenek gizarte zibil edo politiko bat osatzen dute; esaten ez dutenek natura-egoeran daude oraindik.



253. **Gutxienezko bi botere** egotea beharrezkoa da gizarte zibilean: botere legegilea eta botere betearazlea. Botere legegilea legeak egiteko ahalmena duena da. Botere betearazlea epaitzeko eta zigorrak ezartzeko ahalmena duena da.

254. **Botereek banandurik** egon behar dute; tentazio handiegia eta ustel bide bat litzatekeelako gizakiontzat legeak egiteko eta betearazteko botereak batera edukitzea. Horregatik, beharrezkoa da gutxienez bi botere egotea: legegilea eta betearazlea. (geroago, Montesquieu-k botere betearazlea —Gobernuarena— eta epaileen boterea bereizi zituen, gobernariaren epaiketarako gobernariak bereak egin behar ez dituztela, baizik eta beste batzuek egin behar dituztela argudiatu ondoren).

255. **Boterea mugatua** izatea beharrezkoa da. Errege batek botere absolutua edukiko balu, beste gizakiak natura-egoeran baino okerrago egongo liriateke, natura-egoeran zitu zen berdintasuna, askatasuna eta jabetza pribatua ere galdu, eta Erregearen esku geldituko liriatekeelako. Baina natura-egoeran aurkitzen ziren gizakiek ez zuten gizarte zibila sortu okerrago egoteko, beren eskubide naturalak babesteko baizik: bizitza, askatasuna eta jabetza pribatuak babesteko hain zuzen ere. Gizarte zibila gizakion eraikuntza artifizial bat da, eta gizakion lege naturala bete behar du.

256. **Gehiengoak** dauka gizarte zibilean erabakitzeko ahalmena. Berez eta naturaliki, erabakitzeko ahalmena indartsuenak dauka, baina natura-egoeran indartsuena gehiengo da, edozein bi gizaki ezberdinen indarrak oso antzekoak direlako. Hortik eratortzen da gehiengoaren arabera erabaki beharra.

257. **Gobernu motak** daude. Gehiengoak berak botere legegileari eusten badio, gobernu demokratikoa bat da. Gehiengoak botere legegilea gutxi bazuen eskuetan uzten badu, gobernu oligarkia bat da. Gehiengoak botere legegilea gizaki bakar baten eskuetan uzten badu, gobernu monarkia bat da. Baina edozein kasutan, gehiengoaren onespenez bakarrik ezar dezake gobernuak.

258. **Erresistentziarako eskubidea** du herriak, erregeren bat tirano bihurtzen bada. Tiranoa bere kapritxoetarako eta lege naturala hautsiz agintzen duen erregea da. Tiranoak lege naturala hausten duenez, herriak tiranoaren aurkako erresistentzia bideratzeko eskubidea du.

*Rousseau*

**7**

## 7.1. GARAIA: FRANTZIAKO IRAULTZAREN AURRETIK

259. **Genevan** jaio zen Jean-Jacques Rousseau (1712-1778), XVIII. mendean. Geneva hiri-estatu independente bat zen. Konfederazio Helvetiarraren kide eta erlijioz kalbinista zen (protestantismo mota bat). Hiriko aberats talde batek agintzen zuen Genevan, baina inguruko erregetza absolutistekin konparatuz, Geneva nahiko liberala zela esan daiteke.

260. **Parisen** inguruan gertatu zen Rousseau-ren bizitza gehiena, hala ere. Paris Frantziako hiriburua zen, eta haren erregetza absolutista Europa katolikoaren erregetza indartsunetariko bat zen garai haietan. Baina Frantziako erregetza absolutistaren eta katolikoaren aurrean, Genevako errepublika protestantearen antzeko zerbait defendatzen zuen Rousseauk. Etengabeko tirabira batean ibili zen absolutistekin eta liberalekin, katolikoekin eta kalbinistekin. Erbesteratua ibili zen Europan zehar.

261. **Erregetza absolutua** zen Frantziako gobernu era garai haietan. Luis XIV.a (1638-1715) absolutismoaren gailurra izan zen; eta Eguzki-erregea esaten zioten. Ondoren Luis XV.a (1710-1774) eta Luis XVI.a (1754-1793) egon ziren. Beraz, Rousseauk azkeneko bi horien erregetzak ezagutu zituen.

262. **Oligarkia** antzinako jaun feudalen oinordekoek osatzen zuten. Lur-jabetzatik eta armada kontrolatzetik zetorkien boterea. Haien burua erregea zen. Erregeak gero eta aginpide gehiago eskuratu zuen, botere absolutuaren jabe egin arte, XVII. mendearen erdian.

263. **Absolutismoaren** pentsaera politikoa Europa osoan zegoen barreiatu. Pentsaera hori San Agustinengandik zetorren. 1700 inguruan Frantziako Luis XIV.ak (Eguzki-erregea) eta Elizako Prelatua zen Bossuet-ek aldarrikatzen zuten. Haien ziotenez, botere mugagabea Jainkoarengandik zetorkion erregeari; hau da, Erregea Jainkoaren ministroa eta ordezkaria zen; eta horregatik, Jainkoak bakarrik epai zezakeen erregea. Bestalde, Luis XIV.ak ez zuen herriaren egoera txarra kontuan hartzen; esaten zuenez, «nire ondoren uholdea».

264. **Erljio anitz** zeuden Europako mendebaldean. 1517an Martin Luther-ek Aita Santuaren aurkako bere tesiak azaldu zituen, eliza baten atarian. 1530ean Augsburgoko Dieta Inperialak Luther-en tesiak onartu zituen. Geroztik katolikoek eta protestanteek arteko gerrak izan ziren Europa osoan. Katolikoak Aita Santuaren aldekoak ziren. Protestanteak haren aurkako protesta egiten zutenak ziren.

265. **Bere erregearen erlijioari** jarraitu behar zion morroi bakoitzak. Horrela zen 1555etik aurrera. 1555ean *Augsburgoko Erljio Bakea* sinatu zen, katolikoek eta protestanteek artean, eta bertan «Cuius regio, eius religio» («Halako erregea, haren erlijioa») printzipioa ezarri zen, zeinen arabera, morroi bakoitzak bere Erregearen erlijioari jarraitu behar zion, derrigorrez. Beraz, Erregea katolikoa bazen, haren morroiek ere katoliko izan behar zuten; eta Erregea protestantea bazen, haren morroiek ere protestante izan behar zuten.

266. **Burgesia indartzen** ari zen XVII. mendetik. Burgesiak manufakturak eta merkataritza kontrolatzen zituen. Ekonomia berriaren funtsezko indarra zen burgesia. Baina

ez zeukan botere politikorik. Parlamentuen bitartez eskuratuko zuen, erregeen eta oligarken aurka borrokatuz.

267. **Burgesiaren iraultza** burututa zegoen Ingalaterran, Parlamentuak Jacobo II.ari erregetza kendu zionetik. Filosofo enpiristen (Locke, Hume) ideiak zabaltzen ari ziren Europa osoan: politikari dagokionez, absolutismoaren aurkakoak eta herriak aukeratutako Parlamentuaren aldekoak ziren.

268. **Entziklopedia** liberalek bultzaturiko garaiko jakintza osoa (zientifikoa eta politiko-morala) biltzeko proiektu bat zen. D'Alembert eta Diderot ziren proiektuaren buruzagiak. Jakitun askok hartzen zuten parte, entziklopediarako artikulak idazten. Rousseauk ere parte hartu zuen, musikari eta ekonomia politikari buruzko artikulua bartzuk idatziz. Baina azkenean Rousseauren filosofia politikoa D'Alembertek idatzitako «Ginebra» artikulua aurkakoa eta Diderotek idatzitako «Zuzenbide naturala» artikulua aurkakoa izan zen. Beraz, Rousseau garaiko absolutisten aurkakoa eta liberalen aurkakoa da.

269. **Frantziatik erbesteratua** izan zen Rousseau, absolutismoaren aurka eta demokraziaren alde, katolizismoaren aurka eta protestantismoaren alde, idazteagatik. Garaiko aberats eta intelektualek erabiltzen zuten ileordea baztertu egin zuen, naturalago eta herrikoiago izateagatik. Rousseauk ez zuen Frantziako Iraultza ikusi, baina iraultzaileek ideologo nagusietarikotzat hartu zuten Rousseau, eta demokraziari buruzko haren ideiei jarraituz, Luis XVI.a erregetzatik kendu zuten (lepoa moztu zioten) 1794an. Hau da Rousseauren filosofia:

## 7.2. EZAGUTZA: SENTIMENDUEN GARRANTZIA

270. **Sentimenduak eta irrikak** dira arrazoimenaren lehengaia. Deskartesaren filosofian jaiotzazko ideiak dira arrazoimenaren lehengaia. Lockeren filosofian sentimeneen bitarteko sentsazioak dira arrazoimenaren lehengaia. Roussearentzat, ordea, arrazoimenaren lehengaia sentimenduak eta irrikak dira. Horregatik, Rousseau erromantizismoaren aitzindaria izan zela esaten da. Dena den, erromantizismoak arrazoimenaren aurka jartzen zituen sentimenduak; Rousseauk, ordea, bi horiek kontrajarri baino gehiago, sentimenduak arrazoimenaren lehengaia direla esango luke.

271. **(Sentsazioak eta sentimenduak ez ditugu nahastu behar.** Sentsazioak sentimenek kanpotik dakarzkiguten berriak dira, nolabait. Adibidez: begien bitartez, ikusmenak koloreak ikusten ditu, eta kolore bakoitza sentsazio bat da. Belarrien bitartez, entzumenak zaratak edo musika-notak entzuten ditu; eta horietako bakoitza sentsazio bat da. Eta abar. Sentimenduak, ordea, pentsaturiko ideia konplexuek sortzen dizkiguten barne-zirrarak dira; adibidez: beldurra, poza, gorrotoa, maitasuna, eta abar).

272. **Arrazoimenak egiten duena** aztergaiak zatitzea eta analizatzea da. Baina arrazoimenak aztergai horiek gizakiaren bizitzan sortzen duten zentzu orokorra galtzen du. Nolabait esatearren, arrazoimenak zuhaitz bakunak ikusten ditu, baina ez du basoaren osotasuna ikusten. Osotasuna antzemateko eta ikuspegi hori norberaren bizitzarekin uztartzeko, sentimenduak behar dira.

273. **Emoziozko intuizioen** bitartez giza naturan, gizakiaren bihotzean, ezarriak ditugun oinarrizko indar edo legeak ikusten ditugu: askatasuna, berdintasuna, errukia, eta abar. Mundu guztiak ikusten ez baditu, gizarteak usteldu gaituelako eta naturatik urrundu gaituelako da. Emozio horiei esker bakarrik uztartzen dira elkarren artean pentsamendua eta bizitza. Pentsamendua eta ekintzak uztartzeko sentimenduak behar ditugu.

274. **Hezkuntzak** haurraren jatorrizko interesetan oinarritu behar du, haurrak bere bertute naturalak gara ditzan. Pertsona helduak, onak eta zoriontsuak sorraraziko dituen hezkuntza eraiki behar da, entziklopediaren jakintza asko emango duen hezkuntza bat baino. Aginduak, inposizioak, zigorrak eta diziplina baino gehiago, naturaltasuna, maitasuna eta sinpatia erabili behar dute hezitzaileek.

### 7.3. IZAKIA: JAINKO BERDINTZAILEA

275. **Jainko** bat dago, unibertsoko mugimendu guztien lehen higitzailea dena, eta adimen guztien gorenena dena, Izaki Gorenena, alegia. Horrek ez du esan nahi Jainko hori pertsona bat denik: Jainkoa naturaren ordenaren funtsa da. Jainkoaren ezaugarrien artean honako hauek daude: ikaragaitza da, bere burua aski duena da, errugabea da.

276. **Jainkoaren existentziaren frogak**, arrazoizkoak baino gehiago, sentimenduzkoak dira. Naturaren edertasuna miresten dugunean, Jainko bat egotea beharrezkoa dela sentitzen dugu. Gizarteko injustiziak jasatean, Jainko bat egotea beharrezkoa dela sentitzen dugu bihotzean, injustizia horien konpentsazio bat eskatzen dugulako.

277. **Errebelaturiko erlijio** asko daude, eta ez dira egia osoak. Errebelaturiko erlijioak funtsezko erlijio naturalaren aldaera historikoak baino ez dira. Gainera, apaiz eta fededun asko gaiztoak direla kontuan eduki behar da. Ez da Elizen agintariez fidatu behar. Jainkoa geure behar moralen erantzun bat da.

278. **Erljioen** artean ibili zen Rousseau. Katolikoek Rousseau kondenatu zuten, Rousseauk Elizaren agintarien aurka hitz egin zuelako. Genevako kalbinistek (protestante mota bat) ez zuten Rousseau ongi ikusi, Jesusen jainkotasuna zalantzan jarri zuelako. Bestalde, deistek eta panteistek ere errefusatu egin zuten Rousseau, arrazoimenean baino gehiago, sentimenduan jartzen zuelako sinesmenaren funtsa. Ateok ez zuten Rousseau onartzen, Jainkoarengan sinesten zuelako.

### 7.4. GIZAKIA: ERRUKITASUNA, ASKATASUNA, BERDINTASUNA

279. **Gizaki naturala** ona da jatorriz, gizartean usteltzen da gero. Usteltze hori konpontzeko ezin da natura-egoerara itzuli; moral zorrotz bat ezarri behar da horretarako.

280. **Jatorrizko gizakia** ona da; jatorrizko bekaturik ez dago. Jatorrizko gizakia animalia bat da, askoz gehiago gabe. Behar sinpleenak ditu, eta basoan zehar asetzen ditu, bakarka. Ez du familiarik: gizon eta emakumeen arteko harremanak noizbehinkakoak dira; amak zaintzen ditu haurrak, bere sena hori delako. Ez du besteen aurka borroka egiten, lehen beharretarako lehengaiak falta direnean izan ezik.

281. **Errukitasunaren** sentimendua du jatorrizko gizakiak besteen minarekiko edo sufrimenduarekiko. Jatorrizko gizaki horrek oinarrizko irrika hauek ditu: bizirik irautea, mina baztertzea eta besteen minarekiko errukitasuna. Horregatik, baketsua da.

282. **Askatasuna** du jatorrizko gizakiak; hau da, beste animaliak senez determinaturik daude, baina gizakia ez: borondate aske bat du; aukeratzeko, onartzeko eta baztertzeko ahalmena du. Gainera, bere burua hobetzeko ahalmena ere badu; hau da, bere ahalmenak hobetzeko eta besterenganatzeko ahalmena du.

283. **Berdintasuna** dago jatorrizko gizakien artean. Indar ezberdintasunak egon daitezke baina ez dute inolako ondoriorik, gizakiak bakarka eta harremanik gabe bizi direlako beren artean; bizirik irauteko ez baitute elkarri laguntzeko beharrik.

284. **Elkarte-egoera** gertatu zen gero, naturaren ezbeharrak gainditzeko, gizakiak harremanetan hasi zirenean. Elkarte-egoera berrian, gizakiak hizkuntza garatu zuen eta familia bizitzen hasi zen. Ahulago bihurtu zen, eta behar handiagoak zituen.

285. **Lehenengo betebeharrak moralak** elkarte-egoeran gertatu ziren, zeren eta besteen laguntza jasotzeko, laguntza eman behar baitzaie. Hala ere, askatasuna zen nagusi oraindik, eta konpromisoak baztertu egin zitezkeen norberaren onurarako ez baziren.

286. **Mendekua** elkarte-egoeran sortu zen. Elkarbizitzan gatazkak sortu ziren, eta legerik ez zegoenez gero, bakoitzak bere burua defendatu behar izan zuen. Jatorrizko errukitasun naturala ahuldu egin zen, norberarekiko maitasunaren eraginez. Baina, hala ere, bake orokorra zen, oraindik ere, elkarte-egoeraren ezaugarria.

287. **Gizarte zibila** elkarte-egoeratik sortu zen, norbaitek jabego pribatua asmatu zuenean. Jabego pribatuaren ondorioz, gizadia usteldu egin zen; honela usteldu zen: 1) Norberarekiko maitasun naturalari eutsi ordez, harrokerian erori zen gizakia; benetako behar eta desira fisikoen asetzea bilatu ordez, dirua, agintea eta ohoreak bilatzen hasi zen. 2) Gizakien arteko ezberdintasunak sortu ziren, zeren eta laster jarri baitziren mugak lur osoan, eta gizaki batzuek beharrak asetzeko baino gehiago lortzen zuten; beste batzuek, ordea, gutxiagorekin gelditzen ziren. 3) Zutenen eta ez zutenen arteko, aberatsen eta behartsuen arteko, gerra sortu zen. 4) Gerraren ondorioz, jatorrizko errukitasun naturala desagertu egin zen, eta geroztik bakea egiteko bide bakarra guztien gaineko autoritate bat onartzea da. 5) Gerra baztertzeko gogoagatik, pobreek jabe pribatuen agintea eta autoritatea onartu behar izan zuten. 6) Pixkanaka sortu ziren ezberdintasunak legalizatu egin ziren, eta geroztik legeak aberatsen alde egiten dira, eta pobreen zampakotari indar publikoz eusten zaio.

288. **Jatorrizko askatasuna, berdintasuna eta errukitasuna** ezarriko dituen aginte justu bat eraiki behar da. Baina nola egin daiteke hori gizarte zibileko gizakiak ustelduta egonik?

## 7.5. GIZARTEA: BORONDATE OROKORRA

289. **Justizia** ezartzeko bide bakarra heziketa moral zorrotz bat da. Justiziak ondusun komunekiko gizabanakoaren menpekotasuna eskatzen du. Baina gizakia, naturaz,

berekoia eta independentea da. Orduan, nola lor daiteke justizia, inork ez badio bere askatasunari uko egiten?

290. **Zuzenbide naturalak** ezin du gizartearen legea oinarritu. Naturak dakarren bakarra norberaren berekoikeria da. Horregatik, natura baino harantzago joanez, gizakiak morala sortu behar du, elkarrekiko akordioz, konbentzioz. Gizakiak hitzarmenak egiteko ahalmena du, librea delako.

291. **Elkartze-formula** egoki bat aurkitu behar da, elkartasunaren indar osoz elkarturiko bakoitzaren askatasuna eta ondasunak defendatuko dituen. Horrela, bakoitzak, beste guztiei elkartuta, norberari obedituko dio bakarrik, eta lehen bezain librea izaten jarraituko du. Estatuaren eta gizabanakoaren arteko gatazkak desagertuko dira, bakoitzak legedia bete-zearen hitzarmena onartzen duelako.

292. **Estatua** gizartearen hitzarmenak sorturiko pertsona artifical bat da. Estatuak bere borondate berezia du, pertsona natural bat balitz bezala. Borondate hori borondate orokorra da.

293. **Borondate orokorra** ez da guztion borondatea. Guztion borondatea botazio arruntetan lorturiko emaitza da, botazio arrunt horietan bakoitzak bere interes berekoien alde botatzen duelarik. Borondate orokorra, aldiz, erabakitzaile bakoitzak guztion interesetan pentsatzen duenean ateratzen dena da. Legegileak guztien interesetan pentsatuz egin behar ditu gizartearen legeak. Horretarako eduki zehatzik ez dago alde zuzenetik; legegileak erabakitzen du legea zein izango den, askatasun osoz eta guztion interesetan pentsatuz. Demokrazia bateko hiritar bakoitzak, legegilea den neurrian, guztien interesetan pentsatu behar du, eta guztientzako onak izango diren legeak bultzatu behar ditu.

294. **Berekoikeriaz** jokatzeko jarraitzen duen gizakia, animalien mailaraino jaitsi dela esan daiteke. Irriken menpe dago, eta gizarte justua eraikitzearen aukera galarazten du. Ondorioz, gizarteak gizaki berekoi hori bide zuzenean jartzeko zilegitasuna du. Heziketa eta zigorra dira horretarako tresnak. Gizakiaren duintasuna borondate orokorra norberaren borondatearen gaintetik jartzean datza, eta horretarako moral zorrotz bat jarri behar dio hiritar bakoitzak bere buruari.

295. **Subiranotasuna** legeak egiteko zilegitasuna da. Eta herriari dagokio; herriaren borondatea da lege zilegi bakarra. Gainera, subiranotasuna ezin da besterendu. Horregatik, botoen edo boto-emaileen ordezkariak ez dira onak. Herri bat oso handia baldin bada, ordezkariak erabili beharko dira, baztertu ezinezko gaitz bat balira bezala.

296. **Ordezkariek** leku bakoitzeko hiritar guztien batzarretan aukeratuko dira. Ordezkariek ez dute iritzi propiorik defendatuko, arazo bat dagoen bakoitzean batzarrarekin hitz egin beharko dute. Borondate orokorraren eraketak etengabeko kontsultak eskatzen ditu, eta hiritar guztien etengabeko parte-hartzea.

297. **Legedia** memento egokian egin behar da, eta usteldu gabeko antzinako herri bat da hori lortzeko egokiena. Eguraldia, lurraldea, haren zabalera eta ezaugarriak kontuan hartu behar dira. Herriaren tradizioek eta ohiturek aukerak mugatuko dituzte. Hainbat herri daudenez gero, hainbat borondate orokor egongo dira, bizitzeko estilo ezberdinak sortuko dira.

298. **Gizarte-erlijio** bat egotea beharrezkoa da, errebelaturiko erlijioez gain, gizartea ongi ibil dadin. Gizarte-erlijio horrek elkartze-sentimenduetan oinarritu behar du. Ezin da horretan sinestera inor behartu, baina horretan sinesten ez duena erbesteratua izan daiteke. Beharrezkoa da gizarte-erlijio horren dogmak edo sinesmenak gutxi, sinpleak eta zehatzak izatea; honako hauek dira: Jainko ahaltsu, jakitun eta ongile baten existentzia, pertsona onen zoriontasuna eta gaizkileen zigortzea, gizarte-hitzarmena eta legeak errespetatzearen beharra, eta intolerantziaren bazterketa.

299. **Kristau-erlijioa** ezin da gizarte-erlijioa izan, kristau-erlijioak menpekotasuna eta dependentzia besterik ez duelako zabaltzen. Tiraniaren aldekoa da. Benetako kristauak esklabu izateko eginak daude; badakite hori, eta berdin die: bizitza honek balio gutxi duelako haientzat. Haientzako garrantzitsuena beste bizitzako paradisura joatea da, eta horretarako bide bat etsipena da.



*Kant*

**8**

## 8.1. GARAIA: ARRAZOIAK EMATEN DIGUN ARGIA

300. **XVIII. mendeko Prusian** bizi zen Immanuel Kant (1724-1804). Garai haietan, burgesia indartuz zihoan, eta oligarkia ahulduz, elkarren aurka borrokatzen ziren bitartean.

301. **Oligarkia** antzinako jaun feudalen oinordekoek osatzen zuten. Lur-jabetzatik eta armada kontrolatuzetik zetorkien boterea. Haien burua erregea zen. Erregeak gero eta aginpi-de gehiago eskuratu zuen, botere absolutuaren jabe egin arte, XVII. mendearen erdian.

302. **Absolutismoaren** pentsaera politikoa Europa osoan zegoen barreiaturik. Pentsaera hori San Agustinengandik zetorren. 1700 inguruan Frantziako Luis XIV.ak (Eguzki-erregea) eta Elizako Prelatua zen Bossuet-ek aldarrikatzen zuten. Haien ziotenez, botere mugagabea Jainkoarengandik zetorkion erregeari; hau da, Erregea Jainkoaren ministroa eta ordezkaria zen; eta horregatik, Jainkoak bakarrik epai zezakeen erregea. Bestalde, Luis XIV. ak ez zuen herriaren egoera txarra kontuan hartzen; esaten zuenez, «nire ondoren uholdea».

303. **Erljio anitz** zeuden Europako mendebaldean. 1517an Martin Luther-ek Aita Santuaren aurkako bere tesiak azaldu zituen, eliza baten atarian. 1530ean Augsburgoko Dieta Inperialak Luther-en tesiak onartu zituen. Geroztik katolikoek eta protestanteek arteko gerrak izan ziren Europa osoan. Katolikoak Aita Santuaren aldekoak ziren. Protestanteak haren aurkako protesta egiten zutenak ziren.

304. **Bere erregearen erlijioari** jarraitu behar zion herritar bakoitzak. Horrela zen 1555etik aurrera. 1555ean *Augsburgoko Erljio Bakea* sinatu zen, katolikoek eta protestanteek artean, eta bertan «Cuius regio, eius religio» («Halako erregea, haren erlijioa») printzipioa ezarri zen, zeinen arabera, herritar bakoitzak bere Erregearen erlijioari jarraitu behar zion, derrigorrez. Beraz, Erregea katolikoa bazen, haren mendekoek ere katoliko izan behar zuten; eta Erregea protestantea bazen, haren mendekoek ere protestante izan behar zuten.

305. **Burgesia indartzen** ari zen XVII. mendetik. Burgesiak manufakturak eta merkataritza kontrolatzen zituen. Ekonomia berriaren funtsezko indarra zen burgesia. Baina ez zeukan botere politikorik. Parlamentuen bitartez eskuratuko zuen, erregeen eta oligarken aurka borrokatuz.

306. **Burgesiaren iraultzak** burutu ziren Ingalaterran eta Frantzian, Jainkoaren ordezkari omen ziren erregeen aurka. Burgesek kontrolaturiko Parlamentuek erregeak epaitu eta heriotzaz zigortu zituzten: Ingalaterrako Karlos I.a 1649an; eta Frantziako Luis XVI.a 1793an. Bestalde, AEBk 1776an lortu zuen independentzia, eta erregetzarik gabeko agintaritza demokratiko bat ezarri zen, ingelesen aurkako guda irabazi ondoren. Hango konstituzioak Lockeren filosofiari jarraitzen zion.

307. **Despotismo Ilustratua** hau izan zen: oligarkiaren eta burgesiaren arteko borroka eman zitzaion beste irteera bat, irteera ez-iraultzaile bat. Prusian, Austrian, Italian, Espainian eta Portugalen gauzatu zen. Erregearen despotismo zaharra bera zen, baina jakitunagoa, ilustratua hain zuzen ere. Despotismo Ilustratu horrek herriaren ongizate ekonomikoa eta zoriontasuna lortu nahi zituen, baina demokrazia gabe, eta monarkiaren botere absolutua mantenduz. Hauxe izan zitekeen bere lema: «herriarentzat, baina ez herriarekin».

308. **Prusiako Federiko II.a** (1740-1786), *Handia* deitua, europar Despotismo Ilustratuaren eredu garrantzitsua izan zen. Hauek guztiak egin zituen: estatua goitik behera eraberritu, estatuaren zentralismoa areagotu, zergak ordainarazi nobleziari, Europako armada indartsuena eratu; arteak, letrak eta zientziak babestu; nekazaritza, abeltzaintza eta unztzigintza bultzatu; nekazarien bizi-baldintzak hobetu, baina morrontza feudaletik askatu gabe.

309. **Jainkoari buruzko eztabaida** asko zeuden Kanten garaian, hori baitzen Erregeen aginte absolutuaren euskarri edo justifikazio ideologikoa. Lau jarrera nagusi zeuden: Frantziako materialistena, Alemaniako arrazionalistena, Alemaniako pietistena eta Ingalaterrako enpiristena.

310. **Frantziako materialistek** (La Mettrie, Helvétius, Condillac) ez Jainkorik, ez arimarik ezta askatasun moralik ere ez dagoela defendatzen zuten. Haien ustez, gizakia eta unibertsoa makinak gisa funtzionatzen duten izpiriturik gabeko materia dira.

311. **Alemaniako arrazionalistek** (Wolff) Jainkoa, hilezkortasuna eta askatasuna badaudela frogatu daitezkeela esaten zuten, eta horrela kristautasuna defendatzen zuten.

312. **Alemaniako pietistak** luteranismoaren adar bateko kideak ziren. Pietistek Wolff arrazionalista erbesteratzea lortu zuten. Jainkoarengan sinesten zuten, noski, baina haren existentzia arrazionalki frogaezina zela zioten. Arrazionalisten dogmatismoa salatzen zuten. Kant ez zen elizara joaten, baina pietista zen sinesmenez, amaren eraginez.

313. **Ingalaterrako enpiristek** (Locke, Hume) hau aldarrikatzen zuten: Jainkoari, hilezkortasunari eta askatasunari buruzko ezaguera ziurrik ezin dugula izan, gure esperientzietan agertzen ez direlako. Gainera, plazerraren bila ari den moral bat eraiki zuten, eta politikan demokrazia parlamentarioa bultzatu zuten.

314. **Kantengan eragin** handia izan zuten, baita ere, Alemaniako pietismoaz gain, Newtonek, zientzia-arazoei dagokienez, eta Rousseauk, moralari dagokionez. Honako hau da Kanten pentsaera:

## 8.2. GIZAKIA: MORALAREN BEHARRA

315. **Moralaren beharra** dugu; bera gabe galduak egongo ginateke, berak esaten digulako zer egin behar dugun, harremanetan bereziki. Baina morala egon eta bete ahal izan dadin, alde zuzenetik baldintza batzuk bete behar dira, *moralaren baldintzak* hain zuzen ere.

316. **Moralaren baldintzak** honako hauek dira: askatasuna, Jainkoa eta hilezkortasuna. Morala egoteko, beharrezkoa da gizakia askea izatea. Morala bete ahal izateko, beharrezkoak dira Jainkoa izatea eta gizakiaren arima hilezkorra izatea.

317. **Askatasuna** helburuak erabakitzeke ahalmena da. Morala egoteko, beharrezkoa da gizakiok askeak izatea. Askatasunez arituko ez bagina, makina gisa arituko ginateke, egin beharrezkoa nahitaez egiten, eta moralak ezingo lituzke gizaki onak eta gaiztoak bereziki, makina bat ona edo gaiztoa den esateak zentzurik ez duelako. Bestela esanda: gizakia ona ala

gaiztoa den epaitzean, lehendabizi askea dela pentsatzen da; eta ona ala gaiztoa dela erabakitzeke derrigorrezkoa da askea dela pentsatzea.

318. **Hilezkortasuna** beharrezkoa da gizakiak lege morala osoki onar eta bete dezan. Mundu honetan ezin du inork lege morala osoki eta perfektuki bete. Beraz, beste munduan guztiz bete ahal izateko arimaren hilezkortasuna behar da.

319. **Jainkoa** egotea beharrezkoa da, ona izatea eta zoriontsu izatea bateratu ahal izateko. Gizaki onak zoriontsu izateko eskubidea dauka, baina bizitza honetan gaiztoa izan daiteke zoriontsuena. Nola elkartzen dira orduan ona izatea eta zoriontsu izatea? Era bakar batez elkar daitezke: guztiz ona eta jakintsua den Jainkoa egonda; berak egingo baititu zoriontsu on guztiak, gorputza hil ondoren arima hilezkorrak edukiko duen hurrengo bizitzan.

320. **Antinomiak** elkarren aurkako arrazoiak dira (anti = aurka, nomia = lege edo printzipio arrazionala). Moralaren baldintza bakoitzeko antinomia bat dago. Morala egoteko eta bete ahal izateko, aipaturiko hiru baldintzak bete behar dira: askatasuna, Jainkoa, hilezkortasuna. Baina betetzen al dira benetan? Askeak gara? Hilezkorra da arima? Ba al dago jainkorik? Arrazionalistek baietz «frogatzen» zuten eta materialistek ezetz. Haien elkarren aurkako argudioek antinomiak osatzen zituzten.

321. **Askatasunaren antinomia.** Arrazionalistek hau zioten: naturan agintzen duen beharrezko kausalitateaz gain, askatasuna ere badago. Ez balego, gertatzen den edozer gauza, aurreko kausa batek baldintzatuko luke, eta kausen katea infinituraino luzatuko litzateke, baina kausen katea infinitua izatea zentzugabea da. Beraz, beharrezkoa da askatasuna egotea. Materialistek hau zioten: askatasunik egongo balitz, kausalitatea ezinezkoa litzateke, eta orduan, ezingo genituzke gertaeren arteko loturak ulertu. Beraz, askatasunik ez dago, eta gertatzen den guztia naturako beharrezko legeek aginduta gertatzen da.

322. **Munduaren osotasuna eta Jainkoaren antinomia.** Arrazionalisten tesia: munduan zergati batzuek baldintzaturiko hainbat gertaera daudenez gero, zergati guztien sorburu izango den aurrebaldintzarik gabekoa eta guztiz beharrezkoa izango den izaki bat egotea beharrezkoa da; Jainkoa, hain zuzen ere (Aristotelesen higitzaile geldiaeren antzera). Materialisten antitesia: ezin da zergatirik gabeko izakirik egon. Zergati batek beste zergati bat du; eta horrek beste zergati bat. Horrela, zergatien katea infinitua da, eta mundua amaiera gabekoa da, beraz. Baina horrek ez du esan nahi mugimendua bere sorburutik honaino helduko ez zenik, inertziaren legeak agintzen duelako (Galileok eta Descartesek susmatu zuten moduan), eta lege horren arabera, bultzatzailearik gabeko mugimendurik egon daitekeelako (unibertsoaren mugimendu-kantitate osoa beti izango da berdina).

323. **Moralaren aginduak** zein diren ikusteko, antinomiak konpondu behar dira lehendabizi. Geroago ikusiko dugu antinomiak nola konpontzen diren, eta moralaren edukia zein den. Horretarako, lehendabizi, ezagutzaren teoria aztertu behar da.

### 8.3. EZAGUTZA: EZAGUTU EZINEZKO GAUZA BERA

324. **Ezagutzaren teoria** argitu behar da, moralaren baldintzei buruzko antinomiak konpondu ahal izateko.

325. **Ezagutzaren osagarriak** bi dira: batetik, ezagutzaileari bideratzen zaizkion esperientziaren datu materialak daude; bestetik, ezagutzaileak dituen ezagutzeko formak edo moldeak. Argiak iragazki eta lenteak zeharkatzen dituen bezala, datu materialak ezagutzailearen formatatik pasatzen dira. Beraz, ezagutza-formek antolatu eta itxuratu egiten dituzte datu materialak.

326. **Ezagutzeko formak** edozein esperientzia baino lehen ditu ezagutzaileak (jaiotzaz nolabait), eta haiek gabe ezingo luke inolako esperientziarik eduki, begirik gabeko edonork ikusi ezin duen moduan. Beraz, ezagutzeko moldeak *a priorizkoak* dira; hau da, esperientziaren aurrekoak, eta gainera, unibertsalak dira; hau da, guztiontzat berdinak.

327. **Ezagutzak** lortzen ditugu, datu materialak geure ezagutza-formetatik pasatu ondoren. Horregatik, ezagutzak *a posteriorizkoak* dira; hau da, esperientziaren ondorengoak. Ezagutzei «fenomeno» esango diegu, geure baitan ditugun agerpenak direlako (fenomeno = agertzen dena, ezagutzailearengan agertzen dena).

328. **Gauza bera** honako hau da: datu enpiriko materialak sortu omen dituen, alegia. Baina, ez ditugu datu enpiriko material horiek zuzenean ezagutzen, *a priorizko* ezagutza-formek moldatu ondoren baizik. Beraz, ezin dugu esan, gauza berari buruz, den moduan ezagutzen dugunik. Ez dakigu gauza bera nolakoa den; baina badagoela pentsa dezakegu; egongo ez balitz, ezagutzetan ezer agertzen ez dela ondorioztatuko baikenuke eta hori zentzugabea baita. Gauza berari «noumeno» esaten zaio (nou = pentsatua, meno = gauza; noumeno = pentsaturiko gauza; hau da, munduan dagoela pentsatzen duguna, eta ez fenomenoan agertzen zaiguna).

#### 8.4. IZANA: PENTSATUTAKO GAUZA BERA

329. **Metafisika** jakintza bat da, Jainkoa, arima eta munduaren osotasuna aztertzen dituen jakintza, hain zuzen ere. Zer jakin dezake Metafisikak gai horiei buruz? Erantzuteko, metafisika egiteko bi era bereizi behar ditugu: tradizionala eta traszendental (azken hori Kantek berak sortua).

330. **Metafisika tradizionalak** Jainkoa, arima eta unibertsoaren osotasuna geure burutik kanpo ere badirela frogatu nahi du. Baina ezin da hori frogatu. Zergatik? Gai horietan ezagutzaren osagarri materiala falta zaigulako; datu enpirikoena hain zuzen (hori enpiristekin bat dator). Beraz, metafisika tradizionalak ezin du zientzia ziurra izan, gure burutik kanpo omen dauden haren aztergaiak ezagutu ezin direlako.

331. **Metafisika traszendentalarentzat**, ordea, Jainkoari, arimari eta munduaren osotasunari buruzko ideiak arrazoimenaren pentsamoldeak dira, eta *a priorizkoak*; hau da, edozein esperientzia baino lehenago ditugun pentsamolde batzuk. Horrela, metafisikaren aztergaiak pentsamoldeak direla onartuz, metafisika zientzia segurua izan daiteke. Baina geure pentsamoldeez hitz egiten digu, eta ez pentsamenduaren kanpoko gauzez. Metafisika traszendentalari esker, moralaren antinomiak konpontzea lortzen da.

332. **Askatasunaren antinomiaren konponketa** honela lortzen da: arima bera, noumeno delarik, nolakoa den jakin ezin dugunez gero (arrazionalisten aurka), badela eta askea

dela sinets dezakegu (materialisten aurka). Sineste hori ez da benetako ezagutza, fede arrazionala baizik (pietistekin bat). Horrela posible da moralala egotea, moralak arima askea izatea eskatzen duelako. Morala posible izateko, metafisikaren jakintza murriztu egin behar izan dugu, eta fedeari lekua egin. Bestalde eta era berean, arima hilezkorra dela sinets dezakegu, beharrezkoa den moralala hurrengo bizitzan osoki bete ahal izateko.

333. **Munduaren osotasuna eta Jainkoaren antinomiaren konponketa** honela lortzen da, fede arrazionalaren bitartez: munduko gertaera guztiak, baldintzatuta ezagutzen ditugu; hau da, zergati batzuen ondorio gisa ezagutzen ditugu. Eta ezin dugu zergatien katearen amaiera ezagutu, baina badela sinets dezakegu. Ondorioz, munduaren osotasuna mugatua dela eta haren amaieran Jainkoa badela sinets ditzakegu.

334. **Sinesmen arrazionalaren** bitartez, askeak garela, arima hilezkorra dela, mundua mugatua dela eta Jainkoa badela sinets ditzakegu. Ondorioz, posible da moralala egotea eta betetzea.

335. **Moralaren aginduak** zein diren orain «jakin» dezakegu sinesmen arrazionalaren bitartez. Moralaren agindu nagusia hiru eratara ager daiteke: 1) Joka ezazu, zure borondatearen aginduak beti legedi unibertsal baten agindua izan ahalko duen eran. 2) Joka ezazu, gizatasuna —zurea eta besteena— beti helburu bat eta inoiz ez tresna soil bat izango den eran. 3) Joka ezazu, borondateak, bere aginduaren bitartez, bere burua legegile unibertsaltzat hartu ahalko duen eran (hirugarren era hori mendekoak ez diren legegileentzat pentsatua dago).

## 8.5. GIZARTEA: ARRAZOITU BAINA OBEDITU

336. **Ilustrazioa** beste norbaiten gidaritzaz gabe pentsatzeko ezintasunetik askatzea da. Ezintasun horren zergatia ez da adimenik eza; norberaren pentsatzeko ausardiarik eza baizik. Horregatik, hauxe da Ilustrazioaren lema: ausart hadi hik heuk jakitera!

337. **Zer behar da Ilustrazioa lortzeko?** Gauza bakar bat baino ez: norberaren arrazoiak publikoki erabiltzeko askatasuna zientziaren, artearen, erlijioaren eta politikaren arloetan. Aldiz, askatasun hori mugatua egoten da, alde guztietatik. Ofizialak dio: «Ez arrazoitu eta egizu agindutakoa». Zerga-biltzaileak: «Ez arrazoitu eta ordaindu». Apaizak: «Ez arrazoitu eta sinetsi».

338. **Askatasuna** behar da Ilustrazioa lortzeko, baina zenbateko askatasuna? Arrazoiaren bi erabilera mota daude: «publikoa» eta «pribatua». Publikoa pertsona aditu gisa egiten dena da. Pribatua funtzionario gisa egiten dena. Arrazoiaren erabilera publikoa ezin da mugatu, askea izatea beharrezkoa da. Baina pribatua bai, mugatu egin daiteke; aginduak bete behar direnean beteko ez balira, gizarte-nahasketa handiak sortuko lirakeelako. Beraz, «nahi duzuen guztia eta nahi duzuen guztiaz arrazoitu, baina obeditu».

339. **Politikan**, «Cuius regio, eius religio» («Halako erregea, haren erlijioa») printzipioa ezabatu beharko litzateke, eta erlijio-askatasuna ezarri. Herriaren borondatea ordezkatzeko duten gobernuak ezarri beharko lirakeke. Frantziako Iraultza eta Estatu Batuetako independentzia aurrerakoiak dira. Burgesiak aldarrikatzen duen askatasun politikoa behar

da. Alabaina, ezin da indarkeriazko iraultzarik onartu. Federiko Handiaren Despotismo Ilustratua goraiatzekoa da.

340. **Aginpidearen banaketari** dagokionez, herriak (burgesak) legedia egiteko aginpidea eduki beharko luke, parlamentuen bitartez. Agintzeko era zuzenena errepublika monarkikoa da. Errepublika esaten zaio, agintea banatua duelako, legegilearen, betearazlearen eta epailearen artean. Monarkia esaten zaio, botere betearazlea erregeak duelako. Botere legegilea parlamentuak du, eta herriak aukeratzen ditu parlamentarioak, baina ezin dute herritar guztiek botoa eman, bakar batzuek baizik. Erregeak legea bete behar du, baina betetzen ez badu, herriak ezin du erregea epaitu ezta iraultzarik egin, obeditu egin behar du.

*Marx*

**9**



## 9.1. GARAIA: INDUSTRIA IRAULTZA

341. **Industria Iraultza**ren garaian bizi zen Marx (1818-1883). Industria Iraultza Ingalaterran sortu zen. Han, lurrun-makinari esker, hirietako lantegi handiak sortu ziren, eta horien eraginez, aldaketa handiak gertatu ziren bizitzeko eran: gizarteko lanaren banaketa aldatu egin zen, lan-baldintzak txartu egin ziren hasieran, eta horiek hobetzeko langileen elkarteak sortu ziren.

342. **Lanaren banaketa** aldatu egin zen Industria Iraultzan. Lur-jabe aberatsenek lantegi handiak jarri zituzten hirietan eta alokatutako lurrak kendu egin zizkieten nekazari-morroiei. Ondorioz, nekazari-morroiek hirietako lantegietara joan behar izan zuten, lan bila. Nekazari kopurua gutxitu egin zen, eta langile kopurua handitu.

343. **Lantegietako lan-baldintzak** txarrak ziren. Gas-argia asmatu ondoren, eguneko lanaldia 14 ordukoa zen. Haurrek ere lan egiten zuten; adibidez, meategietan, zulo estuetan errazago sartzen zirelako. Ez zen orduko ordaintzen, ekoitziriko produktu bakoitzeko baizik. Gainera, langabezia eta pobrezia izugarri handitu ziren.

344. **Langileen elkarteak** lantegietako lan-baldintza txarren aurka borrokatzeko sortu ziren. Elkarturiko langileek beren eskaerak azaltzen zizkieten lantegietako jabeei. Baina jabeei ez zitzaizkien gustatzen, eta Britainiar Parlamentuak debekatu egin zituen langileen elkarteak 1800ean. Debekuak 1824ra arte iraun zuen.

345. **Industria Iraultza zabaldu** egin zen Ingalaterratik Alemaniara, Frantziara, Belgikara eta Europako beste herrialde batzuetara. Marx leku horietan guztietan ibili zen, erbesteratuta; beraz, zuzenean ezagutu zituen garaiko gizarteak.

346. **Engels** industrialari aberats bat zen, baina ideologiaz komunista zen, eta Marxen lagunik minena. Engelsek laguntza ekonomiko handia eskaini zion Marxi, Marx erbesteratuta zebilen bitartean. Bien arteko posta-trukea oparoa izan zen.

347. **Marx politikan** ere aritu zen, filosofian eta ekonomian aritzeaz gain. Marxek zioenez, filosofoek mundua interpretatu baino ez dute egiten; eta egin behar dena mundua aldatzea da. Komunisten Liga bultzatu zuen, eta Langileriaren Lehenengo Internazionala antolatu zuen (1864). Marxek berak sorturiko lema ospetsua errealitate bihurtu nahian zebilen Marx: «munduko proletarioak elkartu zaitezte».

## 9.2. IZANA: MATERIAREN HISTORIA

348. **Zergatik ditu garai bakoitzeko gizarteak, dituen legeak eta ez beste batzuk?** Hegel-ek zioenez, gizartearen sinesmenek erabakitzen dutelako zer-nolako legeak egongo diren. Baina Marxen ustez, legeen izaera ez dute sinesmenek erabakitzen, bizi-baldintza materialek baizik; hau da, egoeraren ezaugarri ekonomikoek.

349. **Historiaren ikuskera materialista** defendatzen du Marxek. Ikuskera horrek dioenez, gizarte bakoitzeko legeak ulertzeko, aurrena gizarte horren bizi-baldintza materialak (ekonomikoak) ulertu behar dira.

350. **Ekonomia Politikoa** da bizi-baldintza material horien azterketa egiten duen zientzia (gaurko ekonomia). Eta, beti ere Marxen arabera, Ekonomia Politikoak hau esaten digu: kapitalismoaren porrota eta langileriaren iraultza etorriko direla. Gero ikusiko dugu nola.

351. **Lana beharrezkoa** da. Lanaren bitartez sortzen dute gizakiek beren existentzia. Lanik gabe ezin da bizi. Lan egin gabe pertsona asko bizi dira; baina horiek beste pertsona batzuen lanari esker bizi dira. Izan ere, ahora sartzen den janari guztia lanaren bitartez sortzen baita. Garbi dago, beraz, lanaren derrigortasuna.

352. **Produkzio-indarrak** lana egiteko erabiltzen diren bitarteko materialak dira: lurra, garraio-bideak, teknologiak, lantegiak, tresnak, eskuaren indarra, eta abar. Horien osaera berezia da leku eta garai bakoitzean; adibidez: Erdi Aroan nekazaritza zen nagusi, eta Aro Modernoan lantegiak.

353. **Elkarrekiko lana** da, berez, lana; hau da, banakako lanik ez dago benetan. Produkzio-indarrak erabiliz, gizakiok egiten dugun existentziaren sorkuntza ez da indibiduala, soziala baizik (adibidez: etxe bateko leihoak margotzen ari naiz. Bakarka ari naiz aldi horretan. Baina, nik egin dut pintura? Nork prestatzen dit janaria nik margotzen dudanean? Norenak dira leihoak?).

354. **Produkzio-harremanak** lan egiteko gizakiok sortzen ditugun harremanak dira. Borondatek kanpokoak dira (adibidez: langile askok begiratu gabe sinatzen dute enpresariak aurkezten dien lan-kontratua, azken finean beste aukerarik ez dutelako).

355. **Produkzio-harremanak aldatu** egiten dira historian zehar, baina beti egon dira bi klase: esplotatzaileak eta esplotatuak. Horrela, Antzinaroan libreak eta esklaboak zeuden, Erdi Aroan jaunak eta morroiak, Aro Modernoan burgesak eta proletarioak. Bikote horien barne-harremanak ezberdinak ziren; bakoitzak bere berezitasunak zituen: Librearen esklaboaren bizitzaren jabea zen. Jaunak kobratu egiten zion morroiari, morroiak jaunaren lurretan lan egin ahal izateagatik. Burgesak soldata ordaintzen dio proletarioari, proletarioak lana egin diezaion.

356. **Historiaren motorea** klase-borroka da. Produkzio-harremanetan esplotatzaileak eta esplotatuak beti aritu dira elkarren aurka etengabeko gerran: libreak eta esklaboak elkarren aurka, jaunak eta morroiak elkarren aurka, burgesak eta proletarioak elkarren aurka aritu dira beti.

357. **Zergatik aldatzen dira produkzio-harremanak historian zehar?** Produkzio-indarren erabilera emankorrena gauzatzera jotzen delako; hau da, bikote bakoitzak produkzio-indar ezberdinak dituelako, eta era emankorrean erabiltzeko antolatu behar duelako bere harremana. Beraz, produkzio-indarrek baldintzatzen dute produkzio-harremanak nolakoak izango diren, eta, harremana aldatu behar bada, bikote bateko garailea zein izango den.

358. **Produkzio modua** produkzio-indarren eta produkzio-harremanen multzoa da. Hura da Ekonomia Politikoaren aztergaia. Ekonomia Politikoak gizakien arteko produkzio-rako harremanak aztertzen ditu, eta haien oinarrian dauden produkzio-indarrak.

359. **Determinismoaren** arabera gertatzen da historiaren garapena. Produkzio-indarrek produkzio-harremanak baldintzatzen edo determinatzen dituzte. Eta gero harremanek legedia eta sinesmenak baldintzatzen dituzte (adibidez, Erdi Aroko ideologiak zioenez, erregeak Jainkoaren ministroak ziren; baina hori morroien gaineko jaunen agintaritza ziurtatzeko zen). Beraz, borondatek kanpoko errealitateak kontzientziaren edukiak baldintzatzen ditu, eta ez, ordea, kontzientziak errealitatea. Hori historiaren ikuskera materialista agertzeko beste era bat da.

### 9.3. GIZAKIA: TALDE LANA

360. **Gizakiaren naturaren** esentzia edo mamia lana da, eta lan hori elkarlana da beti ere. Gizakiak ezin du bakarrik bizi, taldean bizi behar du, talde-lanaren bitartez bizi-tza aurrera ateratzeko. Elkarlana egiterakoan, bere borondatek kanpo dauden harreman ekonomiko eta politikoetan sartzen da gizakia. Harreman horiek aldatu egiten dira historian zehar, gizakiaren natura eraldatuz. Nola antolatzen da talde-lana geure gizarte kapitalistan?

361. **Gizarte kapitalista** Industria Iraultzatik sortutako gizartea da. «Kapitalista» esaten zaio kapitalaren metaketa delako bere funtsa. Kapitala aberastasun gehiago sortzeko aberastasunari esaten zaio; adibidez, nekazaritza-lurrak, lantegiak, makinak, diru guztiaren zati batzuk, eta abar, kapitala dira.

362. **Bi klase sozial** daude borrokan gizarte kapitalistan: burgesia (enpresariak edo kapitalistak) eta proletalgoa (langileak eta langabeak). Burgesak ondasunak produzitzeko indarren jabeak dira (lurrak, lantegiak, teknologia). Gizarte kapitalistaren oinarria burgesek duten produkzio-indarren jabetza pribatua da. Proletarioak, berriz, beren gorputzeko lan-indarra besterik ez dutenak dira. Baina, burgesiaren amilera eta proletalgoaren garaipena nahitaezkoak dira.

363. **Lanaren salerosketa** da burgesen eta proletarioen arteko produkzio-harremanaren ezaugarria. Gizarte burgesaren ideologiak esaten digunez, pertsona guztiak libreak dira. Baina proletarioak beharturik daude burgesi lana saltzera, bestela gosez hilko bailirateke. Burgesek erosi egiten dute lan hori, eta langileen lanaz jabetzen dira, soldata bat ordainduz.

364. **Produktu berriak sortzen** dituzte burgesek langileei erositako lanarekin. Produktu berriok langileek gauzaturiko lana baino ez dira. Zer dago produktu batean, bertan gauzatutako lanaz gain? Ezer ez. Pentsa daiteke, makinen lana ere badagoela produktuetan sartuta, baina makina horiek ere, langileen lanaz egin dira azken finean.

365. **Produktuak saldu** egiten dira gero. Burgesak saltzen ditu, eta orduan langileei ordaindu dien soldata baino gehiago eskuratzen du, produkzio-kostuei berarentzako irabazia eransten baitie.

366. **Irabazia** egoteak hau esan nahi du: burgesek ez dietela langileei lanak balio duen guztia ordaintzen, gutxiago baizik. Langileen lanaren fruitu den baina burgesak bereganatzen duen zati horri plusbalioa deitzen zaio (gehitutako balioa). Plusbalioa eta irabazia gauza bera dira.

367. **Produktibitatea** ekuazio honen bitartez ager daiteke: produktibitatea berdin sortutako produktua zati horretarako behar izan diren kostu guztiak; kostu horiek, adibidez, lanordutan neurtuta. Teknologia eta antolaketa hobeen bitartez, burgesak produktibitatea handitzea lortuko du; hau da, produktu gehiago ekoiztea lan berdina eginez. Horrela, produktu bakoitza merkeago saldu ahal izango du, eta ondorioz, gehiago salduko du, jendeak merkeen saltzen duenari erosten diolako.

368. **Lehia** bat dago enpresen artean, ea nor produktibitatea gehiago handitu. Gehien handitzen duenak merkeago sal dezake. Eta hori lortu ez duten beste burgesek hasierako prezio garestiagoan saltzen jarraitu beharko dutenez, ezingo dute saldu, jendeak merkeen saltzen duenari erosten diolako. Beraz, produktibitatea areagotu ez duten burgesek porrot egingo dute; produktibitatea handitu duenak, aldiz, askoz gehiago saldu ahal izango du, eta are aberatsago egingo da.

369. **Kapitalaren metaketa** gertatzen da lehiaren ondorioz; hau da, kapitala (produktzio-indarrak) gero eta burges gutxiagoren artean banatuko da, gero eta metatuagoa edo bilduagoa izango da. Etengabeko lehiaren irabazleak gero eta gutxiago eta aberatsago izango dira.

370. **Soldatak jaistea** enpresen arteko lehiaren beste ondorio bat da. Porrot egin duten burgesen langileak langabe bihurtzen dira. Irabazle atera den burgesak ez du langile gehiago behar, produktibitatea handitu duelako hain zuzen. Ondorioz, langabetuen kopurua etengabe gehituko da. Eta lan egiten dutenei soldata jaitsiko zaie, onartzen ez badute, langabeturen batek onartuko duelako.

371. **Pobrezia handitzea** etorriko da gero, soldatak jaistearen ondorioz. Proletalgoa esplotatzeko, bizirik irauteko eta bere burua birproduzitzeko (hilko den langilearen orde bestea bat jartzeko), gutxieneko baldintzak (janaria, jantziak...) bermatu behar zaizkio proletalgoari. Baina kapitalismoan langabezia handitu egiten da eta soldatak jaitsi egiten dira. Bitartean, populazioa handitu egiten da. Eta horren guztiaren ondorioz, pobrezia handitu egingo da, egoera jasangaitza izatera iritsi arte.

#### 9.4. EZAGUTZA: IDEOLOGIA ALIENATZAILEEN KRITIKA

372. **Kontzientzia argitu** behar da, gizartearen benetako egoera ezagutzera heltzeko. Horretarako, kontzientziak arrazoiaren kritikaren mende jarri behar ditu gizakiak berak gizartearen duen lekuari buruzko sinesmenak.

373. **Ideologia**, oro har, gizartearen dugun lekuari buruzko sinesmenen multzoa da (funtzioa, sariak...). Sinesmen horiek zuzenak ala okerrak izan daitezke. Baina, zentzu hertsia batean, «ideologia» sinesmen okerre esaten zaie. Edozein kasutan, norberaren ideologia gizartearen ondorio bat da. Gizarteak benetako bizitzaren hizkuntza gisa aurkezten digu ideologia. Ideologiaren garapen historikoa ez da berez gertatzen, gizartearen baldintza materialen arabera, baizik.

374. **Ideologia faltsuen helburua** gizartearen benetako egoera bat ezkutetzea eta, horren orde, besteren bat dagoela sinestaraztea da. Ezkutatu nahi den egoera alienazioa izaten da.

375. **Alienazioa** norberarentzat izatearen ordeztan beste batentzat izatearen ezaugarria da. Langilea patrioiarentzat da, berarentzat egiten duela lan, eta patrioiak plusbalioa kentzen diolako. Politikan, gizabanakoa estatuarentzat izaten da, estatuari ematen diolako bere askatasuna, horrek legeak ezar ditzan. Erljioan, fededuna zeruko munduarentzat bizi da, mundu honetako bizitza hobetzeko bizi ordeztan.

376. **Erljioaren jatorria** ez dago sentimendu mistiko edo horrelakoetan, baizik eta bizitzaren miserian. Erljioa herriaren opioa da, proletarioen sufrimendua pairatzeko droga.

377. **Filosofia** ere alienatzailea izan daiteke, errealitatea faltsutasunez interpretatzen badu eta errealitatearen eraldaketa baztertzen badu. Orain arte, filosofoek mundua interpretatu besterik ez dute egin, baina egin behar dena mundua aldatzea da.

378. **Alienazioaren ondorioz**, gizakia merkantzia edo tresna bihurtzen da, askatasunik gabeko animalia bihurtzen da, eta gizatasunaren duintasuna galtzen du.

379. **Kontzientziaren argitzapena** kritika arrazionalaren bitartez lor daiteke. Proletarioek beren egoeraren kontzientzia zuzena bereganatzen dutenean, klase-kontzientzia lortuko dute; hau da, klase baten kideak direla ikusiko dute.

380. **Klase-kontzientzia** klase sozial baten kide izatearen sinesmen kontzientea da. Klase-kontzientzia lortuko du proletarioak bere egoera jasangaitzaz jabetzen denean, eta burgesen aurkako klase bat osatzen duela ikusten duenean. Orduan, hau da, klase-kontzientzia bereganatzen duenean, iraultza bultzatuko du proletarioak.

## 9.5. GIZARTEA: DIKTADURAREN BITARTEKO ASKATASUNA

381. **Iraultza** biolentziaz lortuko da, eta garaipena eta boterea lortutakoan, proletarioaren diktadura ezarriko da. Horrela, proletarioek burgesi ondasun guztiak kenduko dizkiete (produktio-indarrak bereziki), eta ondorioz, gizarte osoa ondasun horien jabe bihurtuko da. Klase sozialaren arteko desberdintasunak ezabatuko dituzte, eta langilez bakarrik osaturiko gizarte bat eraikiko dute.

382. **Etorkizunean erljioa** baztertu egingo da iraultza politikoaren ondorioz. Kapitalismoan langileak sufrimenduz bizi dira burgesen mende. Oinazea jasan ahal izateko zeruko erreinuan eta Jainkoagan sinesten dute. Erljioa herriaren opioa da, sufrimendua gozatu eta pairagarriagoa egiteko droga. Baina gizartearen jabe egiten direnean, proletarioek ez dute gehiago sufrituko eta erljioaren drogaren beharrik ez dute izango.

383. **Historiaren amaiera** ez da proletarioaren diktadura, komunismoa baizik. Proletarioaren diktaduran, klase bakarra geratu denez, klase arteko borroka desagertu egingo da. Ondorioz, ez da indarkeria behar izango. Indarkeriarik gabeko gizarte hori gizarte komunista izango da: historiaren helmuga.

384. **Komunismoan**, gizaki guztiak askeak izango dira, bakoitza askea izango delako. Bakoitzari bere ahalmenen arabera eskatuko zaio, eta bere beharren arabera emango zaio.

385. **Komunismoaren etorrera** derrigorrezkoa zela ulertu zuen Marxek. Hau da, Marxen ustez, komunismoa derrigorrez etorriko da, kapitalismoaren barneko indarrek horretara daramatelako, ekonomiaren eta historiaren legeei jarraituz. Nahiz eta Marx sozialismo utopikoaren kritikoa izan, haren jarraitzaile batzuek, utopia gisa ulertu zuten komunismoa, derrigorrez datorren zerbait baino. Utopiko horien arabera, komunismoa gizakiaren esperantzak biltzen dituen gizarte eredu bat da.

*Nietzsche*

**10**

## 10.1. GARAIA: BERDINTASUNAREN GORAKADA

386. **Nietzscheren garaia** Europako XIX. mendea da. Mende horri Iraultzen Garaia deitzen zaio, ekonomian, politikan eta kulturaren aldaketa handiak gertatzen direlako garai hartan, nahiz eta horietako batzuk XVIII. mendeko azken herenetik etorri. Ekonomian, Industria Iraultza gertatu zen; politikan, Frantziako Iraultza sendotzea; eta kulturaren iraultza. Horiekin batera Inperialismoa zabaldu zen.

387. **Industria Iraultzan**, lurrun-makinaren asmatetari esker (James Watt, 1769), hirietako lantegi handiak sortu ziren. Lantegien eraginez, aldaketa handiak gertatu ziren jendearen bizitzeko eran: lantegien jabeak aberastu egin ziren izugarri, eta langileen bizimoduak gogortu egin zen.

388. **Liberalismoaren** pentsaera zabaldu egin zen, lantegietako nagusiek onartu eta bultzatu zutelako. Liberalismoak (John Locke, 1690; Adam Smith, 1776) honako hau dio: jabeago pribatua eta merkataritzarako askatasuna oinarrizko eskubide naturalak dira, jaiotzaz ditugu. Estatuak egin behar duen gauzarik garrantzitsua horiek babestea da. Babes horren pean, norbanakoek berekoikeriaz jokatu, gizartearen ongizate orokorra lortzen da.

389. **Ilustrazioa** mugimendu kultural bat da (Kant, 1784). Elizaren dogmatismoaren aurka eta jaun feudalen tokian tokiko botereen aurka egiten du borroka. Pentsatzeko askatasuna, giza arazoimenaren nagusitasuna, hiritartasun unibertsala eta gizaki guztien berdintasuna bultzatzen ditu.

390. **Frantziako Iraultzaren** bitartez (1789), burgesek Estatuaren kontrol politikoa hartu zuten, errege eta aristokraten aurka borrokatuz, eta liberalismoaren eta ilustrazioaren ideologiei jarraituz. Burgesak Parlamentuaren nagusi egin ziren lehendabizi, eta gero Erregearen botereari Parlamentuaren boterea kontrajarri zioten. Orduan, Parlamentua aukeratzeko sistemak izugarriko garrantzia edukiko du.

391. **Sufragio murriztua** izan zen, Frantziako Iraultza ondoren, burgesek parlamentarioak aukeratzeko ezarri zuten lehenengo sistema (Frantziako Batzar Legegilea, 1791). Sufragio murriztu horren arabera, zentsu edo zerrenda berezi batean zeudenek bakarrik eman zezaketen botoa, eta zerrenda horretan aberatsak bakarrik zeuden. Horrela, burgesek Parlamentuak kontrolatzea lortu zuten. Baina hauteskunde-sistema hori aldatuz joan zen, burges eta langileen arteko borroken ondorioz.

392. **Erromantizismoa** (Wordsworth eta Coleridge, 1800) Ilustrazioaren aurkako kultur mugimendua da, nolabait. Ilustrazioaren arazoimenaren nagusitasunaren ordez, sentimenduen eta misterioen nagusitasuna bultzatzen ditu; pentsatzeko askatasunaren ordez, ikaratzeko ahalmena; hiritartasun unibertsalaren ordez, nazioaren edo herriaren berezitasunak. Batzuetan burgesen liberalismoaren adierazpen literarioa eta artistikoa da; baina gehienetan, ordea, Erregearen eta Elizaren aldekoa da.

393. **Langileen lan-baldintzak** txarrak ziren burgesek bultzatutako Industria Iraultza eta Frantziako Iraultzaren ondoren. Gas-argia asmatu eta gero, eguneko lanaldia 14 ordura igo zen. Haurrek ere lan egiten zuten; adibidez, meategietan, zulo estuetan errazago sartzen zirelako. Ez zen orduko ordaintzen, ekoizteriko produktu bakoitzeko baizik. Gainera, langa-



bezia eta pobrezia izugarri handitu ziren. Egoera latz hartatik irteteko eta beren eskaerak lantegietako jabeei azaltzeko, langileak elkartzen hasi ziren sozialismoaren inguruan, eta burgesak, aldiz, liberalismoaren inguruan.

394. **Sozialismoak** dioenez, berdintasun ekonomikoa garrantzitsuagoa da norberaren jabego pribatua baino, eta negoziatzeko askatasuna baino. Sozialismo mota ezberdinak daude, hala nola, utopikoa eta marxista. Utopikoek diotenez, langileen bizi-baldintzak bakean hobe daitezke. Marxistek diotenez, iraultza armatua behar da, langileen eskubiak gauzatzeko.

395. **Sufragio unibertsala** langileen borroken ondorioz lortutako Parlamentuetako kideak aukeratzeko sistema da. XIX. mendeko erdialdetik aurrera lortu zen, sozialista bake-tsuenei jarraituz. Sufragio unibertsal horren arabera, gizonezko guztiek eman ahalko dute botoa, eta horrela, langileentzako bizi-baldintza hobeak lortuko dira. XIX. mendearen amaieratik sufragismoa deituriko emakumeen mugimendua sortu zen, eta XX. mendearen lehenengo herenean eskuratu zuten emakumeek botoa emateko ahalmena.

396. **Positibismoa** Ilustrazioaren aldeko eta Erromantizismoaren aurkako filosofia bat da. Metafisikaren bazterketa, zientziaren ezagutzaren nagusitasuna, eta zientziaren eta teknologiaren bitarteko gizartearen aurrerapena bultzatzen ditu.

397. **Utilitarismoak**, positibismoaren ildoari jarraitzen dio. Zientzia eta teknologia goraiaputzen ditu, eta haien bitartez, ahalik eta gehienentzako zoriontasuna gauzatu nahi du mundu honetan, heriotzaz harantzagoko omeneko bizitza alde batera utzita.

398. **Inperialismoa** XIX. mendearen amaieran hasi zen Industria Iraultzaren ondorioz. Garaiko potentzia industrialak gero eta lurralde gehiago menderatzen hasi ziren, beren botere militarra indartzen zuten bitartean. 1914an munduko lur guztien %84a Britainia Handia, Frantzia, Alemania eta Ameriketako Estatu Batuetako inperio kolonialen mende zegoen.

399. **Arrazismoa** inperialismoa justifikatzeko zabaldu zen. Arrazismoak zioenez, arraza batzuk (zuriak) nagusi dira berez, eta besteak (beltzak, indioak, eta abar), ordea, mendeakoz berez. Bestalde, politikoa den arrazismo horrek, zientifikoa den darwinismoa hartu nahi du oinarritzat.

400. **Darwinismoak** hau dio: bizidunen espezieak espezie zaharrago batzuen garapenaren emaitza dira. Garapen hori honela gertatzen da: bizidunak borrokan daude, bizitzeko behar diren lehengaiak murriztagoak direlako beharrak baino. Noizean behin aldaketa anatomiko funtzionalak gertatzen dira zoriz, espeziaren bateko banako batzuetan. Bizitzeko borrokaren ondorioz, ingurunera hobekien egokitutako ezaugarri anatomiko funtzionalak dituztenek iraun egiten dute, eta beren seme-alabei transmititzen dizkiete ezaugarri horiek. Bitartean, ugaltzen ez direnen ezaugarriak desagertzerantz doaz. Zoriz agertutako ezaugarri berriak transmitituz, eta ezaugarri zahar batzuk desagertuz, espezieen ezaugarrien garapena gertatzen da.

401. **Aleman hizkuntzako** idazle handienetariko bat Friedrich Wilhelm Nietzsche da (1844-1900), Goethe-rekin batera. Honako hau da Nietzscheren filosofia:

## 10.2. EZAGUTZA: ARTISTA IZAN JAKITUN BAINO

402. Egia eta berdintasuna goreneko helburutzat jartzen dituzten pentsaera guztiak gogorki kritikatu zituen Nietzschek. Ideologia horien artean honako hauek daude: ilustrazioa, liberalismoa, sozialismoa, positibismoa, utilitarismoa, sufragismoa; eta platonismoa eta kristautasuna bereziki, aurreko guztien oinarriak direlako. Bestalde, darwinismoa ere kritikatu egin zuen.

403. **Erromantikoa** da Nietzsche, bere filosofiaren hasieran behintzat; hau da, arrazionalismoaren aurka dago. Nietzschek dioenez, bizitzaren muina (jaiotza eta heriotza, zabalteak eta murrizteak, ona edo txarra zer den, egin beharrekoa, eta abar) ezin da kontzeptuen bitartez ulertu, eta sentimendu tragikoaren bitartez atzematen da; hau da, sentimenduak eta irrikak dira bizitza zuzentzen dutenak eta zuzendu behar dutenak.

404. **Filosofoen gogo handiena**, eta zientzialarien gogo handiena ere, egia aurkitzea dela dirudi. Baina ez da horrela, zeren eta azken finean egia hori mundua menderatzeko lortu nahi baita; hau da, menderatzeko nahia da gogo gorenekoa, egia bilatzen dutenentzat ere bai. Eta bestelakoa pentsatzea, menderatzeko nahi hori ez onartzea, ustelkeria eta ahulkeria litzateke (hori Sokratesen intelektualismo moralaren aurka dago).

405. **Arrazoimena eta sentimenduak** irudikatzeko Apolo eta Dionisos jainko grekoak erabiltzen ditu Nietzschek. Arrazoimena Apolok irudikatzen du: argitasunaren eta neurri orekatuen jainkoa da. Sentimendu tragikoa Dionisos-ek irudikatzen du: gauaren, irriken eta neurrigabetasun sexualaren jainkoa da.

406. **Zein da bizitzaren muina atzeman dezakeena?** Ez da arrazoimenaren bitartez (Apolorena) egia bilatzen duen zientzialaria, artista baizik, artistak bizitzaren alde iluna, irriken aldea (Dionisosena), ikus dezakeelako. Egiaren bilatzaileek hau uste dute: hitzek benetako izaera aldaezinak izendatzen dituztela. Baina oker daude. Artistak bakarrik ikusten du mundua eta bizitza guztiz aldakorrek direla, etengabeki jariatzen dabilen erreka baten urak balira bezala (Heraklitoren alde).

## 10.3. GIZAKIA: AHULAK ETA INDARTSUAK

407. **Erljioa** boteretsuen aurkako ahulen matxinada da. Hasieran indartsuari ona esaten zitzaion, eta ahulari txarra; baina erlijioak egoera hori aldatu zuen, eta geroztik, indartsuari gaiztoa eta ahulari ona esaten zaie. Nietzsche erromantikoa da; erromantiko batzuek —adibidez Wagner— kristautasuna goraiatzaren dute, baina Nietzschek, ordea, kritikatu egiten du.

408. **Bi moral** daude orduan: mendekoen morala, erlijioak bultzatzen duena hain zuzen, eta jaun edo nagusien morala.

409. **Nagusien moralak** indarra, handitasuna, harrotasuna, norbere buruaren jabetasuna, sen eta desioak asetzera, balio estetikoak eta halakoak bultzatzen ditu. Hierarkia du oinarri. Bizitza indartzen du eta zibilizazioa aurreraratzen du. Nagusiak bere berezko naturatik sortzen ditu bere balioak. Adibidez, Napoleon eta Prusiako Federiko II.ak jarraitzen zioten moral horri.

410. **Mendekoen moralak** ahulezia, koldarkeria, etsipena, taldeko bizitza, gorpuzaren mesprezua, edertasun estetikoaren mesprezua eta horrelakoak goraiatzeko dituzte; eta indartsuari gaiztoa esaten dio. Berdintasuna du oinarri. Bizitza ahultzen du eta zibilizazioa atzerarazten du. Menderatuak beldurra dio nagusiari, eta beldur horretan oinarritzen ditu bere balioak. Adibidez, Jesus eta Buda dira mendekoen moral horren jarraitzaile.

411. **Kristau morala** mendekoena da. Trikimailu huts bat da, bizitzari odola xurgatzeko. «Jainkoa» ideia bizitzaren kontra dago; haraindiko munduaren asmakizuna, mundu bakar honen mesprezurako da. «Arima hilezina» kontzeptuak gorputza erdeinatzen du; bizitzan aintzat hartzea merezi duten gauza guztiak ezabatzen ditu: elikadura, etxebizitza, hezkuntza intelektuala, gaixoak zaintzea... Bekatuaren ideia eta aukeratzeko ahalmenaren ideia senak nahasteko eta senekiko mesfidantza indartzeko sortu dira. Gizaki zintzoaren ideiarekin bitartez, kristau morala eri eta ustel dagoen ororen alde jartzen da; izatea ere merezi ez duen ororen alde, eta gizaki harro, sendo eta etorkizuna ziurtatzen duenaren aurka jartzen da.

412. **Krudeltasuna**, hau da, etsaia menderatzearen alaitasuna, oinarritzeko sen natural bat da; herri menderatzaile eta indartsuen ezaugarri bat. Baina mendekoen moralak debekatu eta estali egiten du krudeltasuna, eta ondorioz, norberaren aurka zuzentzen da krudeltasun hori, aszetismoaren bitartez.

#### 10.4. GIZARTEA: ARTISTA SUPERGIZAKI NAGUSI

413. **Bi moralen elkarbizitza** posiblea litzateke, mendekoen morala mendekoen taldearen barnean geratuko balitz. Baina taldeak nagusia menderatu nahi du, eta bere balioak ezarri nahi dizkio. Horrela egiten dute kristautasunak, sozialismoak, demokraziak, eta abarrek. Zer egin beraien aurka?

414. **Jainkoa** hil egin da, moralaren jatorria ezagutu dugunean, eta horren berri zabaldu behar da. Ateismoaren bitartez, kristautasuna desagertu, eta indarraren, askatasunaren eta izpirituen independentzia bermatuko dira.

415. **Pentsaeraren patua** Nietzscheren filosofia onartzea da, Nietzschek berak dioenez, Nietzsche bera delako Jainkoaren heriotzaren berria zabaldu duena, eta horrekin batera, gurutzatuaren bizitzeko erari —Jesukristoren erari— Dionisosen bizitzeko era kontrajarri diona. Gurutzatuak —Jesus— mendekoen morala ordezkatzeko du. Dionisos ardoaren eta sexu-grinaren jainko grekoa da, eta bizitzeko gogo eta indarra ordezkatzeko ditu.

416. **Gamelu** bat bezalakoa zen gizakia, Jainkoagan eta Jainkoaren moralitatean sinesten zuen bitartean. Gameluak legea eta idealak betetzearen zama astuna darama, ez du bizitzan erraztasunik izan nahi, arinkeria arbuizaten du, gogo tinkoa dauka, agindu astunak eta zorrotzak bete nahi ditu. Egoera horretan, idealismoak gizakia menderatzen du.

417. **Nihilismoan** erortzen da gizaki-gamelua, Jainkoaren heriotzaren berria ulertzean; orduan, gizakiak ez du ezertan sinesten (nihil = ezer ez, latinez; ismo = pentsaera edo sinesmen-eskola), ez du motibaziorik, ez du bizitzeko gogorik; norabiderik gabe dago, triste. Arrunckerian eror daiteke. Baina nihilismoan dagoenari beste hau gerta dakiok:

egoera berria ulertzea, sormena lantzea eta harantzagoko munduan kokatzen zituen amets haiek mundu honetan gauzatzen jardutea. Bide hori jorratuz, gizakia supergizakia izatera heltzen da.

418. **Lehoi** bihurtzen da gamelua, ametsak mundu honetan gauzatzen saiatzean. Lehoi bihurtzean, gizakia idealismoaren zamatik askatzen da. Inposatu zitzaion moralak kritikatzen du. Eta moralaren lege idealistaren aurretik norberaren borondatea ezartzen du. Bizidun guztiak beraiek baino handiagoa den zerbaitekin sortzen dute, eta gizakiak ere beste gizaki hobe bat sortu behar du. Baina lehoia ez da sortzailea oraindik.

419. **Haur** bihurtzen da lehoia, sormena lortzean, haurra bakarrik delako balore berriak sortzeko gai. Haurrak ez dio ezezagunari inoiz ezetzik esaten, eta bizitzaren joko eta egoera guztiak onartzen ditu.

420. **Supergizakiak**, azkenean, haurraren errugabetasuna dauka; ongia eta gaizkiaren gaintik dago. Edertasuna miresten du, eta edertasunez bizitzeko, besteak zapaltzeko prest dago, bizitzaren sustraia den botere-nahiaren irrika onartzen duelako eta hari jarraitzen diolako.

421. **Botere-nahiaren** irrika da bizitzaren sustraia edo bultzatzailea. Darwinismoak dioenez, bizirik irauteko borrokatzen dira bizidunak. Baina hori ez da egia. Egiazkoa dena hau da: bizidunen sakoneko irrika hori, besterik gabe bizirik irautearena baino gehiago, botere-nahiaren irrika dela.

## 10.5. IZANA: BIZITZA BERBERAREN ETENGABEKO ITZULERA

422. **Etengabeko itzulera** bat dago; bizitza etengabeki errepikatuko zaigu, edo gutxienez, hori pentsa dezakegu supergizakiak izatera heltzeko. Bestela esanda, nola biziko nintzateke, egiten dudan bizitza behin eta berriro, etengabeki eta betiko errepikatuko litzatekeela pentsatuko banu? Ahalik eta ederren bizitzen saiatuko nintzateke. Etengabeko itzuleran pentsatuz, mundu bakar honen bizitzak, erlijioek asmatutako harantzagoko bizitzak baino garrantzi handiagoa duela ikusten da.

423. **Mundua** arrazionaltasunik gabea da; mundua anabasa da eta izango da betiko. Horrek honako hau esan nahi du: munduari bost axola zaizkiola geure pentsamoldeen egiturak, geure jakin-nahia, geure edertasunaren ereduak. Mundua (unibertsoa) ez da perfektotasunaren, edertasunaren edo nobleziaren geure ereduetan sartzen. Munduak ez du gizakiak egindako inolako sailkapenik onartzen.

424. **Munduaren garapenak** ez du helbururik. Zoriak menperatzen du mundua. Munduak nahiago du zoriaren doinuaren arabera dantza egin, arrazoiaren arabera baino.

425. **Munduaren borondate** bat dago, ordea. Mundua, anabasa hutsa da, hasiera eta amaierarik ez duen mamutzar bat, eta badu bere baitan beharrezkotasun bat: bere burua birbaieztatzearen borondatea, alegia; eta horregatik, bere baitan itzultzen da behin eta berriro. Etengabeko sortze eta birrintze bat da, eta betiko itzulera horrek ez du beste inolako helbururik, biribilaren zorientasuna baino; biribilaren bideari jarraitzen dio, eta bere boron-

datea biribilaren borondatea da. Etengabeko itzuleraren bitartez, munduak, bizitzak, baietz esaten dio bere buruari.

426. **Betiko itzuleraren egia** hain itzela da, ezen gizakia birrindu edo goraiatu baitezake. Egia horrekiko neurtzen da gizakiaren indarra, gizakiak duen bere burua gainditzeko indarra. Bizi dugun bizitza berbera, bere zehaztasun guztietan, ordena berean eta etengabe, berriro bizi beharko dugula hain egia bortitza da, ezen gizaki indartsuena ere etsipenean eror baitaiteke hori ulertzean. Eta, hala ere, ez dago beste aukerarik. Horregatik, egia hori jasan baino askoz gehiago egin behar da, bizitzaren betiko itzulera nahi izatera heldu behar da. Bizitza eta norbera maitatu behar dira, edozein mugatetik baino harantzago, bizitzaren betiko itzulera desiratzera heltzeraino.

*Wittgenstein*

**11**

## 11.1. GARAIA: LEHEN GERRA ETA BIGARREN GERRA

427. **Vienakoa** zen Ludwig Wittgenstein (1889-1951). Viena —Austriako hiriburua— kontraesanez beterik zegoen: aristokratak, burgesak eta langileak elkarren artean borrokatzen ziren. Kontraesan horiek Mundu Gerren sorburuetan egon ziren.

428. **Erregearen eta Parlamentuaren** arteko oreka ezegonkorra zen. Aristokratak Habsburgo-en despotismoaren alde zeuden, baina burgesak Parlamentuaren alde. Aldi berean, aristokratak eta burgesak jauregi eta dantzaleku ezin ederragotan elkartzen ziren.

429. **Langileriaren** bizimodua latza zen Vienan, industrializaturiko Europa osoan bezala. Langile askok trenbidean egindako zuloak zituzten bizileku. Asteazazpi egun, eta egunero 10 ordu egiten zuten lan. Emakumeek eta haurrek ere lan egiten zuten. Emakumeen prostituzioa oso zabaldurik zegoen, bizirik iraun ahal izateko. Egoera hori gainditu nahian, langileen sindikatu batzuek iraultza armatua egin nahi zuten.

430. **Nazismoa** Vienan sortu zen. Aberatsenek bultzatu zuten, langileen sindikatu iraultzaileen aurka borrokatzeko. Adolf Hitler nazismoaren sortzaileetariko bat izan zen. Wittgensteinek eta Hitler-ek Institutu berean ikasi zuten, urte bateko ezberdintasunez. Gero, Hitler-en nazismoak Wittgenstein bezalako milioika judu hil zituen.

431. **Judua** zen Wittgensteinen familia. Baina gizarteak ez gaizki ikusteko, aita protestante egin zen; ama eta Ludwig katolizismora aldatu ziren arren.

432. **Ingeniaritza** ikasi zuen Ludwig Wittgensteinek, aitak bultzatuta, eta hegazkin-motorrak diseinatzen ibili zen. Aita Austriako eta munduko industrialari aberatsenetakoa zen, metalgintzako hainbat enpresari esker. Horregatik ingeniaritzarena. Ingeniaritzan matematika asko erabiltzen denez, matematikaren oinarri filosofikoez kezkatu zen, eta matematika logikaren bitartez kontraesanik gabe eraikitzeko beharrezko hizkuntza logikoaren bila ibili zen, Russell-ekin.

433. **Hizkuntza** ororen filosofia ere egin zuen Wittgensteinek. Matematiketik hizkuntza berezi bat erabiltzen dute, matematika-ikurren bitartez erabiltzen den hizkuntza hain zuzen ere. Matematikaren hizkuntzari buruzko filosofia egitetik, hizkuntza ororen filosofia bat eraikitzen pasatu zen Wittgenstein.

434. **Erljioa.** Judu-erlijioak berarengan izan zuen eraginaz gain, Kant, Schopenhauer, Kierkegaard eta Tolstoi pentsalariak ere eragin zioten Wittgensteini. Wittgenstein eta pentsalari horiek guztiak bat datoz oinarritzko gauza batean: Etika ezin da arrazoian oinarritu, fedearen kontua da. Kontraesanez gainezka zegoen gizartean bizita, eta errudun sentimenduak itota, Wittgensteinek ere, fede hutsa zuen euskarri bakarra.

435. **Munduko Lehen Gerran** boluntario parte hartu zuen Wittgensteinek, Alemaniaren aliatua zen Austria-Hungariako armadan. Orduan Hitler Alemaniako soldadua zen. Beraz, biek alde berean egin zuten borroka.

436. **Lehen Gerra ondoren** Ludwig Wittgenstein Europako gizaki aberatsena izan zitekeen, garai haietako 300 milioi dolarren jabe izanda. Baina aberastasun guztia anai-arre-

bei eman eta gero, eskola bateko maisu egin zen. Monje hastekotan ibili zen, eta lorazain jardun zuen monasterio batean.

437. **Munduko Bigarren Gerran** ospitale batean aritu zen Wittgenstein erizain laguntzaile. Baina oraingoan, Alemaniaren eta Hitler-en kontra, eta Ingalaterraren alde.

## 11.2. IZANA: MUNDUA GERTAKIZUNEN BILDUMA GISA

438. **Mundua** (unibertso osoa, alegia) gertakizun guztien bilduma da; eta zehazkiago esanda: mundua gertakizun atomiko guztien bilduma da.

439. **Gertakizunak** bi motatakoak izan daitezke: atomikoak eta molekularrak. Gertakizun molekularrak gertakizun atomikoz osaturiko gertakizunak dira. Gertakizun atomikoak elkarrekiko independenteak direnak dira, eta gauzen egoerak dira. Gertakizun atomikoak gauza bakunez osaturik daude.

440. **Gauza bakunak** zatitu ezin direnak dira. Beraiek osatzen dute munduaren (unibertsoaren) substantzia.

441. **Gauzen forma** gertakizun atomikoen egitura da. Adibidez, espazioa, denbora eta kolorea gauzen formak dira.

442. **Kausalitatea** ezinezkoa da; hau da, munduko gertakizun atomikoen artean ez dago kausazko edo zergatizko lotura bat. Ezin da esan gertakizun atomiko bat beste bat gertatu delako gertatzen denik. Zergatik? Gertakizun atomikoak elkarrekiko independente gisa definitu ditugulako. Gertakizun atomiko bat gertatzeak ez du esan nahi beste bat gertatuko denik; adibidez, eguzkia gaur irteteak ez du esan nahi bihar irtengo denik.

443. **Lege naturalik** ez dago. Kausalitaterik ez badago, lege naturalik ere ez. Adibidez, Newtonen mekanika munduaren (unibertsoaren) deskribapen arbitrario bat da; posible litzateke antzeko beste deskribapen batzuk egitea.

## 11.3. EZAGUTZA: HIZKUNTZA-EGITUREN ETA MUNDU-EGITUREN BERDINTASUNA

444. **Hizkuntzak** pentsamendu guztiak biltzen ditu; hau da, hizkuntzatik kanpo ez dago pentsamendurik. Hizkuntza proposizio guztien bilduma da.

445. **Proposizioak** egiazkoak ala faltsuak izan daitezkeen baieztapen eta ukazio guztiak dira. Proposizioak atomikoak eta molekularrak izan daitezke. Proposizio molekularrak atomikoen bildumak dira. Proposizio atomikoak elkarrekiko independenteak direnak dira; eta «izenez» osaturik daude. (Wittgensteinen «izen» kontzeptuan gramatikaren izenak, adjektiboak, aditzak eta aditzondoak sartu beharko liriateke, gutxienez; baina ez, lokailuak).

446. **Munduaren errepresentazioa** egiazkoak diren proposizio guztien bilduma da. Beraz, hizkuntzak mundua errepresentatzen du. Baina errepresentazio hori ez da irudi bate-



na bezalakoa, logikoa baizik. Egiazko proposizio atomiko bakoitzari gertakizun atomiko bat dagokio; hau da, egiazko proposizio batek munduko gertakizun bat errepresentatzen edo adierazten du. Eta izen bakoitzari gauza bat dagokio; hau da, izen bakoitzak gauza bat adierazten du; izenak adierazten duen gauza izenaren esanahia da, erreferentzia, alegia.

447. **Isomorfismo** bat dago hizkuntzaren eta munduaren artean; hau da, hizkuntzaren egiturak eta munduaren egiturak berdinak dira (iso = berdin; morfe = forma edo egitura).

448. **Zentzuzko proposizio** bat gertakizunen baten posibilitatea adierazten duena izango da. Hau da, proposizio bat zentzuzkoa izango da, baldin eta bakarrik baldin, horren izen-osatzaileen konbinazioa munduko gauzen konbinazioen bat izan daitekeenaren berdina bada. Bestela esanda, proposizio bat zentzuzkoa izango da, munduko gertakizun edo egoeraren bat izan daitekeena adierazten badu.

449. **Egiazko proposizio** bat, posiblea izateaz gain erreal den gertakizun edo egoera bat adierazten duena da. Adibidez: «Arrosa gorria da» proposizio zentzudun bat da, eta «Arrosa ez da gorria» beste proposizio zentzudun bat da. Biak dira zentzudunak, biak direlako posible. Baina bat bakarrik izango da egiazkoa: errealitateari dagokiona.

450. **Munduaren deskripzio** osoa edukitzeko bi osagai behar ditugu: 1) proposizio atomiko guztien bilduma; 2) proposizio atomikoen artean egiazkoak eta faltsuak direnen zerrenda. Egiazko proposizio atomiko guztien bildumak naturari buruzko zientzia enpirikoa osatzen du.

451. **Zientzia enpirikoetan** proposizio atomikoen bildumak daude, eta baita beste osagarri batzuk ere: hipotesiak, legeak, teoriak. Baina ezin gara horietaz fidatu. Zorrozki hitz egiten badugu, natura-legerik ez dagoela esan behar dugu.

452. **Kausalitatean sinestea** superstizioa da, gertakizun atomikoak independenteak direlako beren artean. Legeak logikaren barnean daude bakarrik; eta logikatik kanpo dena da zorizkoa. «Gaur eguzkia irten da» baieztapenetik ezin dugu «bihar eguzkia irtengo da» baieztapena ondorioztatu.

453. **Probabilitateari** buruz hitz egin dezakegu orduan, eta honelako zerbait esan genezake: «Milaka egunetan irten da eguzkia»; beraz, «bihar eguzkia irtengo da». Baina probabilitateaz hitz egin behar badugu, etorkizunari buruz dugun uste hori funtsean ezjakintasuna delako da. Probabilitatea ez da gertakizunaren ezaugarri bat; zeren eta gertakizuna gertatu egingo baita ala ez baita gertatuko, baina guztiz eta osoki, ez probabilitate batekin.

#### 11.4. GIZAKIA: BOTILAN HARRAPATURIKO EULIA

454. **Etika** ikerketa bat da. Ikergaia zein duen era askotan azal daiteke: baliotsua, egiazki garrantzitsua dena, bizitzaren esanahia, bizitza bizigarri egiten duena, bizitzeko modu zuzena. Estetika ere Etikaren zati bat da.

455. **Bi proposizio mota** ikusten ditugu hasieran: gertaera-proposizioak eta balio-proposizioak.

456. **Gertaera-proposizioak** munduko gertaerak azaltzen dituztenak dira. Gertaerak azaltzen dituzte, baina epaitu gabe. Adibidez, «Lore hori gorria da» eta «Maitek Jon hil du».

457. **Balio-proposizioak** epaitzen dutenak dira. Adibidez, «Maite gaiztoa da» eta «Lore hori polita da». Etika balio-proposizioez osaturik dago. Balio-proposizioak bi mota-takoak izan daitezkeela dirudi: erlatiboak eta absolutuak.

458. **Balio-proposizio erlatiboek** aurrezarritako eredu edo helburu batera iristen den ala ez epaitzen dute; ez dute helburua jartzen ala epaitzen. Adibidez, bide hau zuzena dela esatean, jomuga jakin baterako daraman bidea dela esan nahi dugu.

459. **Balio-proposizio absolutuek** gure nahiek edo helburu gorenek zein izan behar duten esaten digute. Adibidez, «zure nahiak gezurrik ez esatea eta indarkeria ez erabiltzea izan behar du», edo «aberriagatik hiltzeko prest egon behar da».

460. **Proposizioen bazterketa** egin behar da orain, aipaturiko proposizio mota batzuk benetakoak ez direlako.

461. **Balio-proposizio erlatiboen bazterketa** honela egiten da. Balio-proposizio erlatiboak mozturiko gertaera-proposizioak dira, beraz ez dira balio-proposizioak. Adibidez, «Gizon hau korrikalari *ona* da» esaldiak hauxe besterik ez du esan nahi: gizon hori distantzia zehatz bat denbora jakin batean egiteko gai dela.

462. **Balio-proposizio absolutuen bazterketa** honela egiten da. Gizaki orojakile batek dakien guztiaz liburu bat idatziko balu, liburu orojakile eta handi horretan munduaren deskribapen osoa egongo litzateke, eta liburu hark ez luke balio absolutuzko proposizioerik edukiko. Hilketa baten azalpena beste gertaeren maila berean egongo litzateke; adibidez, harri bat erortzearen maila berean. Hilketak gizakiei eragin dien minaz edo amorruez edo emozio desberdinez irakurri ahal izango genuke, liburu orojakilean. Baina horiek gertaerak baino ez lirateke izango, psikearen gertaerak hain zuzen ere, eta ez Etika.

463. **Etikan, zein proposizio** gelditzen dira orduan? Bat ere ez. Etika-proposizio eta erlijio-proposizio guzti-guztiak okerrak dira, baztertu ezinezko metaforak (antzekotasunak) direlako. Gertaera bat metafora baten bitartez deskribatzen badut, gai izan behar dut metafora baztertu eta gertaera zuzenki deskribatzeko. Alabaina, etikan eta erlijioan, metafora baztertu eta deskribatzeko gertaerarik ez dagoela ikusten dugu.

464. **Zentzugabetasuna** da Etika-proposizioen funtsa. Pentsa genezakeen, etika-proposizioak eta erlijio-proposizioak okerrak izatearena behin-behineko egoera dela; hau da, egunen batean lortuko dugula etika-edukiak eta erlijio-edukiak proposizio zuzenez adieraztea. Baina ez, proposizio horiek zentzugabeak baldin badira, ez da esateko era zuzena oraindik aurkitu ez dugulako, baizik eta zentzugabetasuna beraien funtsa delako. Etikak ezin du zientzia izan; ez dio ezagutzari ezer gehitzen.

465. **Gelditzen den proposizio mota bakarra** gertaera-proposizioena da. Gertaera-proposizioek naturaz hitz egiten dute, han gertatzen direnak deskribatuz. Hizkuntzak na-

turaren barneko gertaerak baino ezin ditu adierazi. Etika, ezer izatekotan, naturaz haraindikoa eta hizkuntzaz haraindikoa da.

466. **Ongi absolutua** Etikaren aztergaia da. Baina etika proposiziorik gabe gelditu da. Eta inolako proposiziorik gabe, zer esan eta jakin dezakegu ongi absolutuari buruz? Ongi absolutua egoera deskribagarria izango balitz, denek, norberaren gustuak eta joerak edozein direlarik, derrigorrez gauzatu beharko lukete, edo ez gauzatzekotan errudun sentitu beharko lukete. Baina halakorik gertatzea ameskeria hutsa da.

467. **Etikaren beharra** sentitzen dugu, hala ere. Etika eta ongi absolutua egotea beharrezkoa litzatekeela sentitzen dugu. Etikak ezin du zientzia izan; etikak dioenak ez dio ezagutzari ezer berririk gehitzen; baina giza gogoaren joera baten agerpena da, eta errespetu handia zor diogu. Eta beste gauza guztiak baino garrantzitsuagoa da.

468. **Etikaren paradoxa** hau da: alde batetik ezin dugu etikari buruz ezer jakin eta esan, baina bestalde haren beharra sentitzen dugu. Hau da, etikak ezin du zientzia izan, baina giza gogoaren joera baten agerpena da, eta errespetu handia zor diogu, nahiz eta errespetu hori itxaropenik gabea izan.

469. **Mistikoa** da Wittgenstein, gaur ikusten dugunez. Mistizismoa Jainkoa bezalako gorenko errealitateekiko begirunea izatea da, ezagutu ezinezkoak direla pentsatzen diren bitartean. Wittgensteinen mistikoa da; etikari eta ongi absolutuari errespetu handia zor zaiela, eta, era berean, ezagutu eta adierazi ezinezkoak direla pentsatzen duelako.

470. **Monasterioko lorazain** egon zen Wittgenstein, agian mistikoa zelako, isiltasunaren bidez otoitzaren antzeko zerbait egiten. Mistizismoak monasteriora eramanez; baina isomorfismoarekin ezinezkoa litzateke monje izatea, monjeak azkenean hitzaldi metafisikoren bat onartzen duelako.

471. **Hizkuntzan harrapaturik** gaude. Etika-proposizioekin eta erlijio-proposizioekin egin nahi dena mundutik harantz joatea da, esanahia duen hizkuntzatik harantz alegia, eta hori ezinezkoa da. Hizkuntzaren gela gotorrean harrapaturik gaude, euli bat botila batean bezala. Haren hormen kontra jotzen dugu, behin eta berriro, harantzago joan nahian. Eta jotze hori itxaropenik gabea da.

472. **Positibismo Logikoaren** aurkakoa da Wittgensteinen mistizismoa. Positibismo Logikoa Wittgensteinen lanetan oinarrituriko filosofia-eskola bat da; hala ere, Wittgenstein ez zen positibista, mistikoa baizik. Positibismoak metafisika oro baztertu behar dela esaten du; fisika baino harantzago omen dagoenaz datu enpirikorik ez dugulako, eta ezagutu ezin dugulako.

## 11.5. GIZARTEA: ASKOTARIKO HIZKUNTZA-JOLASAK

473. **Isomorfismoa baztertu** zuen Wittgensteinek bigarren aldi batean. Isomorfismoaren arabera, hizkuntzak funtzio bakarra du: mundua deskribatzearena eta ez epaitzearena; baina bigarren aldi horretan, Wittgensteinek hizkuntza-funtzioen aniztasuna onartu zuen. Gainera, isomorfismoaren arabera, hizkuntza deskriptiboaren eta munduaren

arteko harremana derrigortasunezkoa da; hau da, proposizio bakoitzari gertakizun edo egoera bat dagokio derrigorrez, izen bakoitzari gauza bat dagokio derrigorrez, eta abar. Baina bigarren aldi horretan erreferentziarik gabeko esanahia egon daitekeela onartzen du Wittgensteinek.

474. **Bigarren aldirako pausoa** ez da harritzekoa. Isomorfismoaren aldian, hizkuntzaren eta munduaren arteko harremana derrigortasunezkoa zela, baina munduko gertakizunen arteko harremana zorizkoa edo beharrezkotasunik gabea zela pentsatzen zuen Wittgensteinek. Baina, gertakizunen arteko harremana zorizkoa baldin bada, eta hizkuntza munduko gertakizun bat gehiago baldin bada, zergatik izan behar du beharraren arabera hizkuntzaren eta munduko beste gertakizunen arteko harremanak? Erantzunik ez dago, eta orduan, hizkuntzaren eta munduaren arteko harremana ere, munduko gertakizunen arteko harremana bezalakoa dela pentsatzera pasatzen da Wittgenstein; hau da, zorizkoa (derrigortasunik gabea) dela pentsatzera, alegia.

475. **Hizkuntza-jolasak** daude, zeren eta hizkuntza, egitura tinko bat baino gehiago, jokaera bat baita, gizartean gauzatzen dugun jokaera bat. Hizkuntza-jolasen adibide batzuk honako hauek dira: aginduak eman eta obeditzea, gauza bat deskribatzea eta haren neurriak ematea, deskripzio bat erabiliz gauzaren bat eraikitzea, gertakizun bitxiren bat agertzea, hipotesi zientifikoren bat egiaztatzea, antzeztea, abestea, kontuak esatea, aritmetika-arazo bat konpontzea, itzulpenak egitea, eta abar, eta abar, eta abar.

476. **Hizkuntza-jolasetan hitz baten esanahia** hitz horren erabilera da. Izan daiteke erreferentzia ere, erreferentziaren halako hizkuntza-jolas bat erabiltzen bada; baina hori baino gehiago izan daiteke: edozein erabilera. Hau da, erreferentziarena erabilera mota bat da. Baina erabilera ezin da arauen bitartez mugatu, ohituren arabera aldatzen da.

477. **Hizkuntzaren perfekzioa** edozein hizkuntza-jolasetan aurki daiteke. Ezin dugu pentsatu beste jolas guztiak baino perfektuagoa izango den jolas bat aurkituko edo eraikiko dugunik. Horregatik, filosofiak egin behar duena ez da hizkuntza goragoko bat sortzea, baizik eta hizkuntza-jolasak deskribatzea, eta beraien arteko nahasketak baztertzea; besterik ez. Adibidez, matematika-ariketa bat konpontzeko bertsolaritzaren ohiturei jarraitzen badiet, gaizki ibiliko naiz; edo era erlijiosoan hitz egiteko erreferentziaren ohiturei jarraitzen badiet, gaizki ibiliko naiz.

478. **Hizkuntza tresna** bat da, bizitzaren egoerei aurre egiteko tresna bat. Hizkuntzaren kontzeptuek geure interesak gidatzen dituzte. Hitzen funtzioak langile baten tresnen kutxan dauden tresnak bezain askotarikoak dira.

479. **Pragmatismora** eramaten du hizkuntza tresna bat dela esateak. Pragmatismoaren arabera, ezagutzaren balioa geure helburuak asetzeko balio izatean datza. Ezagutza hizkuntzaren bitartez lortzen badugu, eta hizkuntza-jolasak bizitzari aurre egiteko tresnak edo tresna-kutxak badira, azkenean hizkuntzaren balioa ez datza, adibidez, mundua nolakoa den zehazki azaltzean, baizik eta helburuak asetzean. Baina zein dira helburuak? Anitz dira, jakina; gizaki bakoitzak edo gizarte talde bakoitzak bereak eduki ditzake.

480. **Erlatibismora** eramaten gaitu hizkuntza-jolasen aniztasunak, eta jolasen artean nagusiago bat ez egoteak; zeren eta hizkuntza-jolasen aniztasuna kultura ezberdinen arteko

aniztasuna bezalakoak baita; are gehiago kultura bakoitzak berezko hiztegia eta gramatika dituenen.

481. **Filosofia Analitikoa** Wittgensteinen lanetan eta pentsamenduan oinarritutako gaur egungo filosofia bat da. Filosofia Analitikoak dioenez, Filosofia egin behar duena hizkuntza eta hitzaldiak aztertzea da, zeren eta horien azterketa sakon bat eginez gero, itxurazko arazo asko desagertzen direla ikusiko baita.

*Ortega y Gasset*

**12**

## 12.1. GARAIA: ESPAINIAREN ZATITZEA

482. **Espainola** da José Ortega y Gasset (1883-1956). 1898an (Ortegak 15 urte dituela) Espainiaren gainbehera areagotu egin zen. Espainiak azkenetariko kolonia bat galdu zuen, Kuba. Bi urte beranduago, 1900ean, abertzaletasun zatitzaileak hasi ziren: Kataluniakoa eta Bizkaikoa bereziki, horrela esaten baitzitzaion orduan Euskadiri. Ortegarentzat eta haren belaunaldikoentzat egoera oso larria da.

483. **Espainia zatitzearen zergatia** ez dago Katalunian edo Bizkaian, Gaztelan bertan baizik, Ortegak dioenez. Gaztelak bere berezko zatitzea gainditu zuen eta penintsulako beste herriak «gonbidatu» zituen elkarbizitza baten asmo handietan parte hartzera. Enpresa handiak sortu zituen, ideia gorenen zerbitzura jarri zen eta goi-mailako gizakiaren nahia inposatu zuen. Baina Felipe III.etik Gaztela estua, zekena eta garratza bihurtu zen. «Gaztelak egin du Espainia, eta Gaztelak desegin du». Baina Katalunia eta Baskonia benetan izango balira beraiek esaten duten bezain ederrak, Gaztela esnatu eta lagundu egingo lukete.

484. **Gizarteko taldeen zatitzea** herrialdeena baino larriagoa da. Langileak, militarrek, intelektualak, Eliza, Erregetza... eta horietako talde bakoitza bere aldetik dabil. Militarrek aberria menderatu nahi dute. Langileriak existitu behar duen talde bakarra bera dela uste du. Ondorioz, Espainian, aberri bat baino, isolaturiko zati batzuk daude. Elkartze eza da Ortegak gainditu nahi duen gaitza.

485. **Espainiaren konponbidea** Europa da, eta bereziki Alemania, Frantzia eta Ingalaterra; zeren eta herrialde horiek ondo bizi baitira, duten goi-mailako zientzia eta kulturari esker. Baina Espainiak egin behar duena ez da herri horiek kopiatzea, baizik eta Espainia bera denarekin Europa osatu, herri horietan agertzen diren arazo kulturalak birpentsatuz.

486. **Munduko Lehen Gerra** handik gutxira hasi zen, 1914an. Mundukoa esaten zaio, baina Europako herrialdeen arteko gerra zen nagusiki. Ortegak Europan bilatzen zuen Espainia zatitzearen konponbidea; eta, orduan, Europa bera zatitu zen. Espainiako berrikuntzaren oinarria izan behar zuena arazo bihurtu zen. Baina —Ortegak berak zioen— gerra hori ez zen europar kulturaren porrota, borrokalarien kulturak oso antzekoak zirelako.

487. **Talde zatiketaren arazoari aurre egiteko**, Ortegak Europan sorturiko kultura unibertsalaren arazoak eta ereduak birpentsatu zituen, beraietan batasuna aurkitu nahian, hemendik aurrera ikusiko dugun moduan.

## 12.2. EZAGUTZA: PERSPEKTIBA GUZTIEN BEHARRA

488. **Filosofia** geure sinesmenekiko konfiantza galtzen dugunean hasten da, zalantzak gainditu nahian, arrazoimenaz baliatzen hasten garelako. Hori nola gertatzen den ikusteko, sinesmenen eta ideien arteko ezberdintasuna ulertu behar dugu. Bi burutazio mota daude: sinesmenak eta ideiak.

489. **Sinesmenak** geure ingurunean aurkitzen ditugun usteak dira; geure burua munduan kokatzeko era ezartzen digute. Haien baitan bizi gara; hain onartuta ditugu, ezen haien alde egiteko beharrik ere ez baitugu ikusten. Nolabait esateko, ez gara geu sinesmenak ditugunok; haiek gu gauzkate. Arnasten dugun airea bezalakoak dira; ez gara beraiez ohartzen, baina geure funtsezko osagai dira. Giza taldearenak dira, eta taldean mamitu ditugu, geu baino lehenago zeudelako.

490. **Ideiak** gizabanakoarenak dira, gizabanakoak eraikitako pentsamenduak dira, eta kontzientek. Sinesmenen batek huts egiten digunean, pentsatzen hasten gara, eztabaidatzen ere bai, eta pentsatze horren bitartez, ideiak eraikitzen ditugu. Sinesmen guztietara zabal daiteke zalantza, eta ondorioz, ideia gehiago sortu eta berrerratu beharko ditugu.

491. **Sinesmenen zalantza gainditu** nahi dugu, iritzi ezberdinen arteko zalantzan ezin garelako bizi. Egia eta ziurtasuna aurkitu nahi ditugu. Arrazoimena da horretarako tresna. Sokrates izan zen arrazoia ohiko pentsaeratik ezberdina, hobe eta goragokoa dela ikusi zuena. Orduan Europa jaio zela esan daiteke.

492. **Arrazoitzea** hau da: gauza baten itxuratik gauza horren mamira edo esentziara joatea. Platonentzat arrazoitzearen adibide bat definizioak ematea da; hau da, definitutakoa azkeneko osagaietan zatitzea. Behin honaino helduta, Platonek berak ikusi zuen zailtasuna: azkeneko osagai horiek ezin dira gehiago deskonposatu, eta intuizioz ezagutzen edo atzematen direla esan zuen. Baina, Ortegak dioenez, intuizioz ezagutzen dena ez da arrazionalki ezagutzen, irrazionalki baizik; eta ondorioz, arrazoiaren bertan irrazionaltasun bat aurkitzen dugu. Orduan, begiak ireki eta aurrean duguna ikusi egin behar dugu, zatiezinezko osagaiak ezagutzeko.

493. **Arrazionalistaren jarrera** ez da begiratzearena, agintzearena baizik. Arrazionalistak, mundua den moduan onartu ordez, izateko era bat ezarri nahi dio munduari, arrazionalistak berak pentsatzen duena, hain zuzen ere. Arrazionalistak pentsatzen duena ez du munduan horrela aurkitu; lehendabizi, hori aurkitu nahi izan zuen, eta gero, horrela dela dioten frogak bilatzen ditu. Arrazionalistari ez zaizkio frogak etorri, bera da frogaren berezi horien bila joan dena, zituen nahiak betetzeko. Baina, hala ere, arrazionalistak aurkituriko frogak ez dira ilusioak.

494. **Totalitarismoa** ekar dezake arrazionalistaren jarrerak; zeren eta munduak (gizarteak) arrazoiaren arabera jokatzeko ez badu, etorkizunean arrazoiaren arabera jokatuko duela pentsatzen baitu arrazionalistak. Hortik datoz azkeneko bi mendeetako futurismoa, idealismoa, utopismoa eta erradikalismo politikoa, eta beraiek dakarten gaitza: totalitarismoa.

495. **Errealitatea** ezbeharrezkoa eta irrazionala da gizakion arrazoimen mugatuarentzat. Beharrezkoa eta irrazionala litzateke jainkoaren arrazoimenarentzat, hark dena jakingo lukeelako; baina guztia dakien arrazoimenaren kontzeptua irrazionala da.

496. **Bitalismoa** dago arrazionalismoaren beste muturrean. Bitalismoak dioenez, ezagutzeko bide hoberena ez da arrazoiarena, ezagutzeko objektua gertutik bizitzea baizik. Gauza kontzeptuen bitartez analizatzeak gauzatik urruntzen gaitu; gauza ezagutzeko egin behar duguna gauza hori gertutik bizitzea da.



497. **Bitalismo soilaren ondorioak** erlatibismoa eta eszeptizismoa dira. Gizabanako bakoitzak berezko bizipenak dituenaz gero, berezko egia edukiko du; eta hori horrela bada, erlatibismoan gaude: bakoitzak berezko egia duela eta guztientzako egia bakar bat ez dagoela pentsatzen dugu. Eta erlatibismo horrek eszeptizismora garamatza; hau da, egiarik balego ezagutu ezinezkoa dela baieztatzera; zeren eta bakoitzak bere egia baldin badu, norena da benetako egia?

498. **Egia ukatzearen arazoak** sortzen zaizkigu orduan. Hasteko, egiarik ez badago, erlatibismoa bera ere ezin da egia izan. Jarraitzeko, egia bat dagoela sinestea gertakari oinarritzeko bat da gizakion bizitzan. Egia ukatzen badugu, absurduan murgiltzen gara.

499. **Perspektibismoa** da egia aurkitzeko bidea. Errealitatea hain da aberatsa, ezen ikuspuntu edo perspektiba berezi batetik ikus baitezakegu bakarrik. Geuretzat, perspektiba errealitatearen ezaugarri bat da, errealitatea antolatzea ahalbidetzen digun ezaugarri bat hain zuzen ere. Gizabanako, herri edo belaunaldi bakoitzak unibertsoaren ikuspegi edo perspektiba berezi bat du. Ondorioz, gizabanako, herri edo belaunaldi bakoitza egia eskuratzeko beharrezko organo bat da.

500. **Errealitateari buruzko perspektibak infinituak** dira, eta guztiak dira egiazkoak. Munduaren ezagutza osoa perspektiba guztiak elkartuz lor daiteke bakarrik. Hori jainkoak bakarrik ahalko luke, baina geuri esker; zeren eta, nolabait esatearren, geu baikinagente jainkoaren begiak. Guztiok gara beharrezkoak, mundu osoa ezagutzeko perspektiba guztiak beharrezkoak diren era berean.

501. **Gezurrezko perspektiba** bat perspektiba bakarra izan nahi duena da. Beraz, arrazionalismoaren ikuspegia okerra da. Baina erlatibistaren ikuspegia ere faltsua da, zeren eta erlatiboa dena ez baita egia, baizik eta errealitatea bera. Bai, errealitatea bera erlatiboa da, zeren eta mundua norbaiten mundua baita beti. Mundua hau da: mundua bera eta nire ikuspegia. Mundua hau da: mundua bera eta ni.

502. **Bizi-arrazoimen** batek ordezkatu behar du arrazoimen soil. Arrazoimena bizitzaren emaitza eta funtzio bat da, bizitzaren zerbitzuan dago. Ez zaio arrazoia bizitzari aplikatu behar; bizitzari barrutik begiratu behar zaio, eta bere baitan arrazoia deskubritu. Bizi-arrazoimena ikusiko da han: bizidun arrazoimena. Horrela, arrazionalismo soil eta bitalismo soil gaingaituta eta bateratuta gelditzen dira.

503. **Bizitzea** ez da norberaren begiari begiratzea, baizik eta inguruko mundura irteera. Bizitza altruismoaren gertakari kosmikoa da, bertan Nia etengabeki doa Bestearantz. Bizitzari beharrezkoa zaio bera baino harantzago dagoen zerbaitez bihotza piztea. Horrela, ezagutzaren teoria ez zaigu nahikoa, izana bera aztertu behar dugu.

### 12.3. IZANA: NI, INGURUNEA ETA HISTORIA

504. **Filosofiaren galdera funtsezkoena** izanari buruzko galdera da. Parmenidesetik izana izakiaren ezaugarri bat zela pentsatzen zen; hau da, izakia gauza bat da, eta izana izakiaren gauzatasuna da; hau da, izana errealitatea da, gauza hori bere baitan dena. Deskartesentzat ere, ni pentsatzailea bere baitan da, izaki bat da. Baina Kantek hau guztia ikusteko era

aldatzen du, konturatu gabe agian. Kanten ikuspegitik izana ez dago izakian; subjektu ezagutzailea da izakian izana jartzen duena.

505. **Izana** ez da berez den zerbait, ezta gauzek duten berezko ezaugarri bat ere. Gauzen aurrean subjektu pentsatzaile bat jartzen denean, gauzek izateko ahalmena eskuratzen dute, subjektuak eman dielako. Izana ez da berez, baizik eta niretzat.

506. **Izanari buruzko ezagutza subjektiboa** da orduan. Baina ezagutza subjektiboak objektua atzeman dezake. Kontzeptuak gizakiren baten bizitzaren osagai gisa existitzen dira, baina objektiboa den zerbait adierazten dute. Horrek kontraesana dirudi; baina ez da, subjektua objektiboa den horretara irteten den izaki gisa definitzen badugu. Horregatik dio Ortegak: «Ni hau naiz: ni eta nire ingurunea».

507. **Subjektu pentsatzailea** giza bizitza da: gizakia da, bizi-arrazoi gisa. Nire pentsamendua nire bizitzaren funtzio bat da. Pentsamendua ez den beste zerbaitek bultzatzen nau pentsatzera; bizi naizelako pentsatzen dut; inguruneaz kezkatzen naizelako pentsatzen dut (Ortegaren arraziobitalismoa). Ez dago, beraz, bere baitan den ni bat; ni hori, inguruneko gauzak diren bitartean da. Nik ezin dut izan inguruneko gauzarik gabe (idealismoaren aurka). Ni hau naiz: ni eta nire ingurunea. Descartesen subjektua, «pentsatzen dut, beraz banaiz» esaten duena oker dagoen abstrakzio bat da.

508. **Gauzak beraiek** ere ez «dira», ez dute izanik, ni gabe (errealismoaren aurka). Protagorasek zioenez, «Gizakia da gauza guztien neurria, direnena diren bitartean, ez direnena ez diren bitartean». Gauzek ez dute berezko neurririk, neurrigabeak dira, ez dira gehiago ala gutxiago, ez dira horrela edo honela; hau da, ez dira ezta ez-dira ere. Gauzen neurria —gauzen izateko era— gauzen izana da, eta izan hori egoteko derrigorrezkoa da gizakiak gauzetan parte hartzea. Mundua hau da: mundua bera eta ni.

509. **Bizi-arrazoia gizartean** arrazoi historikoa da. Herriek bizitzen dituzten egoerak hiru motatakoak izan daitezke: tradizioa, arrazionalismoa eta desilusioa.

510. **Tradizioan** antolatzen dira aberriak. Gazteak diren herriengan eragin handia du iraganak. Gizakia arbasoek egin zutenaz gidatzen da hasieran.

511. **Banakoaren arrazionalismoa** sortzen da gero taldean. Tradizioaren ordean, indibidualismoa eta antitradizionalismoa ezartzen dira. Eta banakoak tradiziotik aparteko arrazoi bat bilatzen du, erabakiak hartzeko eta gizarte antolatzeko. Arrazionalismoan gaude; baina argiago litzateke erradikalismoa deitzea. Eta erradikalismo politikotik iraultzak datoz. Iraultza bakoitzak utopia bat gauzatu nahi du; baina hori ameskeria hutsa da. Iraultzaren ondoren iraultzaren porrota dator. Orduan, iraultzaren helburuan bertan kontraesanen bat dagoela susmatzen da; ideia politikoen erakarpena galtzen dute: desilusioa dator.

512. **Desilusioan** gizakiak ez du ezertan sinesten: ez tradizioan, ez arrazoian; ez taldean, ez banakoan. Koldarkeria zabaltzen da gizartean. Koldarkeriarekin batera, superstizioa zabaltzen da gizartean: horoskopoen argitaratzen dira; magia, deabrukeria, sorginkeria eta halako gaien buruzko milaka liburu argitaratzen dira; gezurti eta antzezleri bitxiak, nagusiz mozorroturik, aberastu egiten dira jendea manipulatzeko. Mendekotasuna zabaltzen da gi-

zartean. Zapalkuntza eta haren aurkako terrorismoa ere zabaldu egiten dira, internazionalak bihurtu arte.

513. **Historiaren gurpil gaizto** batean gaudela dirudi: tradizioa, iraultza, desilusioa, tradizioa berriro... Baina gizakia librea da funtsean; eta horregatik gurpil gaizto horretatik atera daiteke. Horrelako gurpil gaiztoan ez egoteko, gizarteak izan behar duenari buruzko pentsamendu arrazionalistak bateratzailea izan behar du; eta gainera, irekita utzi behar du honako aukera hau: gertakariak helburu bateratzailearekin bat ez etortzeko aukera, hain zuzen ere.

514. **Aukeratzearen beharra** bizitzaren muinean erroturik dago. Ahalezko bideen artean aukeratu beharra dugu. Ingurunea egina datorkigu, eta hor aukera batzuk ditugu inposaturik. Bizitzak ez du ingurunea aukeratzeko, ingurunea inposaturik datorkigu. Gorputza ere pentsatzailearen ingurunea da. Baina ingurunean ez daukagu jarraibide bakar bat, baizik eta ezberdin batzuk, eta horren ondorioz aukeratu egin behar dugu; aukeratzera beharturik gaude; askatasuna erabiltzera derrigorturik gaude, mundu honetan izango garena erabakitzera beharturik gaude.

515. **Askatasuna ukatzea** ezinezkoa da. Aske izatearen derrigortasun horri ezin diogu uko egin, aldi txikienean ere ez. Desesperaturik gaudenean ezer egiten ez badugu ere, ez erabakitzea erabaki dugu. Ez da ingurunea erabakitzen duena. Inguruneak arazoa edo dilema jartzen du; eta horren aurrean geuk erabaki behar dugu. Aukeratzeko duena geure izaera edo karakterra da.

516. **Taldeko aukerak** ere badaude. Aukeratzearen beharra taldearen bizitzan ere badago. Taldearentzat ere, lehendabizi ahalezko bideen multzo bat dago, eta gero taldearen bizitza erabakitzen duen aukera bat. Erabaki hori taldean nagusi den gizaki motatik sortzen da.

#### 12.4. GIZAKIA: JENDETZA ETA ARISTOKRATA

517. **Egungo gizaki mota** zabalduena jendetzarena da, eta egungo bizimodua jendetzaren errebolta da. Jendetzaren errebolta gizadiaren antolaketa berri eta ezin hobe bat izan daiteke; baina izan daiteke amildegiratze bat ere.

518. **Patu** bat dauka gizakiak, nahiz eta librea izan: bera baino handiagoa den eta etorkizunean kokatzen den helburu bat lortzearena. Nire bizitza zerbaiteira dedikatzen ez badut, helburu bat lortzera dedikatzen ez badut, galduta ibiliko naiz: gaur gauza bat eta bihar ezberdin bat egiten, berekoikeriaren labirintoan galduta.

519. **Nola ageri zaigu patua?** Patu hori ez da egin nahi izaten duguna, alderantziz: nahiz eta gogorik ez eduki, egin behar dugula uste dugun hori da. Eta hori egitea onartzen badugu, geure benetako izaera gauzatuko dugu; bestela gezurrezkoak izango gara, geure buruari gezurra esaten ibiliko gara, itxura hutsean hain zuzen ere, eta itxurakerietan ibiltzea norbere burua hiltzea da.

520. **Jendetzaren errebolta** bizi gara, jendetzaren aginte pean hain zuzen ere, baina jendetzaren errebolta itxurakeria handia dago. Demokraziari eta teknologiari esker, jendea

askoz hobeto bizi da, orain 100 urte baino; baina eginbeharrak ez duela uste du; dena zor zaiola uste du; betebeharrak gabeko eskubideak dituela uste du; ez dio bere buruari eginbeharrak jartzen. Lortutako hobekuntza guztiak naturalak direla uste du jendetzak, eta ez antolaketa-aren ondorioa. Sineste horiek galbidera garamatzate.

521. **Goi-mailako gizakia**, aristokrata, bere buruari eginbeharrak jartzen dizkiona da, diziplinatua dena, bere bizitza helburu goren bati dedikatzen diona. Era berean, goi mailako gizarte bat arauak dituena da. Araurik gabe ez dago kulturarik; araurik gabeko gizartea basatia da. Jendetzako jendeak moralik gabe bizi nahi du, baina hori ezinezkoa da; amoralitateak existitzen ez den zerbait da.

522. **Jendetza eta aristokrazia** ez dira langileria eta burgesia. Jendetza eta aristokrazia horiek gizaki izateko erak dira, langilerian nahiz burgesian aurkitu daitezkeenak. Eta ez dago aristokraziarik gabeko gizarterik. Aristokrazia hori gauzatzeko, ez da beharrezkoa filosofo bihurtzea, ezta agintariak filosofo bihurtzea ere; beharrezkoa dena hau da: filosofoak filosofo izatea benetan, gizartearen helburuak agertzeko.

## 12.5. GIZARTEA: EUROPA ABERRI HANDIA

523. **Estatuaren sorrera** gizarteari zor zaio. Estatuak gizarteak sortzen du antolaketaren bitartez hobe bizitzeko. Horregatik, estatuak ezin du izan gizartearen tresna bat baino. Sobiet Batasunean estatuak gizartea menderatu du. Italian Faxismoak agintzen du, eta Mussolinik dioenez, «dena Estatuagatik; ezer ez Estatutik kanpo; ezer ez Estatuaren kontra». Alemanian, ordea, demokrazia liberala bultzatu nahi dute sozialdemokratek, baina horren aurka ageri dira komunistak eta nazional sozialistak. Faxismoa, marxismoa eta nazional sozialismoa totalitarioak dira. Totalitarismoa zabaltzen ari da munduan.

524. **Estatuaren nagusitasunak** gizabanakoaren eta gizartearen independentzia agortzen du. Gauzek ez lukete horrela izan behar, zeren eta agintaritzaren indar fisikorik gabe egin beharko bailitzateke, elkarrizketaren bidez. Baina, zoritxarrez hori ez da beti gertatzen: askotan iritzi publikoaren indarra ahuldu egiten da, iritzi publikoak agintaritzaren gaitzaren du, eta orduan, haren hutsunea indar soilak betetzen du. Agintaritzak botere izpirituak bat izan behar du. Iritzirik gabe, gizakien arteko elkar bizitza anabasa litzateke.

525. **Nork agintzen du munduan?** Lehen Europak agintzen zuen. Gaur egun, aberri- txoek Europa zatitzen dute. Ingelesa, alemana edo frantsesa izatea probintzietakoa izatea da. Europak bere burua gainditu behar du; horrela, estatu guztiak sortarazi dituen prozesu historikoari jarraituko dio Europak ere.

526. **Estatuaren funtsa** ez da arraza, ez hizkuntza, ezta lurra ere. Estatuak arraza, hizkuntza eta lurra baino harantzago doa. Hasiere batean estatuak arraza askotakoa eta eleanitza da. Estatuak talde eta herri ezberdinak, lurrak batuz, elkarrekin bizitzera behartzen direnean hasten da. Baina behartze hori ez da bortizkeria soiluz egiten, proiektu bat da, sakabanututako taldeei proposatzen zaien elkarrekiko lan bat. Estatuaren funtsa elkarrekin zerbait egiteko borondatea da. Proiektu hori gabe, arraza, hizkuntza eta luraren mugek ere ez dute ezertarako balio. Bestalde, estatuak demokratikoa izan behar du, gizartearen benetako errealitate hurbil dadin.

527. **Europaren aberria** eraiki behar dugu. Europaren suntsiketa ekar dezakete aberri txikitako abertzaleek jarri nahi dituzten lurraldeen arteko mugek, alde batetik, eta marxisten internazionalismo totalitarioak, bestetik. Ez dugu Europa aberrien aurka eraiki behar. Beharrezkoa da Europa aberrietatik eratortzea, baina beharrezkoa da Europa aberriak baino gehiago izatea. Europaren aberri handia eraiki behar dugu, kontinenteko herriekin; eta totalitarismoak gelditu.

*Bibliografia*

**13**

Aipamen berezi bat merezi dute «Klasikoak» argitaletxeko liburuek. [www.klasikoak.com](http://www.klasikoak.com) web-helbidetik dohain har daitezke. Bertan, ikasliburu honetan azalduko filosofo bakoitzaren libururen bat agertzen da. Gainera, beste filosofo askoren liburuak daude.

## **B.0. FILOSOFIAREN HISTORIA OROKORRAK**

ABBAGNANO, N.: *Historia de la Filosofía*, 3 vols., Barcelona, Montaner y Simón, 1964.

COPLESTON, F.: *Historia de la Filosofía*, 6 vols., Barcelona, Ariel, 1969

## **B.1. PLATON**

CALVO, T.: *De los sofistas a Platón: Política y pensamiento*, Madrid, Cincel, 1986.

CORNFORD, F.M.: *Teoría platónica del conocimiento*, Buenos Aires, Paidós, 1968.

GIGON, O.: *Los orígenes de la filosofía griega*, Madrid, Cátedra, 1985.

ROSS, D.: *Teoría de las ideas de Platón*, Madrid, Cátedra, 1985.

PLATÓN: *Platón: Obra Completa*; Madrid, Editorial Gredos, 003; 9 vol.

### ***Euskaraz***

PLATON: *Eutifron, Eutidemo, eta Gorgias*, Bilbo, Klasikoak, 2005.

—— *Fedon, Menon, Kratilo eta Fedro*, Bilbo, Klasikoak, 2005.

—— *Politeia*, Bilbo, Klasikoak, 1993.

—— *Kriton*, Irun, Iralka, 1994.

PRESOKRATIKOAK: *Filosofo presokratikoak*, Bilbo, Klasikoak, 2005.

## **B.2. ARISTOTELES**

ARISTÓTELES: *Aristóteles: Obras Completas*, Madrid, Editorial Gredos, 1988/2005; 18 vol.

BROCKER, W.: *Aristóteles*, Santiago de Chile, Ed. Universidad, 1963.

JAEGER, W.: *Aristóteles*, Madrid, Fondo de Cultura Económica, 1984.

MONTOYA, A; CONILL, J.: *Aristóteles: sabiduría y felicidad*, Madrid, Cincel, 1988.

REALE, G.: *Introducción a Aristóteles*, Barcelona, Herder, 1985.

### ***Euskaraz***

ARISTOTELES: *Nikomakorentzako Etika*, Bilbo, Klasikoak, 2001.

### **B.3. AGUSTIN HIPONAKOA**

AGUSTÍN DE HIPONA: *Obras completas de San Agustín*, Madrid, Ed. BAC

MARROW, H.L.: *San Agustín y el agustinismo*, Madrid, Gredos, 1960.

SCIACCA, M.F.: *San Agustín*, Barcelona, Ariel, 1955.

### ***Euskaraz***

SAN AGUSTIN: *San Agustinen hainbat idazlan*, Bilbo, Klasikoak, 2003.

### **B.4. TOMAS AKINOKOA**

COPLESTON, F.: *El pensamiento de santo Tomás*, México, Fondo de Cultura Económica, 1960.

FABRO, C.: *Introducción al tomismo*, Madrid, Rialp, 1967.

TOMÁS DE AQUINO: *Antología metafísica*, Barcelona, Ediciones 62, 1990.

——— *Compendio de teología*, Barcelona, Orbis, 1985.

——— *La monarquía*, Madrid, Tecnos, 1989

### ***Euskaraz***

TOMAS AKINOKOA: *Tomas Akinokoaren lan hautatuak I*, Bilbo, Klasikoak, 2004

——— *Tomas Akinokoaren lan hautatuak II*, Bilbo, Klasikoak, 2004

### **B.5. DESCARTES**

DESCARTES, R.: *Discurso del Método, Dióptrica, Meteoros y Geometría*, Editorial Alfaguara, Madrid, 1981.

——— *Los principios de la filosofía*, Madrid, Alianza, 1991.

——— *Reglas para la dirección del espíritu*, Madrid, Alianza, 1984.



——— *El tratado del hombre*, Madrid, Alianza, 1990.

GOUHIER, H.: *El pensamiento crítico de Descartes*, París, J. Vrin, 1969

GÉROULT, M.: *Descartes selon l'ordre des raisons*, 2 ale., Paris, Aubier-Montaigne, 1953.

HAMELIN, O.: *El sistema de Descartes*, Buenos Aires, Losada, 1949.

RÁBADE, S.: *Descartes y la gnoseología moderna*, Madrid, Del Toro, 1971.

RODIS-LEWIS, G.: *La obra de Descartes*, París, J. Vrin, 1971.

### ***Euskaraz***

DESCARTES, R.: *Metodoari buruzko diskurtsoa / Meditazio Metafisikoak*, Bilbo, Klasikoak, 1997.

### **B.6. LOCKE**

LASALLE RUIZ, J.M.: *John Locke y los fundamentos modernos de la propiedad*, Madrid, Dykinson, 2001.

——— *Locke, liberalismo y propiedad*, Madrid, Colegio de Registradores de la Propiedad, Mercantiles y de Bienes Muebles de España, 2003.

LOCKE, J.: *Ensayo sobre el entendimiento humano*, Barcelona, Ediciones Folio, 2003.

——— *Dos ensayos sobre el Gobierno Civil*, Madrid, Espasa Calpe, 1997.

MACPHERSON, CRAWFORD BROUGH: *La teoría política del individualismo posesivo: de Hobbes a Locke*, Madrid, Editorial Trotta, 2005.

### ***Euskaraz***

LOCKE, J.: *Giza adimenari buruzko entseiua I*, Bilbo, Klasikoak, 1999.

——— *Giza adimenari buruzko entseiua II*, Bilbo, Klasikoak, 1999.

——— *Gobernu zibilarari buruzko bigarren tratatua*, Bilbo, Klasikoak, 2003.

### **B.7. ROUSSEAU**

GRIMSLEY, RONALD: *La filosofía de Rousseau*, Madrid, Alianza Universidad, 1977.

ROUSSEAU, J.J.: *Discurso sobre las ciencias y las artes*, Madrid, Libsa, 2000.

——— *Discurso sobre el origen y los fundamentos de la desigualdad entre los hombres*, Valencia, Ediciones Tilde, 1997.

——— *El contrato social*, Madrid, Espasa-Calpe, 1998.

——— *Emilio o De la educación*, Madrid, Alianza, 1997.

STAROBINSKI, JEAN: Jean-Jacques Rousseau. *La transparencia y el obstáculo*, Madrid, Taurus, 1983.

### ***Euskaraz***

ROUSSEAU, J.J.: *Gizarte hitzarmena*, Bilbo, Klasikoak, 1993.

### **B.8. KANT**

GOLDMANN, L.: *Introducción a la filosofía de Kant*, Buenos Aires, Amorrortu, 1974.

KANT, I.: *Crítica del juicio*, Madrid, Espasa Calpe, 1991.

——— *Crítica de la razón pura*, Madrid, Espasa Calpe, 1991.

——— *Crítica de la razón práctica*, Madrid, Espasa Calpe, 1975.

——— *Fundamentos de la metafísica de las costumbres*, Madrid, Espasa Calpe, 1990.

——— *La metafísica de las costumbres*, Madrid, Tecnos, 1989.

——— *La paz perpetua*, Madrid, Tecnos, 1985.

——— *La Religión dentro de los límites de la mera razón*, Madrid, Alianza, 1986.

KÍRNER, S.: *Kant*, Madrid, Alianza Universidad, 1977.

LACROIX, J.: *Kant*, Buenos Aires, Sudamericana, 1969.

### ***Euskaraz***

KANT, I.: *Arrazoimen hutsaren kritika*, Bilbo, Klasikoak, 1999.

——— *Arrazoimen praktikoaren kritika*, Bilbo, Klasikoak, 2005.

——— *Prolegomenoak: zientzia bezala agertu nahi duen etorkizuneko edozein metafisikaren-tzat*, Bilbo, Klasikoak, 1995.

**B.9. MARX**

BERLIN, I.: *Karl Marx, Madrid*, Alianza, 1988.

ELSTER, J.: *Introducción a Karl Marx*, Madrid, Ed. Trotta, 1995.

MARX, K.: *El capital I*, Barcelona, Ediciones Folio, 1997.

——— *El capital II*, Barcelona, Ediciones Folio, 1997.

——— *El capital III*, Barcelona, Ediciones Folio, 1997.

——— *El capital / El manifiesto comunista / Precios, salarios y ganancias*, Madrid, Ediciones Ibéricas, 1985.

***Euskaraz***

MARX, K.; ENGELS, F.: *Alderdi Komunistaren manifestua / Manifiesto del partido comunista*, Donostia, Hordago, 1980.

MARX, K.: *Karl Marx: idazlan hautatuak*, Bilbo, Klasikoak, 2004.

——— *Lan alokatua eta kapitala / Alokairua, prezioa eta irabazia*, Donostia, Lur, 1971.

——— *Louis Bonaparteren «Brumaire»aren hamazortzia*, Donostia, Lur, 1973.

**B.10. NIETZSCHE**

FINK, E.: *La filosofía de Nietzsche*, Madrid, Alianza, 1994.

NIETZSCHE, F.: *Así habló Zaratustra*, Madrid, Valdemar, 2005.

——— *Ecce homo*, Madrid, Alianza, 1971.

——— *La genealogía de la moral*, Madrid, Alianza, 1972.

SAFRANSKI, R.: *Nietzsche. Biografía de su pensamiento*, Barcelona, Tusquets, 2001.

VERMAL, J.L.: *La crítica de la metafísica en Nietzsche*, Barcelona, Anthropos, 1987.

***Euskaraz***

NIETZSCHE, F.: *Honela mintzatu zen Zaratustra*, Bilbo, Klasikoak, 1992.

——— *Moralaren genealogia*, Bilbo, Klasikoak, 1997.

### **B.11. WITTGENSTEIN**

KENNY, A.: *Wittgenstein*, Madrid, Alianza Universidad, Madrid, 1995.

PRADES, J.L.; SANFELIX, V.: *Witgenstein: mundo y lenguaje*, Madrid, Cincel, 1990.

BAUM, W.: *Ludwig Wittgenstein*, Madrid, Alianza Editorial, 1988.

JANIK, A.; TOULMIN, S.: *La Viena de Wittgenstein*, Madrid, Taurus, 1983.

WITTGENSTEIN, L.: *Conferencia sobre ética: con dos comentarios sobre la teoría del valor*, Barcelona, Paidós, 1990.

——— *Investigaciones filosóficas*, Barcelona, Crítica, 1988.

——— *Observaciones filosóficas*, Siglo XXI, 1981.

——— *Tractatus Logico-Philosophicus*, Madrid, Alianza, 1973.

#### ***Euskaraz***

WITTGENSTEIN, L.: *Tractatus Logico-Philosophicus*, Bilbo, EHUKo Argitarapen Zerbitzua, 1990.

### **B.12. ORTEGA Y GASSET**


MARÍAS, J.: *Ortega. Las trayectorias*, Madrid, Alianza Universidad, 1983.

ORTEGA Y GASSET, J.: *Obras Completas*, Madrid, Editorial Alianza/ Revista de Occidente, 1946-1983, 12 vol.

WALGRAVE, J.H.: *La filosofía de Ortega y Gasset*, Madrid, Ed. Revista de Occidente, 1965.

#### ***Euskaraz***

ORTEGA Y GASSET, J.: *Masen errebolta*, Bilbo, Klasikoak, 1994.



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2872-7



9 788445 728727

Salneurria: 14 €